



Bortxazko lanak

Gipuzkoako errepideetan



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako Foru Aldundia
Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentua

Izenburua: Bortxazko lanak Gipuzkoako errepideetan

Argitaratzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Egilea: Euskal Memoria Fundazioa

Ikerketa eta dokumentazioa: Izar Alkuaz

Diseinua (eta maketazioa): BIDERA komunikazioa (BERRIA Taldea)

ISBN: 978-84-7907-724-2

Lege gordailua: SS-1453-2014

Bortxazko lanak Gipuzkoako errepideetan

Donostia 2014



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Mugikortasuneko eta Bide
Azpiegituretako Departamentua

► HITZAURREA

Behin eta berriro eztabaidatu dugu egun ditugun errepideen inguruan. Azpiegitura erraldoien inguruan hain zuzen ere. Noraino beharrezkoak diren edo ez diren iritziak kontrajarriz.

Eskuartean dugun eztabaida hori oraingo da, eta utz dezaiegu bada, gaurko eragile sozial, ekonomiko eta politikoei eztabaidari ekin diezaioten.

Gaurkoan aurkezten dugun lana iraganera begira egindakoa da. Eta ez du ikamika politikoarekin, irizpide ekologistekin edota eredu ezberdinen arteko talkarekin zerikusirik.

Gaurko lana errepideez da, bai, baina funtsean esklabutza hitz egiten du. Gure herrian orain dela hamarkada gutxi esklabutza pairatu zutelako milaka eta milaka gipuzkoarrek.

1936ko militar faxisten altxamenduaren garaipenarekin batera hasi zen tragedia, gure herria, askatasuna eta demokrazia defendatzeagatik borrokatu zirenentzat: Exekuzioak, espetxea, erbestera ihes egin beharra... eta baita esklabutza ere.

Faxisten eskuetan erori ziren milaka eta milaka gudari eta miliziano espetxeetatik edota kontzentrazio eremuetatik atera eta doako langile bezala aritzera behartu zituzten, “Batallón de Trabajadores” izen eufemistikopean.

XX. mendean esklabutza erabili zuen Frankismoak, berak sortutako gerraren ondorioz birrinduta geratu ziren hainbeste azpiegitura berreraikitzeke. Zer esan duintasuna guda-zelaian behin eta berriro erakutsi zuten eta esklabutza kondonatu haiek pairatu zituzten bizi baldintzez! Eta zer esanik ez etxean geratu eta familia aurrera ateratzeko lan latza egin behar izan zuten emakumeen heroismoaz!

Urteak pasa dira eta egun itxaropen garaia bizi dugu, baina oraindik egunero erabiltzen ditugun hainbeste errepide esklabutza kondonaturik lan egin zuten gizon-emakume haiek egin zituztela gogoratzea nahi nuke. Askatasuna ukatu zieten; lapurtu egin zieten. Baina haiek aitzurrez askatasunaren bideak eraiki zituzten. Haiei esker gara gu orain askatasunaren ibiltariak.

Martin Garitano Larrañaga
Gipuzkoako diputatu nagusia

► AURKIBIDEA

1. SARRERA: BORTXAZKO LANAK GIPUZKOAKO ERREPIDEETAN.....	9
2. TESTUINGURU HISTORIKOA.....	11
2.1. Gerrate eta faxismoen gorakada Europan	11
2.2. 1936ko gerra eta lehen frankismoa Euskal Herrian.....	12
2.3. Errepresioaren nondik norakoak eta izandako bilakaera.....	19
2.3.1. Gerra bitarteko errepresioa.....	22
2.3.1.1. Errepresio penala.....	23
2.3.1.2. Errepresio estrajudiziala	24
2.3.2. Gerra ondoko errepresioa	24
2.3.2.1. Errepresio judiziala	24
2.3.2.2. Errepresio estrajudiziala.....	25
2.3.3. Bortxazko lanak erregimen frankistan	26
2.4. Batailoi motak.....	29
2.4.1. Langile batailoiak (1937-1940).....	30
2.4.2. Zigortuen destakamenduak (1938tik).....	30
2.4.3. Langile Soldaduen Diziiplina Batailoiak (1940-1942).....	30
2.4.4. Langile Soldaduen Diziiplina Batailoiak (zigortuak) (1941-1948)	32
2.5. Bortxazko lanen inguruko ikuspegi orokorra	33
2.6. Bortxazko lanak Gipuzkoako errepideetan: gotortze-lanak eta errepide militarren irekiera.....	40
2.6.1. Langile batailoien kokapena herrietan.....	44
2.7. Lekukotasunak.....	52
3. BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIO ITURRIAK.....	57
4. ERANSKINAK	59

► SARRERA: bortxazko lanak Gipuzkoako errepideetan

Con el trabajo, el Pan y la Justicia de la Patria, poco a poco, los prisioneros van reconstruyendo lo que ellos mismos deshicieron con la dinamita.

Erregimen frankistaren leloa dugu esaldia, langile batailoietako zigortuen argazki batean idatzitakoa. Frankisten sistema propagandistikoak aditzera eman nahi izan zuena baino askoz gehiago adierazten du, mendeku egarria besteak beste. Ertz anitz ditu errepresio frankistaren egiak, eta horietako bati heldu dio lan honek, bortxazko lanen zigorre, alegia.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskaerari jarraiki, herrialde honetako garraiobideen eraikuntzan frankismo garaian erabilitako bortxazko lanen inguruko ikerketaren ondorioak jasotzen ditu ondoko txostenak.

Bortxazko lanen munduan barneratzea izan da ikerlan hau abiatu ahal izateko lehen zeregina. Estatu mailako ikerketak erabili izan ditugu gaiaren inguruko ikuspegi orokorra bereganatuz, fenomeno bere osotasunean ulertu ahal izateko. Modu berean, Euskal Herri mailakoak erabilgarri izan ditugu bortxazko lanen fenomeno gure inguruan kokatu ahal izateko. Abiapuntu izan ditugu, beraz, orain arte esparru honi begirako azterketen emaitzak jaso dituzten *Esclavos del Franquismo en el Pirineo* zein Oiarzungo Elosegí Fondoa elkarteak argitaratutakoak.

Metodologiari dagokionez, iturri dokumentalen azterketari erreparatu diogu, bereziki errepideen inguruko herrietako artxiboetan gordetako dokumentuei. Oiarzun, Errenteria, Lezo eta Pasaiaiko udal Artxiboak arakatu ditugu eta, bertan, gaiaren inguruko argitalpenetan aipatzen ziren iturriak eta aipatutako liburuen egileen azalpenei jarraituz, Udal frankista eta militarren arteko korrespondentziari lotutako agirien artean, Langile Batailoietan zigortutakoekin osatutako izen-abizenen zerrendak topatu, *lista* edo *justificante de revista* direlakoak. Bestetik, 1940 urteko eroldari erreparatu diogu, baita ondorengo urteetako eranskinnei zein bestelako udal agiriei ere, zeharkako erreferentziak topatzeko.

Bestetik, bortxazko lanen protagonista zuzenen bilaketari ekin diogu, memoria dokumentalari memoria biziaren dimentsioa eranstea beharrezkoa baita gertaturikoaren ondorio eta xehetasunak zein eragindako sufrimenduaren arrastoa topatzeko. Jada gure artean ez diren hainbat zigortu eta herritarren lekutasunak bildu ditugu (aurretik beste eragileek jasotakoak) eta langile batailoietako protagonista batzuekin elkarriketatu gara, agiriekin marraztutakoa bizipenekin janztearren.



Aritxulegi (Oiarzun). Langile Batailoietako kideak, atzekaldean kanpamendua. (Elosegí Fondoa).

Hala, bildutakoaren ondorioak jasotzen ditu ondoko txostenak. Aipatu bezala, modu zabalean hartu dugu gaia, bortxazko lanen munduari lotutako alderdi ezberdinak ulertu ahal izateko moduko azalpenekin abiatu gara. 1936ko gerraren testuinguruari erreferentzia azkarra egin diogu, ondoren gerraren bilakaeran erreparatzeko. Gerraren, bortxakeriaren eta errepresioaren bilakaera bera aintzat hartu dugu, bortxazko lanen sistemaren sorrera eta garapena kokatzeko, frankistek sakonean garatu baitzuten. Honen helburuak, funtzionamendua, logika orokorra eta bilakaera azaltzeko beharrezko diren osagaiak jasotzen ditu, beraz, lan honek, bortxazko lanen marko juridiko eta ideologikoa definitu ahal izateko.

Bortxazko lan sistemaren ikuspegi orokorra izanda, bortxazko lanen errealitatea ikerketa honek hizpide duen herrialdean kokatu dugu, aurretik Hego Euskal Herri mailako panoramika orokor bat eskainiz eta bereziki ekonomia mailan arlo ezberdinetako jardueratan izandako eraginari erreparatuz. Atal honetan azaldutakoek, ondorengo atalari nolabaiteko sarrera eginez, Gipuzkoako errepideetan langile batailoiek burututako lanak bere testuinguru zehatzean kokatzen dituzte, mugaren gotortze lanei lotutako egitasmo zabalaren baitan hain zuzen ere, hauei estuki loturik

azaltzen baitzaizkigu errepide militarren irekitze eta eraikitze lanak.

Ikerlanaren muina daukagunak errepide militar horiek identifikatzen ditu, Pirinioek osatutako mendi-lerroan zehar, mugaren parean luzatzen zen eremuan hain zuzen, bertan kokatzen baitira hasiera batean helburu militar taktiko estrategikoei erantzuten zioten mendiko errepide hauek. Bertan kokatu ditugu inguruko herrietan finkaturiko batailoiek eta, bertatik abiatuta, batailoi bakoitza lan eremu zehatz batean kokatzen saiatu gara, horien lanean ahalik eta gehien sakondu ahal izateko.

Azkenik, atal bat eskaini diegu ikergai izan dugun fenomeno errepresiboaren lekuko zuzenak izan zirenei, beren testigantzek dokumentazio ofizialak eskaintzen dituen datu eta informazioaz haragoko alderdien berri ematen dutelakoan: langile batailoietako egunerokotasuna, bizi eta lan baldintzak, eta abar. Eranskin gisa doazen elkarriketetan errepresaliatuen soslai, beren bizipenen gune izandako batailoien izaera eta modalitate errepresiboari garrantzia eman nahi izan zaio.

Eranskin gisa doaz, modu berean, hainbat dokumentu osagarri eta adierazgarri, topatu dugun arrastoaren erakusle.



► TESTUINGURU HISTORIKOA

2.1. GERRATE ETA FAXISMOEN GORAKADA EUROPAN

Europa mailan, gerra bitarteko garaian polarizazio prozesua ematen ari zen arlo guztietan; soziala, politiko eta ekonomikoa, baita ideologiaren arlokoa ere. Prozesu hauen guztien bat-egitea, gainezka egitear ziren hamarkadetako krisiekin batera, metastasi bihurtzear zegoen. Potentzia europarren arteko lehia inperialistek baldintzatzen zuten nazioarteko politika erasokorra, norbere inperioa ezarri, egonkortu eta sendotzeko egitasmoan oinarritua. Metropoliarentzat beharrezkoak ziren mota ezberdinetako beharrak asetzeko estrategia. Eta testuinguru horrek batzuen eta besteen jarrera belizista areagotu baino ez zuen egin.

Nazioarte mailan zegoen lehia politikoak estatuen mailan ere bazuen ispilua. Alde batetik, antzinako erregimenari lotutako indar faktikoek -monarkiaren aldekoak, eliza edota eskuindar tradizionalistak esate baterako-, burgesiaren aurrean galdutako boterea eta hegemonia berreskuratzeko borrokan ari ziren, eta, helburu horretan, martxan zen eraldaketa prozesu zabal eta anitza geldiarazi beharrean ziren. Urte horietan boterea bereganatzen zuen elite politiko-ekonomiko berriaren aurka egin beharra zeukaten, baina modu indartsuagoan, ezkerreko indar iraultzaileen aurka; modu berean, ezkertiar iraultzaileak eskuineko indar kontrairaultzaileen aurka. Bitartean, bi hauen erdian zirenak, botereari eutsi nahian, alde bateko zein besteko erasoei aurre egin behar zieten. Giro politikoaren erradikalizazioa bizkortu egin zen, eta, horri loturik, gizarte mailako konfrontazio zuzena areagotu zen etengabe. Nazioarteko militarizazio prozesuak bere isla izan zuen gizarte mailako gatazkei zegokienean, estatuen antzera, erakunde politiko eta sindikalek armatzeari ekin zioten, gizarte mailako militarizazio prozesua abiaraziz eta bizkortuz.

Kapitalismoaren krisi gordinek eragindako egoera ekonomiko larria polarizazioa areagotzera zetorren eta bazterkeria egoeratik gertu zegoen gehiengo sozialak, bere egoera etengabearen okerrera egiten ikustean, boteretsuen aurkako borrokari ekin zion, gizarte mailako gatazka bortitzak elikatuz. Ideologia iraultzaile eta kontrairaultzaileen arteko talkak definituriko garaia daukagu, esan bezala, eta aipatutako faktoreen bateratzeak azalerazten zuen krisi orokorrak azken bazterreraino hedatu zuen bere eragina.

Testuinguru horretan sortu eta garatu zen faxismoa, masa-alderdi modernoaren eredu nagusitzeari loturik. 1922an boterea eskuratu zuten lehenengoz faxistek Italian eta bertatik Europan zehar zabaldutako ondoren. Nazionalsozialismoa zela medio, eskuina eta ezkerrearen arteko bereizketa tradizionala gainditzea bilatzen zuen pentsamendu politiko eta oinarri zabala izango zuen mugimendu soziala abiarazi zen. Garaiko elite politiko eta ekonomikoen ustelkeria demokraziarekin identifikatzen zituen, bere burua ezkerreko mugimendu iraultzaileen aurreko alternatiba gisa aurkeztuz; baita elite politiko ekonomikoen gehiegikerien aurrean ere. Alderdi indartsu eta totalitarioa oinarri izango zuen estatu militarizatua zuen helburu, inperio nazionalaren abiapuntua izango zuen estatu autoritarioa, alegia. Klase borrokaren ideiak baztertu eta langileria zein enpresariak bateratu nahi izan zituen, sindikalismo bertikala eta estatu korporatiboaren ereduaren bitartez; beti ere, gizarte mailako ordena berrezartzeko helburuarekin. Gutxienean elite baten liberalismo ekonomikoa zein sektore herrikoi ezkertiarren ideia marxistak etsaitzat hartu eta gogor borrokatu zituen, eredu nazional bateratu baten alde. Faxismoa, esan bezala, Europan zehar zabaltzeko ordenu berri bat ezarri nahian, politika mailako eragin nabarmena izanik, baita soziala ere.

Espainiako Estatuan, aipatutako guztiak bere isla izan zuen. Falange zen ideia faxisten aitzindari eta, faxista italiarrekin harremanetan, faxismoaren bideak jarraitu zituen. Talde paramilitarren eredu bereganatu zuten eskuineko sektore tradizionalistek, karlismoa oinarri zutela. Aipatutako talde militarizatu hauek, 1936ko udako altxamendu militarren oinarri sozial sendoa osatu zuten. Oinarri soziala militarizatzen zen heinean, faxismoak bere eragina zabaltzeko arlo politikoan ere. Errepublikaren aurkako jazarpena helburu zuten militarrekin indarrak batu zituzten faxistek, baita jatorri eta izaera ezberdineko indar atzerakoiekin ere, hala nola sektore monarkikoak eta eliza. Modu horretan, berezko ezaugarriekin garatuko zen mugimendu nazional bateratuari hasiera eman zitzaion. Aipatutako ideiekin batera, ultra-katolizismo espainiarraren ideiak barneratzen zituen oinarri ideologikoen artean. Hala, inperio nazionalaren egitasmoari, erdi aroko gurutzaden zentzu mesianikoa eranstean zitzaion. Gauzak horrela, 1936ko gerraren bilakaerarekin batera, Francisco Franco gailendu zen faxismoaren adierazgarri zen lider karismatikoaren irudia bereganatuz.

2.2. 1936ko GERRA ETA LEHEN FRANKISMOA EUSKAL HERRIAN

1931. urtean, Eibarren lehenengo aldiz aldarrikatutako II Errepublikak, Espainiako Estatuaren lehen aro demokratikoari hasiera eman zion. Errepublikak urte gutxiko ibilbidea egin bazuen ere, asko izan ziren 1936ko uda bitartean abiatutako eta gauzatutako eraldaketak. 1931n abiatutako eraldaketa prozesu horiek ordura arteko boteretsuen eta euren interesen mehatxu bihurtu ziren, eta horren aurrean, eskuindar sektoreek indarrak batzea erabaki zuten galdutako hegemonia berreskuratu asmoz. Hala, 1933. urteko hauteskundeetan irabazle suertatu zen eskuin frontea, eta horrek, gogor ekin zion aurreko ordena berrezartzeko saiakerari. Gizarte eta politika mailako gatazka ugari eragin zituen saiakera horrek, politika arloko bortizkeria areagotuz eta gizarte mailako zein polarizazio ekonomikoa azaleratuz. Era berean, ezkerreko errepublika garaiko aurrerapausoak mehatxu pean jarri zituzten eta, zenbait kasutan, baita deuseztatu ere. 1936. urteko hauteskundeetarako ezkerreko taldeek bat egin zuten, ordea, eta ezkertiarren frontea, alegia, Fronte Popularra, irabazle suertatu zen, 1931. urtean martxan jarritako eraldaketa prozesuak berrabiatuz.

Oraingoan, eskuineko indarrek ez zuten hauteskundeen emaitzen ondoko egoera berria onartzeko inolako intentziorik. Ugariak eta askotarikoak izan ziren Errepublikaren aurkako konspirazioak, alderdi eta militar monarkikoen eta karlistek prestatzen zituztenak. Hauek guztiak bat egiten joan ziren, hilabete gutxiren buruan, 1936ko uztailaren hain zuzen ere, Sanjurjo, Mola, Franco eta matxinatutako gainontzeko militarren oldartzearekin gorpuztu ziren arte. Bat egite arrakastatsu horren oinarrian hainbat elementu nabarmendu daitezke: alde batetik, militar askoren artean soma zitekeen errerepublikaren aurkako jarrera, baita modu esanguratsu batean elizarena ere, eta azkenik, gizarte mailari zegokionean, sektore tradizionalisten indarrak suposatu zuen bultzada ikaragarria.

Esan bezala, militarren jazarpenak sektore monarkikoaren, elizaren eta ezinbestekoa zitzaion oinarri sozialaren zein sostengua ematen zioten zenbait sektore herritarren laguntza ere izan zuen. Horien artean aipagarriena, karlismoaren oinarri sozialarena izan zen, jakina baita karlismoaren garrantzia Errepublikaren aurkako mugimenduak sustatzeko orduan. Iñaki Egañaren hitzetan, euskal lurretan frankismoaren oinarri ideologiko nagusia karlismoa izan zen. Errepublikaren lehen egunetatik altxamendu baterako prestatzen ari zirela ezaguna da. Araba eta Nafarroaren kasuan izandako jarrera bereziki garrantzitsua eta esanguratsua da; bertan altxaldiaren arrakasta bermatzeaz gain, bertatik ekin zioten erreketek boluntarioek gainontzeko herrialdeen aurkako erasoari.

Militar faxisten zein monarkikoen, baita eliza katolikoaren eta, oro har, tradizionalisten arteko elkarlanak, gatazka armatuaren azkeneko muturrerainoko hedapena ahalbidetu zuen. Garbiketa politiko eta ideologikoari urteetako inbidiak erantsi zitzaizkion, harik eta bizilagunen arteko salaketa hutsek herritar askoren heriotza eragitera iritsi arte. Kuartel militarretan jaiotako ustezko estatu kolpea gerra desorekatu bezain odoltsua bilakatu zen.

Azkar ulertu zuten altxatutakoek uste baino zailagoa izango zela erraz eskuratu nahi izan zuten boterea bereganatzea. Bi bandoek jakin bazekiten zaila izango zela etsaiari aurre egin eta hura gainditzea, gerrak luzera joko zuela, alegia, Hego Euskal Herria bitan banatu zen bat-batean: Araba eta Nafarroa faxisten esku geratu ziren; Gipuzkoak eta Bizkaia berriz, errepublikari leial, indar faxisten erasoari aurre egin zioten. Gizarte mailako haustura erabatekoa izan zen; oso esanguratsua izan zen, esaterako, euskal elizaren baitan emandako zatiketa.

Espainiako gerrari erreparatu aurretik, bada gogora ekarri beharreko aspektu bat, 1936ko gerraren bilakaera modu erabakigarrian baldintzatuko zuena, hain zuzen ere. Militar kolpisten Altxatze Militarrekin batera Espainiar Estatuan eztanda egin zuen gatazkaren inguruko interesa Europan zabaldu zen, batean zein bestean bizi zen tentsioa berbera baitzen. Errepublikarekiko gertutasuna sektore herritarren eta jende xehearen artean nagusi izan zen. Askok horiekin batera borrokatzeko erabakia hartu ondoren, gatazka nazioartekoa bihurtu zen, eta horrek, aldi berean, potentzien arteko tirabira areagotu zuen Europa mailan. Kontrakoa izan zen, ordea, agintari eta elite politikoen arteko jarrera. Garaiko potentzia nagusiak Hitlerren beldur ziren ordurako, baina hartutako jarreraren baitan, Hitlerri baino, ezkerreko iraultza bati eta horrek sor zezakeen egoerari beldur handiagoa ziotela pentsa daiteke. Gauzak horrela, nazioarteko potentzien jarrera ofiziala neutraltasunaren aldekoa zen, hau da, parte ez hartzearen aldekoa. Zentzu horretan, potentziek jarraitu beharreko irizpideak definituko zituelakoan, *Parte ez Hartzearen Batzordearen* sorrera bideratu zuten. Potentzia demokratikoek Errepublikarekiko keinuak izan zituzten ustez: ez zuten armak saltzearen debekua urratu, hartutako erabakia frankisten alde egitea bezala zela ondo jakin arren. Aldi berean, beste alde batera begiratzea erabaki zuten, nazioarteko neutraltasunari muzin eginez, erregimen faxisten parte hartzea gauzatzen zen bitartean. Etengabea eta era askotan jaso zuten militar kolpistek potentzia faxisten laguntza, italiar eta alemaniar legioen parte hartze zuzena, adibidez, nahiz eta gerraren atalik bortitzenen eta ankerrenetakoen protagonista izan. Modu berean, faxistek

frankistei helarazitako armamentuak ere berebiziko garrantzia izan zuen, frankisten nagusitasun militarra Errepublikaren aldekoentzat gaindiezina bilakatu zenean.

1936ko gerraren bilakaera Euskal Herrian.¹

Nafarroaren kasuan, Altxatze Militarren aldeko jarrera erabatekoa izan zen militarren artean. Nafarroan bertan zehaztu zituen Molak altxamendurako prestatu beharreko gaiak, eta modu berean, bertatik zabaldu zuen gerrarako deia, *Diario de Navarra* egunkari eskuindarraren inprimategietatik, hain zuzen ere. Jarraian hasi ziren ezkertiarren, errepublikanoen, sozialisten, anarkisten eta nazionalisten atxilotetak eta bat-bateko erailketak. Ikara zabalduz, aurkako jarrerak errotik deuseztatzea zen helburua. Eskumaren hegemonia politikoa ia erabatekoa eta errepresioa ere izugarria izan zen, are, gerra frontierik ez zela sortuko eta oldartutako militarrek zein boluntarioek inongo erresistentziarik ez zutela aurkituko kontutan hartuta. *Altaffaylla* bezalako kolektiboen ikerketek 3000tik gora jotzen dute eraildakoen kopurua. Ildo berean, Araban gertatutakoa antzekoa izan zen. Konspirazioan parte hartu zutenen artean zegoen bertako agintari goren Camilo Alonso Vegak eta Jose Luis Oriolen gidaritzapean lurralde horretan presentzia handia zuten tradizionalistek, Altxatze Militarren arrakasta ahalbidetu zuten oro har.

Gipuzkoa eta Bizkaiari dagokionean, egoera bestelakoa izan zen. Bizkaian, altxatuaren aldeko militarrek izan ziren, baina militarren gehiengoa, errepublikari leial izan zitzaion, Vidal Munarriz teniente koronelari jarraituz. Bestetik, Altxaldi Militarren porrota baimendu zuten faktore garrantzitsuenen artean, alderdi ezkertiarren indar politikoa eta gizarte mailako eragina nabarmendu daitezke. Armak eskuratuta, horien indarraren bidez botere politikoa eskuratzea helburu zuten militarrei aurre egitera kalera atera zen jendetza. Gipuzkoan, berriz, bazen Altxaldi Militararekin bat egiteko prest zegoen militar dezente, horien artean León Carrasco eta José Vallespín, uztailaren 21 arte tropak mugiarazteko erabakirik hartu ez bazuten ere. Loiolako kuartelean gotortutako militarrek matxinatzeko erabakia hartu zuten arren, ez ziren bertatik ateratzeko gai izan, eta militarrek amore eman zuten arte, hainbat ordezkari politikoren esku geratu ziren negoziazioak.

Gerraren iraupenari dagokionean, Euskal Herrian bi atal bereiz daitezke. Lehena, Euskal Autonomia Estatutua indarrean sartu aurreko garaia, 1936ko udan, non alderdi eta sindikatu ezberdinek osatutako zutabeen bitartez aurre egiten zitzairen matxinatutakoen saiakerai. Alegia, Gipuzkoan barrena eta Bizkaiko mugetatik errepublikaren aldeko eraso egitea helburu zuten oldarraldiei, nagusiki erreketeenak.

EAJk eta Fronte Popularreko alderdiek, Gipuzkoa eta Bizkaiko zein tokian tokiko defentsa batzordeak sortu zituzten, gerra egoera kudeatu eta Nafarroa edota Arabatik zetozen erreketei aurre egiteko.

Autonomia Estatututik abiatuta, Eusko Jaurlaritzaren eraketarekin batera gerraren bigarren atalari hasiera eman zitzaion. Ordurako Irun galduta zegoen, baina oldartutako militar eta erreketek boluntarioen konpainiek aurrera egitearekin batera eta Estatu mailan nazionalen tropak Madrilera bidea hartuta, EAJ eta Fronte Popularren ordezkari politikoei Estatutua onartzeko elkarrizketei bultzada nabarmena eman zioten, euskal lurraldeetan gerrari aurre egiteko orduan onuragarria izango zelakoan. Madrilen kontrako behin betiko erasoak aurreikusitako zenean, ordura arte Espainiako gobernuburua izan zen Luis Giralek kargua utzi zuen. Largo Caballero-
ren gidaritzapean eratu zen Fronte Popularra osatzen zuten indar politikoei eta sindikalei eratu zuten gobernu berria. Gorteetako lehen bilkuran, 1936ko urriaren lehen egunean, hain zuzen ere, Euskal Estatutua bozkatu eta aho batez onartu zen. Lehenengo artikuluen arabera, Arabak, Gipuzkoak eta Bizkaiak Espainiako Estatuaren barruko erregio autonomoa osatzen zuten. Gerrari zegokionean, neurririk esanguratsuena Eusko Gudarostearen eraketa izan zen, beste hainbat arlotan martxan jarritako prozesuak ere esanguratsuak izanik. Lurraldetasuna ia erabat urratuta, hilabete gutxiro ibilbidea baino ez zuen izan, ordeak. Araba zein Nafarroa faxisten esku, ia bere osotasunean Gipuzkoa ere faxisten esku, eta azkenik, Bizkaia gertutik mehatxaturik eta setiatutik. Gauzak horrela, gainontzeko eremu errepublikanoarekiko isolamenduak baldintzatu zuen lehen gobernu autonomo horren jokamoldea, testu legalak aitortzen zituen eskumenak malgutasunez gainditu zituelarik.

Eskumen eta ardura zabalak eskuratu zituen eratu berria zen Eusko Jaurlaritzak. EAJ, Fronte Popularreko alderdietako kideak ez ezik, PSOEkoak, IRkoak, URkoak eta PCEkoak bildu zituen. Ordezkariek gehienak aurreko defentsa batzordeetan ibilitakoak ziren. EAJk, lehendakartzaz gain, Justizia eta Kultura, Ogasuna, eta azkenik,

1. Chueca, Josu: *Gerra Euskadin. Bilakaera historikoa*. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

Gobernazioaren sailak bere ardurapean izan zituen. Defentsa -eta beraz, armadaren sorrerari buruzkoak- lehen-dakariaren ardura pean geratu ziren.

Gerraren lehenengo atalak Gipuzkoa izan zuen guda zelai nagusiki, nahiz eta Militarren Altxaldia izan eta egun gutxira, uztailaren 22an hain zuzen ere, ankerkeriaz, Otxandio bonbardatu zuten. Hasierako une horietan argi geratu ziren militar faxisten helburuak eta jokamoldeak zein bandoen arteko desoreka aspektu militarrei zegokionean. Aipatu bezala, errepublikarekiko leialak zirenak, bat bateko taldeak edo miliziak sortu behar izan zituzten boluntarioki azaldutako herritarrekin, eskura zituzten armak eta abarrekoak baliatuz, gotorleku zahar-rrak aprobetxatuz edota defentsa guneak zein gainontzeko alderdi ugari inprobisatuz.

Ondorengo egunetan, Urto, Lizarrusti eta Etxegarartetik, iritsi ziren militar eta boluntario karlistek osatutako zutabeen erasoak. Uztailaren 24an, Zegama eta Zerain behin erorita, Goierrin zehar abiatuko ziren tropa nazionalak inguruko herriak harturik ere. Lehen konfrontazio latza Beasaingoa izan zen uztailaren 28an, hain zuzen. Etortzeaz zegoenaren adibide gisa, Beasain hartu bezain laster, bertan harrapatu zituztenen artean fusilamenduak ugariak izan ziren.

Gudaldiei zegokionez, garrantzitsuenak -lehenengo aldiz mila soldatutik gora aurrez aurre jarri zirelako- eta erabakigarrienak, Bidasoa aldekoak izan ziren, gerra hasi eta hilabetera. Iruñetik bidalitako soldaduekin batera, 550 legionario, 450 erreketek, beste hainbeste falangista eta 400 guardia zibil inguru iritsi ziren Bidasoa aldeko frontierara. Milizianoek, kopuruz antzeko, baina desabantaila nabarmenekin, erasoaldiari aurre egin zieten. Infanteriarekin batera artilleria ugari erabiltzeaz gain, lehen aldiz hegazkineria baliatu zuen tropa nazionalak Irun inguruko defentsak suntsitu ahal izateko.

Abuztuaren 25etik aurrera, Italiatik ekarritako Caproni 101 eta Savoia Marchetti tankerako hegazkinak erabiliz, behin eta berriro bonbardatu zituzten Irun eta inguruak: gotorlekuak -San Martzial esate baterako-, eta helburu militar edota estrategikotzat jotzen zituzten guneak, hala nola tren geltokia eta inguruak. Handik hiru egunera, abuztuaren 28an, altxatutakoen esku geratu zen Oiartzun, inguruko mendietan barrena hedatutako frontea apurtu ostean, milizien atzerakada bultzatuz eta frontearen lekualdaketa eraginez.

Irailaren 5ean sartu ziren militar eta boluntario faxisten zutabeak Irunen, erdi hutsik eta txikitutako hiriarekin topo eginez. Fronte Popularreko ezkerreko adarrei, komunistei eta, oro har, anarkistei egotzi zitzairen suteak, lur errearen taktikari erantzuten zion. Irunen erorketa galera handia izan zen. Iparraldeko mugaren gaineko kontrolaren galerarekin batera, kanpo mailako harremanei zegokionean, nolabaiteko etena etorri zelako eta, aldi berean, defentsa lerrorik garrantzitsuena gaingiduta, faxistei Donostiarako bidea libre geratzen zitzaielako.

Gudari eta milizianoen ihesarekin batera, herritarren ihesa edo exodoa aipatu behar da, besteak beste, mugarekiko gertutasuna zela eta, fenomeno nabarmen eta esanguratsua izan zelako. Modu zuzenean iparraldeko mugaz beste aldera egin zuten askok, beste hainbat Bizkaia aldera mugitu zen, errepublikari leial mantendu zirenekin batera, zonalde errepublikanora. Handik, Frantziarako bidaia egin zuen euskaldun askok Molaren tropak Bizkaian barneratu ahala.

Ondorengo egunetan, Andoain, Hernani, Erreterria eta Bidasoa aldetik abiatuta matxinatuek erasoak jo zuten, eta bertatik ekin zieten Donostia hartzeko mugimenduei. Errepublikaren aldekoek, Jaizkibelekin batera, Pasaia eta Erreterria galdu zituzten. Erasoaldiari aurre egiteko ezintasunaren baitan, Defentsa Batzordeko ordezkariak erresistentziarik gabe hiria uzteko apustua egin zuten. Abuztuaren 13an frankistak Donostiara iritsi ziren.

Aurrera jarraitzeko faxisten saioak ondorengo egunetara luzatu ziren, bereziki kostaldetik, baita Andatza-rra eta Udana barrenatik ere, Eibar eta Elgeta inguruetan, irailaren bukaera aldera, frontea egonkortu zen arte. Aipatutako eskualdeak izan ezik, Gipuzkoa bere osotasunean nazionalen esku geratu zen eta fronte lerroan modu horretan mantendu zen 1937ko negua igaro arte.

Fronte lerroaren egonkortasun egoerak baldintzatu egin zuen Eusko Jaurlaritzaren lehen hilabeteetako ibilbidea gerraren bigarren atalean. Alderdi guztiek adostutako programatik abiatuta, gai militarrekin batera gainontzeko betebeharrak politikoei ekin zion eratu berria zen gobernuak, aipatu bezala, isolamendu egoerak ahalbidetuta, autonomia maila altuarekin. Programa arlo guztietako ekimenekin eta betebeharrekin osatuta zegoen. Armadari eta defentsari buruzkoak jasotzen zituen, baita ordena publikoa, gizarte-politika, txanponak eta diru-txartelak jaulkitzeko ahalmena edota irakaskuntza, lan publiko zein langileen eta kapitalaren arteko harremanei

buruzkoak ere. Kanpo harremanen kudeaketari zegokion atala ere hartu zuen. Eusko Gudarostearen sorrerarekin batera, Ertzaintzarena nabarmendu daiteke, baita gerraren beharrei egokitzuz aurrera eramandako arlo industrialaren baitako birmoldaketa ere.

Neguaeren amaierarekin batera, ordea, gauzak aldatu ziren. 1937ko martxoaren 31n Bizkaiaren aurkako erasoaldiari hasiera eman zioten frankistek, Madril eskuratu ezinean, estrategia aldatu zutenean. Gainerako fronteetara bideratu zituzten eraso garrantzitsuenak, Alemaniako Condor Legioak eta Corpo di Truppe Volontarie italiarren laguntzarekin eraman zituzten aurrera.

Durangoren kontrako aire eta lurreko eraso konbinatuarekin hasiera eman zitzaion ofentsiba berriari, hiru egunetan zehar herriak eta helburu estrategikoak bonbardatuz. Helburu militarrek ez zirenak kolpatu izanagatik nabarmendu zen oldarraldia, biktimen kopuru altuak aditzera ematen duen legez. Durangon bertan hildako 127 herritarrei, erasoaren ondorioz ospitalean hildakoak gehitu behar zaizkie, orotara, 256 herritar hilik suertatuz.

Apirilaren lehen hamabostaldian Otxandio hartuta, ondoren Sabigain eraso zuten tropa nazionalak eta beren aliatuek, azkenean frankisten esku gelditu zen arte. Altube eta Barazar aldetik ere erasoak bideratu zituzten. Azkenik, Intxortan ere errepikatu ziren frankisten eraso eta eusko gudarostearen kontraerasoak. Apirilaren 26an, Gernikako bonbardaketaren aurretik gertatutakoa errepikatu zuten: helburu militar esanguratsurik ezean, helburu estrategikoen artean erresistentziarik gabeko erasoak eta populazio zibilaren aurkako jazarpena eragin zituzten.

Ondorengo egunetan, Eibarren sartu ziren frankistak, baita Durangon ere. Bermeo hartuta, Solluben, Bizkargin eta Lemoa aldean azken erasoak burutu zituzten Bilbo babesten zuen Burdin Gerrikoarekin topo egin arte. Ekainaren 11n iritsi zen aire erasoaldia, gerrikoa bera eta gerrikoaren beste aldeko herriak ere bonbardatuak izan ziren. Gerrikoan eragindako suntsipenak Bilboranzko bidea zabalik uzten zien frankistei, hauen erasoaldia azkartuz. Begi bistakoa zenez, gerrikoa ez zen, ez, nahikoa aire eraso baten aurreko babesa bermatzeko.

Bilboren aurkako behin betiko eraso aurreikusten hasi ziren euskal agintariek, eta egoera horren aurrean, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza, gailur politiko-militarra egin zuten. Hasierako erabakia hiriaren defentsa aurrera eramatea bazen ere, denbora igaro ahala, egoera larriagoa egin zen, hiriaren defentsa jasanezina bilakatu zela ulertu zuten arte. Hala, ordezkari politiko militarrek defentsaren ideia alde batera utzi eta kontrako aukera aztertzen hasi ziren.

Ekainaren 17an Artxanda mendia frankistek eskuratu eta Pagasarri mendialdetik bideratu zuten Bilboren aurkako eraso. Bizkaiko hiriburua inguratzen zuten mendi gainetako defentsa guneak hartuta, Bilbon sartzea saihestezina izango zela begi bistakoa zen. Halako egoeran, agintari eta ordezkari politikoen zein kargu militarren ihesa lotzeaz gain, herritarren ebakuazioari lehentasuna eman zion Eusko Jaurlaritzak. Ordu batzuk beranduago, Begoñatik eta Deustutik, Atxuri eta San Frantziskotik frankistak Bilbon sartu ziren. Bilboko kaleetan, gudarien eta milizianoen artean, agintarien artean izandako eztabaida azaleratu zen. Batzuk, errendizioaren aldekoak, Bilbon bertan borrokatzeari utzi zioten; beste batzuk, gehiengoak, Kantabria alderako bidea hartu zuen frankistei aurre eginez. Ia hilabeteko abagunearen ostean, frankistek kantauriko frontera bideratu zituzten indarrak. Eta hauei aurre egiteko prest, Gijon eta Bizkaiko mugetan barrena ezarri ziren borrokan jarraitzeko erabakia hartu zuten gudari eta milizianoek.

Erabat ahulduta, Eusko Jaurlaritzak, bere ihesean, bat egin zuen Santanderreko Defentsa Batzordearekin, irizpide militar orokorretara egokituz bere jokamoldea eta bertan mantenduz hiri horren aurkako behin betiko erasoak irauten zuen bitartean. Izan ere, gudarien eta milizianoen artean motibazio eza zen nagusi, baita agintarien artean ere. Aginte zentralarekin abiatutako elkarriketetan hori guztia islatu zen, non Eusko Gudarosteko batailoien ebakuazioaz mintzatu ziren. Testuinguru horretan kokatzen da EAJko Euskadi Buru Batzarreko kideek sustatutako bide negoziatzailea. Aztertzen hasia zen bide hori, 1937ko maiatzaz geroztik hain zuzen ere, eta bereziki abuztutik aurrera. Diplomatiako italiarrekin izandako bilkuretan bizkortu egin ziren, bertan bake-errendizioaren bideak aztertuz. Borrokan segitzeko desegokia zen Eusko Gudarostearen egoera baldarrari egotzi zitzaion erabakia. Iparraldeko armadarekin bat eginda, Eusko Gudarostea desegin zen eta haren batailoiak, armadaren berregituratze prozesu orokorraren baitan, armada errepublikanoa osatzen zuten gainontzekoekin elkartu ziren.

Bilboren galeraren inguruko eztabaidak tartean zirela eta Eusko Gudarostea osatzen zuten zenbait batailoiek amore emanda, borrokan jarraitzea ala errendizio negoziatuaren aukera kontrajarrien artean erabakitzeko beharra azaleratu zela adierazi dute historialariek. Hala, jeltzaleek, Manzzini italiar jeneralarekin izandako elka-

rrizketen bitartez, hitzarmena bideratu eta horren aurrean baldintzak zehaztu zituzten. Horien arabera, Eusko Gudarostekoak izandako gudariek, erresistentziarik gabe, Santoña eta Laredok osatutako eskualdeaz jabetzen utziko zieten legionario italiarrei. Trukean, Italiako ordezkari militarrek errenditutako soldaduen babesa bermatu zuten, agintariei erbestertzeko bidea ahalbidetuz.

Hitzarmen horretan zehaztutakoa irailaren 24an gauzatu beharra zegoenez, biztanleria zibila Santoñako portuan bildu zen, ebakuazioa noiz izango zain, eta era berean, agintari politiko-militarrak erbestertuak izateko. Eusko Jaurlaritzak italiarrekin adostutako hamalau itsasontzietatik bi baino ez ziren iritsi Santoñara, ordea. Bitartean, agintari errepublikanoentzat begi bistakoa izan zen Eusko Gudarostearen eta Jaurlaritzaren huts egitea.

Nola edo hala jendea itsasoratzen hasi zen momentuan, italiarrek itsasontziak lehorrarazteko kontra-agindua eman zuten. Akordioa hautsita zegoen, antza. El Duesoko espetxean edo Laredon bertan inprobisatu ziren kontzentrazio eremuak, Corpo di Trupi Volontarieko legionarioen zaintzapean. Egun gutxira, ordea, soldadu frankistak italiarrak ordezkatzera etorri ziren. Hilabeteren buruan, lehen heriotza-zigorak iritsi ziren eta exekuzioak Santoñako hondartzan bertan gauzatu ziren.

Eusko Gudarosteko batailoi gehienek bertan amore eman eta historialari gehienek Hego Euskal Herriari dagokionean gerraren amaiera bertan kokatzen badute ere, kontutan hartu behar da gudari edota miliziano askok, baita zenbait agintari politiko-militarrek ere borrokan jarraitzeko hautua egin zutela, 1939 urtera arte luzatuko zen, gerrako, fronte ezberdinetan parte hartuz. Harago, gerrari lotutako egoera errepresiboak luze jo zuen, gehiegikeriak ez ziren gerraren amaierarekin desagertu.

Altxamendu militarri eta gerraren ondorio latzei gainbegirada

Gerraren bilakaera aztertuta, gerrak eragindako edo gerra aitzaki erabilitako bortizkeriari erreferentzia egin ohi diete historialariek. Horri loturik, 40 urte luze iraun zuen diktaduraren itzalak eta mamuak azaleratzen dira. 40 urte luzez, bakarra izan zen Historia, garaileen interesen arabera eraikitakoa hain zuzen, Memoria bakarra bilakatu zen. Lau hamarkada luzeren buruan, diktadorearen heriotzak eta ustezko trantsizio politikoak demokraziaren bideari heltzen omen zioten, baina, hala eta guztiz ere, historia ofizialak, eszenifikatutako trantsizio prozesuaren onura jaso zutenen arabera idatzitakoak, bakarra izaten jarraitu zuen denbora luzez. Azkenik, urteen igarotzearekin batera, historia bakar eta ofizialak ezkutarazitako aldeak argitaratu, nahitara egindako akatsak zuzendu eta hutsuneak betetzeko egitasmoa abian zen jada, eta, hala, ahotsa eman zitzaion ordura arte isilarazia izandako historiaren zatiari eta historia horren protagonista zuzenei, garaituen artean zanpatutako memoria berreskuratzeari bidea eginez.

Testuinguru honetan, errepresio frankistaren nondik norakoak aztertzen zituzten ikerlanek bata besteari jarraituko zioten, ordura arte memoriatik ezabatutako erailketa masibo eta bereizi gabekoak, prozesu sumarisimo direlakoak, zampaketa politiko, ekonomiko zein ideologikoa, generoaren araberrako indarkeria, bazterketa soziala eta era guztietako irain zein umiliazioak mahai gaineratuz. Garaituen bizipenen ahotsa datu eta dokumentuekin jantzi zen, eta narrazio historiko jaio berria behar bezala dokumentatua. Horrekin batera, bat-batean justiziatu edota erailak izan ziren horien guztien gorpuak agertuko ziren gutxinaka baina etengabea, gerra bilakatu zen pronuntziamentu militar anker horren eite ilunenak argitara eta gogora ekarri, eta, erregimen izatez errepresibo baten aurpegi latzena argituz. Azken finean, aipatutako guztia ustezko trantsizioa, erregimenaren biziraupena edota jarraikortasuna eta inpunitatearen inguruan piztutako eztabaida mamitzera zetorren.

Kontakizun ezberdinek aro honetako bortxakeriaren xehetasunak utzi dituzte, abiapuntu hain ezberdinetatik izanik ere. Errepublikanoen aldean emandako indarkeria eta errepresioari dagokionean, hiru garai ezberdinak daitezke. Lehenengoa, *justizia espontaneo*a deitu izan denarekin identifikatua, kontrolik gabeko ekintzek definitu zuten. Hauek, orokorrean, tropa nazionalen aurrerapenak eragindako etsipenari, eta, aldi berean, zibilen kontrako bonbardaketen bitartez eragindako hilketei erantzuteko helburuari jarraitu zioten. Ustez altxamendua- ren aldekoak zirenen artekoen atxiloteta eta erailketa, baita hauen jabetzen kontrako ekintzak ere egin ziren. *Justizia iraultzailerekin* identifikatu zen bigarren garaia; Madrilen zehaztutako irizpideen arabera, auzitegi misto edo zibiko-militarrak zirelakoak ezarri ziren, era irregularrean. Azkenik, *herri justiziarekin* identifikatutakoa, hirugarren garaia, 1936ko urritik aurrera, Euskal Herriko lurak behin betiko galdu bitarteko garaia alegia, herri auzitegien sorreran kokatua: epaileak, zibilak, Frente Popularra eta EAJko ordezkariak aukeratutakoak izaten ziren. Izan ere, hauen artean gehiengoa libre geratuko zen Bizkaiko frontea hautsi eta Bizkaia erorritakoan. Hainbat

momentutan milizianoek bere ihesean haiekin eraman zituzten altxatutako aldeko presoak. Espetxe moduan inprobisatutako itsasontzi eta lehorreko kartzelatan pairatutako egoera gogorra izan zen, gaiaren inguruan argitaratutako lekukotzen arabera, tortura ere aipatzen delarik.²

Hildakoen kopuruari dagokionean, azkenik, datu zehatzak eskaintzea zaila baldin bada ere, zenbait ezberdintasunekin historiatzaileen arabera, honako kopuruak erabiltzen dira. Nafarroa eta Arabaren kasuan 4 eta 20³ heriotza. Gipuzkoari dagokionean, 800 inguru izan ziren atxilotuak, horien artean 280 bat erailak izanik. Bestetik, aipatu behar da Ondarretako presoak hartu eta itsasontziz Bilbora eraman zituztela Donostia galdu aurretik. Bizkaian, berriz, 2.000 presora iritsi zen atxilotutako kopurua, gehienak Eusko Jaurlaritza osatu aurretik hartutakoak. Kartzela eta presoaren aurkako erasoak egin ziren Fronte Popularreko erakundeetako kide edota herritar arrunten esku, eta hainbat preso erailak izan ziren. Abuztuan, 83 lagun, irailaren amaieran beste 120, eta urtarrean 220 inguru. Bestetik, aipatu izan da ustezko hainbat eskuindar inongo epaiketarik gabe erailak izan zirela, datu zehatzik eskaini gabe. Azkenik, Eusko Jaurlaritzak sortutako auzitegien esku, heriotza zigorra ezarri zitzaizen zenbait laguni, haietatik 19 hil egin zituzten; exekuzioak Derioko hilerrian bertan izan ziren, gehienak militarrek, espioitza salaketak zirela eta. Orotara, 440 bat lagun hilik suertatu ziren. Hego Euskal Herriari dagokionean, guztira 770 pertsona.⁴

Eliza eta bere jabetzen aurkako ekintzak ere gertatu ziren, dena den, beste leku askotan emandakoak baino apalagoak. Euskal Herrian guztira 48 elizgizon erail zituzten errepublikazaleek.

Bando Nazionalak eragindako indarkeriaren kasuan, nabarmen eta sakonagoak dira horren ondorioak, pronuntziamentu militarra eta hamaika hilabeteren buruan, Hego Euskal Herria bere osotasunean matxinatutako indarren esku geratu baitzen. Iturburu anitz izan zituen nazionalen aldeko bortizkeriak. Oldartutako militarrekin batera iristen zen hauek hartu berriak zituzten herri eta hirietara, baina, segidan, gobernu berriak osatu bezain laster, autoritate zibilen eta Mugimendu Nazionala osatzen zuten erakunde ezberdinen parte hartze zuzena ere izaten zuen. Modu horretan, militarren errepresiorako oinarritzko elementuak izan ziren apaizak, baita alkateak eta *Comunión Tradicionalistaren* eta *Falange Españolare*n tokiko batzordeek egindako txostenak eta osatutako zerrenda beltzak ere. Hasierako indar okupatzaileen indarkeriari, bero-beroan egindakoa, indarkeria instituzionalizatu erantsi zitzaion, mota ezberdinetako prozesu judizialei hasiera emanez. Jakina denez, prozesu horietatik heriotza zigor ugari eratorri ziren euskal herritar askorentzat. Horrek ez du esan nahi, ordea, bata bestea ordezkatzeko zuenik, baizik eta jatorri eta izaera ezberdineko indarkeria mota edo adierazpen horien elkarbizitza emango zela. Oldartutako zapalkuntzak helburu hirukoitza azaltzen zuen. Alde batetik, altxamenduaren alde jarri nahi zituen ordura arte jarrera garbirik hartu ez zutenak; bestetik, izuaren bitartez geldiarazi nahi zituzten errepublikaren aldekoak, erresistentziaren aldeko jarrerak saihesteko.

Errepublikazaleak akabatzeko bide ezberdinak jarraitu zituzten bando nazionalen. Frontean bertan hiltzen zituzten gatibu hartutakoak odol-gosearen ondorioz. Gipuzkoari dagokionean, esanguratsua izango zen jarrera hau. Kasu askotan, etxean bertan atxilotzen zituztenak ere berehala hiltzen zituzten gorri-separatista eta marxista susmagarritzat hartuta, modu horretan erail zituzten Nafarroan harrapatutako gehienetak, 3000tik gora. Beste kasu askotan ere, atxilotutakoak kartzela edota kontzentrazio esparruetara eramaten bazituzten ere, askatu eta jarraian erailten zituzten. Azkenik, akusatuarentzat inongo bermerik gabeko prozesu judizial sumarisimoetan epaituak izan ondoren, heriotza zigorra ezartzen zitzaion. Azken hauek, Bizkaian, Santanderren eta Asturiasen atxilotutakoekin izan zuten berebiziko garrantzia.

Azpiarratzeko modukoa litzateke gerra frontetik urrun emandako heriotzen kopuru esanguratsua. Aipatutako heriotzak ez ziren prozesu judizialeetatik eratorritakoak, baina, esan bezala, ezin dira kontrolik gabeko ekintzat hartu. Izan ere, altxatutakoek argi eta garbi adierazi zuten beren helburuak gauzatzeko orduan zer nolako garrantzia zeukan indarkeriaren erabilerak. Indarkeria edonon, makineria errepresiboa lehen egunetatik garatu

2. Aipatzen diren iturrien inguruan zera ondoriozta daiteke Mikel Aizpururen arabera: “preso gehienak klase ertainekoak ziren, abokatuak eta jabeak asko, hainbat militarrek, baina bazegoen langile eta artisau ugari ere. Katolikoak eta kontserbadoreak, familia bereko kide bat baino gehiago heldu ziren errepublikako espetxeetara. Preso zibilen artean, gehienek ez zuten parte hartu altxamenduan, eta 1937ko ekainean oraindik epaitu gabe zeuden.”

Aizpuru Murua, Mikel: *Zapalkuntza-politika gerra eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan*. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

3. Iturri ezberdinen arabera, 42 izan ziren Araban hildakoak

4. Martín Rubioren arabera, Araban errepublikanoek 37 lagun hil zituzten, 490 Bizkaian, eta, 304 lagun Gipuzkoan. Nafarroan bat ere ez.

Martín Rubio, Á. D. (1997): *Paz, piedad, perdón... y verdad*, Editorial Fénix, Toledo.

zuten eta, esan bezala, garaitua fisikoki deuseztatzeaz gain, atzealdea edo erretagoardia *garbitzeko* helburua azaltzen zuen. Indarkeria horren eragina maila sozial guztietara zabaltzen zitzairen; adierazpenik gogorrenak matxinatuen bandoaren aurka egin edo laguntzarik eman ez zioten lagunei bideratua izan zen.

Aipatutako heriotza horiek alde batera utzita, kartzelaratzeko masiboak eta heriotza zigorrek oldartutako indarkeria errepresiboaren adierazle garrantzitsuak dauzkagu. Espetxeraketei dagokienean, azken datu esanguratsuak Aranzadi Zientzia Elkartearen txostenak eskaini ditu. Eusko Jaurlaritzari aurkezturiko dossier honetan adierazten den legez, 1936-1945 garaian 55.546 espetxeratu aipatzen dira. Atxilotutako artean, gerran parte hartze zuzena izan zuten gudari eta milizianoak dauzkagu alde batetik. Bestetik, gerra frontetik urrun atxilotutako zibilak. Eta talde bakoitzak ibildide ezberdindua jarraitu zuen aurrerantzean. Atxilotutako zibilak, orokorrean, kartzelara eramane zituzten; batzuk egun batzuen buruan askatasuna berreskura zezaketen konfiantzazko norbaiten aldeko informeak jasoz gero, *informes de buena conducta* zirelakoak hain zuzen. Gainontzekoak, delituaren arabera epaituak izanik, zegoen zigorra ezarriko zitzairen, heriotza zigorra kasurik larrienetan, baina baita urte askotako edo bizi osorako kartzela zigorrek zein erbesteratzea ere. Atxilotutako gudari eta milizianoen kasuen prozedura ezberdina izango zen. Hasiera batean harrapatutako gehienak fusilatutakoak izaten ziren. Gerora, ordea, bestelako egitasmoa azaldu zuten matxinatuek: kontzentrazio esparruetatik abiatuta, bortxazko lanen sistemaren bitartez, askatasunez gabetutako lan indarra erabili zuten frankistentzat onuragarriak izango ziren jardura ekonomikoetan. Aurretik, gerra garaia bitartean, helburu militarren onurarako laguntza lanetan erabiliak izan ziren modu berean, askotan gerra frontearen bertan, lubakiak egiteko lanetan eta abarrekoetan.

Epaiketa politiko eta heriotza zigorrak dagokienean, aipatutako Aranzadiren txostenaren arabera, Euskal Autonomi Erkidegoan 2.080 lagun inguru fusilatu zituzten: 890 gipuzkoar, 289 arabar eta 900 bizkaitar. Hala ere, kopuru hauek erlatibotzat hartu beharra dago, batzuetan ez baita bereizketarik egiten bertokoen eta kanpotik ekarritakoen artean. Hau guztia kontutan hartuta, aipatutako datuak murriztu beharrean gaudela azaltzen du Mikel Aizpuruk, eta ondoko datuak hobesten ditu: 850 lagun inguru Gipuzkoaren kasuan, 280 lagun Arabari dagokionean, eta, azkenik, 640 inguru Bizkaiaren kasuan.

Datu hauetatik abiatuta eta gainontzeko gune errepublikarretan emandako fusilatzeak alderatuta, ondoriozta daiteke gainontzeko lurraldeetan baino gutxiago izango zirela Autonomi Erkidegoa osatzen zuten herrialdeetan fusilatutakoak. Horren oinarrian ondoko arrazoiak aurki daitezke: alde batetik, mugaz beste aldera ihes egiteko aukera. Bestetik, kontutan hartzeko modukoa litzateke, abertzaleetako asko eskuindarrak zirela, Fronte Popularrari loturik, kontserbadoreak eta katoliko sutsuak. Horrek guztiak beste bandora hurreratzen zituen eta gertutasun horrek, azken finean, gizarte mailako babesa errazten zuen. Azkenik, gizarte mailako ezberdintasunak eta polarizazioa ahulagoa izateak, gerra aurreko giro gatazkatsuan elikatutako konfrontazioa ere arintzen zuen, gerora nabarmena izango zena.

Nafarroari dagokionean, hobe ezagutzen da bertan gertatutakoa. Alaffayllak argitaratutako datuen arabera, 2.857 lagun erail zituzten. Hemen ere, nafarrak eta Nafarroan hildakoak nahasten dira. Kopuru honek, Ezkabako gotorlekutik ihes egiten saiatu zirenak eta gerora fusilatutako zituztenak barneratzen ditu. Aizpururen iritziz, kasu honetan ere, emandako kopurua mugatu beharra dago.⁵ Hego Euskal Herriari dagokionean, eta Estatu mailan, beste lurralde batzuetan baino askoz ere proportzio altuagoan azaltzen zaizkigu hildakoak, are gehiago kontutan hartuta altxamenduaren aurkako erresistentziarik gabe lurraldea hasierako unetik altxatutako esku geratu zela. Hainbat faktorek azaltzen dute gertatutakoa: alde batetik, ihes egiteko aukera ezak, eta, bestetik, gizarte-tirabirek.

Errepresio frankista

Gerrak iraun zuen bitartean bezalaxe, gerraosteko lehen urtetan, armen indarraren bitartez ezarritako erregimena justifikatu eta legitimatzeko beharren aurrean, estatu mailako indar atzerakoiak biltzen zituen erregimen militarren gorespenerako diskurtso mesianikoa garatu eta lau haizetara zabaltzen zuten garaileek. Horrek ez du esan nahi, ordea, beren burua zuzitzeko premiarik azaldu zutenik eta, are gutxiago, erregimenak alde batera utziko zituenik ordura arteko bereizgarri izan zituen bortizkeria eta ankerkeria: erregimenaren izaera errepresiboaren adierazle izan ziren garaituekiko jazarpen indiskriminatu eta orokortua. Desagertzetik urrun, frankisten indarkeria errepresio sistematizatu eta instituzionalizatua bilakatu zen.

⁵ Aizpuru Murua, Mikel: *Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan*. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

Aipatu bezala, arlo errepresiboari zegokionean, bi gune aurki daitezke, Mugimendu Nazionalaren aurka ko pertsonak eta aurkako pertsona horien ondasunak; erakunde eta kideen ondasun higigarri eta higiezinak konfiskatzea zen helburua. Modu berean, zigor-jurisprudentziak bi esparru zituen: alde batetik, *Causa General* delakoaren barnean, Altxamendu Nazionalaren aurka azaldutako guztiei bideratzen zitzairen, gerra-auzitegi eta gerra-kontseiluen bidez, kartzela eta heriotza-zigorak ezarri. Bestetik, Fronte Popularreko alderdi ezberdinen jarraitzaileak zigortzera bideratutako xedapenak biltzen zituen, 1936-1937ko Ondasunak Konfiskatzeko Dekretua eta 1939ko Erantzukizun Politikoen Legea deiturikoen bitartez. Ildo berean, enplegatu publikoen garbiketa edo depurazio deiturikoa gertatu zen. Behin gerra amaituta, barne erresistentzia eragozteko helburuarekin, lege berrien sorrerari ekin zioten frankistek. Legedia horren oinarrian 1940ko Komunismoaren, Masoneriaren eta Judaismoaren Errepresiorako Legea eta 1941eko Estatuko Segurtasunerako Legea aurki daitezke. Hala eta guztiz ere, legedia berriaren esparrutik harago, garaileek indarkeria baliatu zuten garaituekiko era ezberdinetako gehiegikeriak ezartzeko, irain publikoetatik hasita heriotzaraino.⁶

Euskal populazioaren zati handi bat errepresioaren biktima zuzena edo zeharkakoa izan zen. Horrez gain, gerra ideologikotik abiatutako errepresioak, Euskal Herria eta euskaldunei zegokienean, garbiketa etnikoaren zantzuak bereganatu zituen. Herri izaera ezberdindua ukatzera bideratu zen errepresioaren alde bat, euskaldunen ama hizkuntza ezabatzea jomuga izanik, arlo publikoan euskararen erabilera debekatu zuten. Bertan behe-
ra geratu ziren errepublika garaiko aurrerapausoak arlo publikoan euskararen erabilerari zegokionean.

Euskaldunek pairatutako errepresioari begira, eta, Agirreren hitzak berreskuratuz, kultur genozidioaz mintzatzen da Iñaki Egaña historialaria. Euskal Herria “*kultur genozidio politika sistematiko baten biktima*” izan zela adieraziz, “*batzuetan bortizkeria erabilia, eta beste batzuetan disimuluan eta hipokresiaz. Pentsamenduaren adierazpen askea ezabatu egin dute gure herritik*”. Bertan behe-
ra geratu ziren Errepublika garaiko aurrerapausoak, arlo publikoan euskararen erabilerari zegokionean. Euskal hizkuntza jendaurrean erabiltzea debekatu zuten, adierazpide eta argitalpen guztietatik, irratia barne, ezabatuz eta, hau guztia gutxi balitz, arlo pribatuan ere, euskararen erabileraren kontrako jazarpena ohikoa izango zen. Adibidetzat, egunkari, aldizkari eta inprenten itxiera aipatzen ditu. Falangek konfiskatu eta bere esku geratu baitziren. Modu berean, frankistek hartutako neurrien artean, hezkuntza arloan euskararen erabilera debekatu eta Euskal Unibertsitatea ixteko erabakia hartu izana nabarmendu daiteke. Horren ondorioz ihes egin ez zuten irakasleak espetxeratuak izan baitziren. Ildo berean, Eusko Ikaskuntza eta Euskaltzaindia bezalako elkarte kulturalak zein erakundeak debekatu zituzten, eta hilarrietan izena aldarazi eta umeak euskal izenekin bataiatzeko debekua ezartzera ere iritsi ziren.⁷

2.3. ERREPRESIOAREN NONDIK NORAKOAK ETA IZANDAKO BILAKAERA

Gerraren bilakaerarekin batera eta gerra beraren gorabehereari loturik joan zen garatzen frankisten sistema errepresiboa. Frankistek hasiera-hasieratik helburu argia izanik ere (edozein motatako disidentzia edo aurka-kotasuna deuseztatu eta desagerraraztea hain zuzen), errepresioak ez zion erantzun aldeztu aurretik adostutako prozedura zehatz bati. Modu berean, errepresioak aurpegi ugari azalduko zituen, era zabal eta zuzenean pairatu zuten giza talde edo kolektibo ezberdinen arabera eta neurrikoa.

Errepresio frankistari dagokionean hiru atal ezberdindu daitezke. Lehen atala, altxamenduaren une beretik 1936a bukaera bitartekoa daukagu, non errepresio fisikoa era orokortuan nagusitu zen, eta nagusiki etsaitzat hartutako guztiak bat-batean erail zituzten. Bigarrena, iparraldeko frontea armada nazionalaren esku geratzearekin batera etorriko zen, 1937. urtean zehar, non errepresioaren izaeraren eraldaketa nabarmendu zen. Eta, azkenik, hirugarrena, gerraren amaierarekin batera hasiko zena daukagu, 1939ko udaberritik aurrerakoa eta gerraondoko lehen urteetan zehar luzatuko zena, gerra bitarteko ordenu juridiko militarra indarrean mantentzeko helburua azaltzen zuena, hain zuzen.

1937. urteko lehen hilabeteak inflexio une izan ziren, estatu-kolpe gisa planteatutako altxamendua gerra luze baten moduan eratu zenean. Hasierako helburua, *política de tierra quemada* delakoa, edo, Molaren hitzetan, “menperatutako eremuan terrorea ezartzea”, eraldatu egin zen gerraren luzapena eta preso egindakoen kopuruaren ugartzeari loturik. Zenbait historialarien arabera, estatu-kolpeko errepresio mota batetik gerra-erre-

6. Aizpuru Murua, Mikel: *Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan*. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

7. Egaña, Iñaki: *Frankismoa Euskal Herrian. Behin betiko konponbidea*. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain, 2011.

presiorako jauzia eman zen; hilabete horietako eraldaketak bortxazko lanen antolaketa legalaren jaiotza ekarri zuen, hala antolatu eta burokratizatutako jardura errepresiboari hasiera ematen zitzaion.⁸

Hartara, bi norabidetan gauzatuko zen frankisten errepresioa aurrerantzean. Bata, oposizio politikoaren ezabaketa fisikoa, hau da, erailketa, eta bestea, tradizio politiko gutxiko aurkarien artean beldurra zabaltzea, desmobilizazioa bultzatuz. Aipatutako sistema errepresioa hiru neurri ezberdinen bateratzean oinarritzen zen: erailketa masiboak, erabilera ekonomikoa eta zampaketa ideologikoa, alegia.

Bortxazko lanen sistemaren ezarpena hilketa masiboen eta sarraskien politika ordezkatzea zetorren. Beste gauza askoren artean, ezinbestekoa izango zelako askatasuna kendutako jende multzo horren lan indarra, *La Nueva España* deitu izan zuten horren berreraikuntzarako (edo, hobe esanda, eraikuntzarako). Bortxazko lanek eta langile batailoiek definituko zuten gerra garaian preso egindako askoren errealitatea, gerra bitartean eta gerra ondorengo urteetan zehar, errepresio frankistaren aurpegi horietako baten adierazle ditugu.

Gatibu edo gerrako preso direlakoan kopuruaren ugaritzeak egoera berria sortu zuen, eta ondorioz errepresioa gauzatzeko bide eta modu ezberdinen bilakaera etorri zen. Horri loturik, bortxazko lanen erabilaren sistematizazioa eta etengabeko hazkundea. Era horretan, etekin ekonomiko izugarrien iturburu gisa gauzatu zen. Modu berean, etekin politikoaren iturri, helburu belikoetarako laguntza izanik ere, eta, azkenik, zampaketa ideologikoa ezartzeko tresna garrantzitsu eta eraginkor gisa agertuz.

Hasieran ez zen atxiloteta masiborik egon, ez fronte lerroan, ezta hiri eta herriak hartzeko momentuan ere. Batean zein bestean, milizien ihesak, baita herritarrenak ere (nolabaiteko ardura publiko edo politikoak zituak gehien bat) horretan lagundu zuen. Gutxi izan ziren atxilotutakoak, frankisten esku eroritako gehienak erailak izan ziren. Hasierako une horietan, exekuzioak, fusilamenduak nagusi izango ziren. Lehenago aipatutako herritarren exodoa eta ihesari gainbegiratzuz gero, nabarmendu daiteke 100.000-150.000 lagun inguruk utzi behar izan zutela beren etxea behin-behinean edota betirako.

Sorterria utzi behar izan zutenen artean umeak dauzkagu. Frankistak Gipuzkoan barneratu ahala umeen ebakuazioari lehentasuna eman zitzaion errepublikazaleen aldetik. Donostia erori aurreko kasua aipa daiteke; UGT zein CNT sindikatuak antolatuta, 300 ume Frantziara bidali zituzten, kasu gehienetan, Nazioarte Sorospen Gorria, edo *Socorro Rojo Internacional* zelakoak, ebakuazioen kudeaketaz arduratzen baitzen. Donostia eroritakoan, familia ugari galdu zuen umeekiko harremana. Izan ere, Bilbon ezarri zen ebakuazio kontuez arduratu zen bulegoaren lanari esker, famili askok harremana berreskuratu zuten.⁹

Hasierako une horietan, arakatutako informazioaren arabera, ez da dokumentatu frankistak barneratutakoan atxilotzen zituztenentzako kontzentrazio esparrurik zegoenik, atxilotze-guneak inprobisatzen ziren eraikin publiko edo pribatu ezberdinak baliatuz. Tolosa erori artean egoera bere horretan mantendu zen, Pikoketan kolpisten esku geratu zirenak ere modu orokortuan bat-batean fusilatuak izan ziren.

Hauze izaten zen frankistek, orokorrean, jarraitutako prozedura plaza berriak, edo herriak, bereganatzen zituztenean. Plaza horretaz arduratuko zen komandantea aukeratu eta, falangista eta karlisten laguntza eta oniritziarekin, komandante horrek Udal berria aukeratzen zuen, alkatetzatik hasita. Nafarroan egindakoaren gisakoa izan zen militar kolpisten jardunaldi errepresiboa. Pronuntziamentuaren une berean izan beharrean, Gipuzkoaren kasuan, herri ezberdinak hartutakoan edo herrialdea eroritakoan egin zituzten atxiloteta gehienak, eta milatik gora atxilotu zituzten. Esandakoaren harira, nabarmendu beharrean gaude errepresioa pairatu zutenen artean, asko eta asko ez zirela errepublikaren defentsan ibilitakoak. Araba eta Nafarroan ez bezala, non errepresioa ezkerreko erakunde eta sindikatuengan bideratu zen, biktima gehienak sindikalista komunistak eta anarkistak izanik, Gipuzkoaren kasuan errepresioa nazionalistek bideratu zitzaizkien gehienbat. Haietatik asko eta askok, ihes egitearen ideia alde batera utzi zuten, gune erlijioso eta eskuineko familiak babestu izanagatik frankisten haienganako jarrera beste modu batekoa izango zela pentsatuta. Ondorengo prozedura, atxilotuen artean erregimenaren kontrakoak zirenak aukeratzean zetzan, zuzenean fusilatuak izaten ziren aukeratutakoak ondoren. Fusilamendu pelotoiak Oiartzunen, Hernanin eta Donostian aritu ziren gehienbat.¹⁰

8. Aizpuru Murua, Mikel: *Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan*. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

9. Egaña, Iñaki: 1936. *Gerra Zibila Euskal Herrian. Behin betiko konponbidea*. IV atala: Gerra zibila Euskal Herrian. Aralar Liburuak. Andoain, 1998.

10. Egaña, Iñaki: 1936. *Gerra Zibila Euskal Herrian*. IV atala: Gerra zibila Euskal Herrian. Aralar Liburuak. Andoain, 1998.

Donostia frankisten esku geratzean, ordea, atxilotetak ugaritu egin ziren nabarmen. Ordura arteko atxilotze-gune berberak erabili zituzten indar okupatzaileek, aurretik errepublikanoek erabili izan zituztenak, alegia. Kursaal eta Ondarretako espetxeak, Zapatariko *Guardia de Asalto* zelakoaren kuartela, San Jose Ikastetxea eta, emakumeentzat, San Jose asiloa. Era berean, bestelako atxiloteta guneak inprobisatu zituzten erakunde politiko-koen egoitzetan, hala nola Falangeren kuartela izatera pasa zen EAJren egoitzaren kasuan, *La Checa* famatuan. Barrusok aipatutako hauei, emakumeentzat Lasarten egokitutako atxilotze-gune edota kontzentrazio-esparrua eransten dizkie Egañak.

Gipuzkoako kanpainaren ondorioz eta 1939ko azken hilabeteetan zehar Iparraldeko Frontean atxilotuak izaten zirenak, Murgiako Aita Paulen eta Orduñako Jesuiten komentuetan giltzaperatzen zituzten, 1937an gati-buen sailkapenerako batzordeak sortu ziren arte. Bizkaian barneratu eta okupatzearekin batera, eta, batez ere, hiriburuaren erorketaren ondorioz, espetxe eta atxilotze-guneen masifikazioa etorri zen. Horrekin batera, espetxe berrien irekiera, Saturrarangoa aipa daiteke emakumeen kasuan adibidetzat. Iturri nazionalisten arabera, 1938an. 3.000 preso ziren Gipuzkoako kartzeletan. Era berean, kontzentrazio esparruen sorrera ekarri zuen. Esate baterako, Lizarrako *Casa Blanca* zelakoa edota Iratxeko Monasterioa Nafarroan, Iruñekoa edota Deustuko Unibertsitatekoa Bilbon (Bizkaiko hiriburua matxinatuen esku geratutakoan). Gipuzkoaren kasuan, kontzentrazio esparruei buruzko. lehenengo erreferentziak 1937. urte amaiera aldean dokumentatzen dira.

Gerraren amaierarekin batera, atxiloteta masiboak etorri ziren berriz ere, baita ihes egindakoen itzultze-ko saiakerak ere Jendetza pilotzeko behin-behineko eremuen sorrera ekarri zuen honek, Gipuzkoaren kasuan, oraingoan bai, Irun eta Hondarribian. Era berean, beste batzuk inprobisatu egin zituzten zenbait herri eta hiriburuetan, hala nola Donostia, Tolosa, Gasteiz, Bilbo eta Iruñeko zezen plazetan. Itzultzen saiatzen zirenak inprobisatutako kontzentrazio esparru hauetan ikusi zituzten euren buruak, gerran preso egindakoen antzera, sailkatuak noiz izateko zain. Hauxe dugu Irungo *La Hilatura* kontzentrazio-esparruaren kasua. Denbora gutxi-
ren buruan etxera itzultzen saiatu baitziren Gipuzkoa eroritakoan alde egin zutenak, kolpisten aldekoak barne. Bidasoa ibaian ezarri zen muga-kontrola, hasiera batean, *Comisión de Admisión del Puente* izenez ezagutzen zenaren menpe. Ondoren, *Comandancia del Bidasoa* zelakoaren ardura pean.¹¹


Espetxe eta kontzentrazio esparruak izan ziren bortxazko lanetara zigortuak izan zirenen ibilbide luzearen abiapuntua, modu horretan, errepresioari dagokionez, bi bide ezberdintzen zirelarik. Bata, judiziala edo penala delakoa, eta, bestea, estrajudiziala delakoa. Aipatu bezala, errepresioaren ezarpen modua gerraren bilakaerarekin batera definitzen joango zen, modu ezberdinean gauzatu zen gerra iraun zuen bitartean eta behin amaituta, hau da, gerraostean.

11. Barruso, P : *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo (1936-1945)*.

2.3.1 • Gerra bitarteko errepresioa

Gerraren hasierako uneak pasata, non exekuzioak izan ziren nagusi, espetxe edota kontzentrazio esparruetan abiatzen zen atxilotutakoen klasifikazioa eta, ondoren, gatibu edo preso bakoitzari zegokion prozesua.

Klasifikazio prozesuek tokian tokiko autoritateen informeak, eliza, falange eta Guardia Zibilarenak ere oinarri izaten zituzten. Herri bakoitzeko udalaren eta autoritate militarren arteko korrespondentzia prozesu horren adierazle daukagu:



138. Batailoian zigoritutako pasaitarraren jarrerari buruzko informeak, eta orri beraren atzealdean eskuz idatzita zigortutako pasaitarrari buruzko informazioa. Batailoiko arduradunak Pasaiko Alkateari igorritakoa. (Pasaia 1940. Pasaia Udal Artxiboa. PUA. Oficios del Ayuntamiento, 1940).

Atxiloketa masiboak hasi zirenerako, Bizkaiaren kontrako erasoaldiarekin batera, indarrean zen gerrako presoen sailkapenaren inguruko legea, *Orden General de Clasificación del 11 de marzo de 1937* delakoa. Horren arabera, espetxe edota kontzentrazio esparruetako gatibu eta presoak lau kategoriatan sailkatuak banatzen zituzten:

“A” edo *afectos* zirelakoak, mugimendu frankistarekiko leialtzat hartzen zituztenak dauzkagu. Izan ere, leialtasuna justifikatu beharra zegoen, gehienetan herritarren inguruko informeen bitartez, (agintari lokalen eta Falangeren esku geratzen zirenak). Hauen artean, Errepublikako armadan derrigorturik parte hartu zutela justifikatu zezaketenak dauzkagu, baita era boluntarioan frankisten aurrean aurkeztutakoak ere. Hau da, hasierako unetan Errepublikako armada uzteko eta frankistengana jotzeko erabakia hartu zutenak. Dударik gabe, erregimenaren aurkako inongo zantzurik gabekoak izango ziren.

“B” zirelakoak, errepublikar armadan bolondres gisa aritutakoak dauzkagu; kargu militarrik ez zituztenak edota indar errepublikarrei lotutako ardura politiko edo gizarte mailako erantzukizunik azaltzen ez zutenak.

“C” moduan sailkatutakoak, ordea, armada errepublikarreko kargu militarrek, fronte popularrari lotutako alderdi eta erakundeetako buruzagi politiko edota sindikalak, eta ideia errepublikano, abertzale edo ezkertiarren aldeko edozein motako eragin soziala azaldu, edota ekimenak burutu zituztenak ere aurkituko ditugu. Paradojikoak izanik, hauek guztiak, alderantzizko justizia zitekeenari jarraituz, matxinadarako laguntzaile moduan epaitu eta zigortuak izan ziren, prozesu penal baten bidez. Hau da, *auxilio a la rebelión* delako delituaren akusaziopean.

“D” moduan sailkatutakoak, azkenik, delitu arruntak zirela eta atxilotutakoak dira. Ez zitzaien zigor militarrik ezarriko baina, zenbait kasutan, langile batailoietara bidali zituzten, urteak pasa ahala modu orokortuan preso sozialek preso politikoak ordezkatu zituztenean.¹²

Legeak zioenaren arabera, “A” moduan sailkatutakoak edo Aldekoak zirelakoak zuzenean aske utzi zituzten. Nolanahi ere, soldaduskarako adinean zirenak, errekluta kaxetara bidaltzen zituzten, altxatuen armadan sarraraziz. Hala ere, hauen artean baziren zalantzazkoak bezala sailkatuak izan zirenak. Hau da, modu batean edo bestean beren leialtasuna erabat frogatu ezinean zeudenak, “A-d” moduan sailkatutakoak edo *A dudosos* zirelakoak. Hauek ere, Ez Aldekoak gisa sailkaturiko beste guztiak bezalaxe, atxilotuak izango ziren, eta “B” moduan sailkatutakoekin bateratukoak.

“B” moduan sailkatutakoak *desafecto* izenarekin identifikatu zituzten. Azken hauek eta “C” moduan sailkatutakoak kontzentrazio esparruetan mantendu zituzten, kasuaren arabera ezberdina izaten zen denboraldi mugatu batez. Delitu zehatz baten akusaziopean atxilotutakoak, “C” moduan sailkatutakoen kasuan, auzitegi militarretan epaituak noiz izateko zain eta, delitu zehatzik leporatzen ez zitzaien presoak, gerran zehar preso hartutakoak, gatuak (hau da, gainontzekoak edo *desafectos* direlakoak), langile batailoietara bidaliak izateko zain.

“D” moduan sailkatutakoak, azkenik, kasu bakoitzari zegokion tribunal edota prozeduraren arabera epaituak eta zigortuak izan ziren.

2.3.1.1. Errepresio penala

Frankisten Mugimendu Nazionalaren aurkako delituak kausa orokorra edo *Causa General* delakoaren baitan bildu eta epaituak izaten ziren. Auzitegi militarrek epaitzen zituzten akusatuak, hauek zibilak izanik ere. Heriotza-zigor ugari ezarri zituzten, gerora batzuk bertan behera utziko zituzten arren. Baita bizi osorako zigorrak, eta urte askotakoak ere. Zegokien zigorra jaso arte kontzentrazio esparrutan mantentzen zituzten “C” moduan klasifikatutako preso hauek, justiziatu eta exekutatu noiz izango zain edo gerora begira espetxeratuak izateko. Heriotza zigorra jasotzen zutenak exekutatuak izaten ziren kontzentrazio esparru edota espetxe inguruan bertan, egun batetik bestera.

Espetxeratutakoen artean, 1938ko urrian, *Orden del Ministerio de Justicia de 7 de octubre de 1938* deitukoa medio, martxan jarri zen Lanaren Bidez Penak Luditze Sistema, *Sistema de Redención de Penas por Trabajo* zelakoa. Honen bitartez bideratu zen presoen esplotazio ekonomikoa, behartu eta militarizatutako lan indar gisa. Sistema honen kudeaketarako, urte horretan bertan, PCRPT edo *Patronato Central de Redención de Penas por Trabajo* delakoa sortu zen. 1940. urteko bortxazko lanen sistemaren berrantolaketari loturik, *Patronato de Nuestra Señora de la Merced* zelakoak aurreko Patronatua ordezkatu zuen, garai berriekiko egokiagoa zen itxura bereganatuz eta diskurtsoa garatuz, baina, neurri handi batean, sistema bera bere horretan mantenduz.

Modu horretan eratu ziren zigortuen destakamenduak. Langile Batailoien antzera, Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza, ICCP edo *Inspección de Campos de Concentración y Prisioneros* delakoaren ardura-pekua izango zirenak. Delitu larriengatik kondenatuak izan ez ziren presoak zuzendutako sistema zen hau. Lan egindako egunen trukean zigorra murrizteko aukera ematen zitzaion presoari. Zigortuen destakamenduak edo *destacamentos de penados* direlakoak osatu zituzten hauek. Hasiera batean *Causa General* deiturikoaren baitan auziperatutakoei bideratzen zitzairen, baina gerora, ordea, *delito de rebelión* akusaziopean auziperatutakoei ere zabaldu zitzairen. Arlo zibileko azpiegitura handiak eta antzeko lanak burutu zituzten, Estatuarentzat nolabaiteko interesa izango zutenak, baina ez arlo militarreko lanek beste.

Egitasmo horiei lotutako lanak eta horretan arituko ziren zigortuak hiru estatu-erakunderen menpe zeuden: *Servicio Nacional de Regiones Devastadas* zelakoa, eraikuntza arloko lanez arduratzen zena, gerraren ondorioz suntsitutako azpiegitura eta hirien berreraikuntzari loturikoak bereziki; *Compañía de Caminos de Hierro del Norte* zelakoa, burdinbidea ezartzeko lanez arduratuko zena eta, azkenik, *Colonias Penitenciarias* zirelakoak, bortxazko lanak bide judizialekik gauzatzeko modalitate ezberdindua zutenak.

¹². Lan politikoa edota inplikazio soziala, eta, azken finean, Mugimendu Nazionalarekiko aurkakotasuna adierazi zutenak zigortzeko baliagarria izan zitzairen frankistei, delitu arruntak akusaziopean zenbait herritar atxilotzeko tresna gisa

Zigortuen Destakamenduek enpresa pribatuari loturiko hainbat lan egin zituzten, militarizatutako industrietan esate baterako. Hala, garrantzia bereziko sektoretako hainbat lantegitan lan egitera ere eraman zituzten. Azkenik, aipatu beharra dago lan publikoei lotutako *Ferrocarriles y Construcciones ABC* enpresa nabarmendu zela presoan lan-indarraren erabilerari zegokionean.

2.3.1.2. Errepresio estrajudiziala

Bortxazko lanetan zigor estrajudizialaren bidetik gauzatuko zena nagusitu zen, hau da, “A-d” eta “B” moduan sailkatutako gatibuei aplikatuko zitzaiena. Zigortu kopuru gehien bildu zuen, eta lan handienak egin zituen. Behar eta helburu militarrei erantzuten zioten lanei heldu zieten, baita, modu esanguratsuan, azpiegituren sarearen berreraikuntzarako ezinbestekoak ziren lanei.

Gatibuen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza edo ICCP delakoaren ardurapean (1937ko uztailan sortutakoa) Langile Batailoien oinarritzko abiapuntua errepresio estrajudiziala dugu, esan bezala, *desafectos* edo *afectos dudosos* direlakoekin gauzatu zena. Era berean, behartutako lan indarrari dagokionez, iturburu garrantzitsuena izango zen. Delitu zehatzen bat leporatzen ez zitzairen gatibuei zuzenduta zegoen, hau da, gerran zehar preso hartutako jende multzo zabala bateratzen zuena. Deliturik egon ez arren, erregimenak ez zituen aske ikusi nahi eta modu krudel eta iraingarrian zigortu zituzten, luzera joko zuten mota ezberdinetako bortxazko lanetara behartuz.

Bortxazko lan-sistemaren hastapena eta Langile Batailoien sorrera eta erabilera 1937. urteko lehen hilabeteetan kokatzen da, martxotik uztailera bitartean. Uztailetik aurrera sistema bera antolatu eta arautzeko sortutako erakundeari loturik (ICCP), bortxazko lanen sistema perfektionatuz joan zen, lan-unitateen produktibitatea handitzeko helburuarekin gatibuei diziplina militarra ezarri, eta kargu militar eta soldadu zaindariei dagokienez, berriz, jokamolde bateratua ezarri eta zigortutakoei araudi zorrotzetan zorrotzena betearaziz.

Izan ere, Langile Batailoien lanaren ondorioz ez ziren espero ziren moduko etekin ekonomikoak lortuko, ezinbestekotzat jo beharreko lana egin bazuten ere, gehienbat eraikuntza zibila eta azpiegituren sarearen garapenerako lanei zegokienez. Erregimenaren ordezkariak *Servicio de Inspección de Batallones y unidades de trabajo* delakoa sortuz saiati ziren planteatutako arazoari irtenbidea ematen. Hartutako neurrien artean, lehenago aipatutako araudiaren erredakzioari ekingo zioten, hau da, *Reglamento para el Régimen Interior de Trabajadores* zelakoari. Bertan, Langile Batailoien inguruko txosten batean, hauen distribuzio eta kokapenari egiten zitzaion erreferentzia, baita burutzen zituzten lan mota ezberdinei ere. Alderdi orokorrak aipatzen ziren eta aldi berean, bestelako alde zehatzagoei ere erreferentzia egiten zitzairen. Horrela, Langile Batailoietan zigortutakoen egoerari buruzko informazio baliagarria eskaintzen zuten.

2.3.2. • Gerra ondoko errepresioa

Gerraren amaierak, 1939ko apirilaren 1ean, atxiloketa masiboak ekarri zituen berriz ere. Hainbeste hazi zen preso eta gatibuen kopurua, ezen espetxe eta kontzentrazio-esparruek gainezka egin zutela. Bestetik, etengabea zen altxamenduarekin ihes egin eta gerra amaituta etxera itzultzen saiatzen zirenen jarioa. Haien kontrako erantzukizun legalik ez zegoelakoan, lasai itzultzen ziren gehienak etxera. Gauzak ez ziren horrela izango, ordea, eta beren burua kontzentrazio-esparruetan ikusiko zuten haietako askok. Preso egindakoekin batera, jende hori guztia biltzeko gune berrien sorrera ezinbestekoa bilakatu zen, jatorri ezberdineko jendetza erregimenarekiko jarreraren arabera sailkatua izan arte.

2.3.2.1. Errepresio judiziala

Hainbat legeren arabera zigortutako delituei loturiko errepresioa bere horretan mantendu zen behin gerra amaituta ere. Neurri handi batean, gerra amaitzerakoan preso egindako jendetzarekin eman zitzairen amaiera atxiloketa masiboei. Izan ere, lana etengabe pilatzen ari zen jada gerra bitartean kolapsoaren arriskuan zegoen sistema judizialari zegokionean. Audientzia militar sumarioak bata bestearen atzetik etorri ziren. Aldi berean, auzi eta sententzia baten zain pilatzen zen preso kopurua modu kezagarrian hazten zihoan, erregimenarentzako arazo bilakatuz, ezinezkoa egiten baizitzaion horrenbeste preso mantentzea.

Testuinguru honetan exekuzio kopuruaren nolabaiteko hazkundera nabarmendu zen, audientzia militararak arintzeko saiakerari loturik. Ildo berean, gatibuak Langile Batailoietara bidaltzeko prozedurak arintzen saiatuko

ziren. Akusatu asko bilduko zituzten auzi militar bakoitzean, akusatuen arteko bereizketarik egin gabe. Inolako berme edota defentsarako aukerarik gabeko ehunka heriotza-zigor eta bizi osorako kondena ezarri ziren behin eta berriro, gerora hauetako asko bertan behera geratuko baziren ere. Bestalde, milaka eta milaka pertsonak jaso zituzten kartzela-zigorak.

Delitu larriak egozten ez zitzaizkien horiekin bideratu zen preso zegoen populazioaren erregimenaren onurarako lan-indar moduko esplotazioa gerra ondoko urtetan, Lanaren Bidez Penak Luditzeko sistemaren bitartez. Sistemak bere horretan jarraitu bazuen ere, horren arduraduna zen erakundean aldaketaren bat egin zuten: *Patrónato de Nuestra Señora de La Merced* izena jasoko zuen eta hari lotutako diskurtsoa eraldatu zuten.

Izan ere, gerraosteko lehen urteak atzean utzi ahala, aipatutako sistemaren ustezko onurak jaso ahal izateko baldintzak eraldatzen joan ziren, geroz eta kopuru handiagoan, jatorri edo izaera ezberdineko presoak erabiliz. Ondorengo hamarkadetan preso sozial edo komunek ordezkatu zituzten erabat preso politikoak.

2.3.2.2. Errepresio estrajudiziala

Behin gerra amaituta errepresioaren alor estrajudiziala bere horretan mantendu zen; gerraren amaieratik, 1939ko apiriletik aurrera, urte bukaera arte bortxazko lanen sisteman ez zen aldaketa esanguratsurik egin. Eta 1940. urte hasierarako sistema berritua izango zela esateko zantzuak azaltzen badira ere, urte horren erdialdera arte legedia berria ez zen martxan jarri. Une horretan, aipatutako legedia berriaren arabera, 1937. urtetik indarrean ziren Langile Batailoiak desagiten joan ziren eta hauek Langile Soldaduen Diziiplina Batailoiak (BDST edo *Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores* direlakoak) ordezkatu zituzten.

1939an ICCP delakoa desegin zen eta JCCBD edo *Jefatura de Campos de Concentración y Batallones Disciplinarios* delakoa sortu zen. Helburua, lehen aipatu bezala, gerra osteko garaian gerra garaiko sistemaren bizi-raupena zen. Ezkutuko helburua gazteria makurraraztea zen, doktrinamendu eta diziplinaren bitartez. Aldaketa horretan oinarritzko elementua soldaduskaren inguruko legedi berria izan zen, 1939ko Abenduaren 20ko Ordena delakoa, hain zuzen ere. Horren arabera, gazteen sailkapenerako irizpideak zehaztu ziren.

Delitu zehatza egozten ez zitzaaien horiez baliatuz, erregimenaren onurarako behartutako lan-indarraren jarioa ez etetea lortu zuten, behin preso hartutako jario etengabea gerraren amaierarekin batera mugatuta. Oraingo honetan, ordea, soldaduska egiteko adinean zen populazioari zuzendu zitzaion: aske zirenei, baita aurretik preso edo Langile Batailoietan izandakoei eta oraindik bertan zirenei ere. Azken hauen artean, asko eta asko aske utzi zituzten, jarraian berriz ere atxilotuak izateko. Kontzentrazio-esparruetara eramanez eta, bertatik, berriro batailoi berrietara.

Sailkapena aldeztu aurretik udaletan egindako lanetan oinarritu zen. Helburu horrekin, udaletan gazteen sailkapenaz arduratuko ziren batzorde bereziak eratu zituzten, 1940ko urtarrilaren 5eko Aginduaren arabera. Kontzentrazio-esparru eta langile batailoietan zeuden gazteen klasifikazioaz arduratu ziren. Prozesu horren adierazle dira errekluta kaxak, udalen eta kontzentrazio-esparru eta Langile Batailoietak arduradun militarren arteko korrespondentzia.

Urtarrilaren 15eko aginduekin indarrean sartu zen soldaduen sailkapenerako araudia, eta espedienteak apirilaren 1a aurretik bidaliak izan behar zutela agintzen zuen. Hortik abiatuta, hainbat deialdietako gazteen izen-abizenekin zerrendak eratu ziren, gaur egun zenbait udal artxibotan oraindik mantentzen direnak.

Soldadu Langileen Diziiplina Batailoiak 1936-1941 urteen arteko deialdietako gazteak bildu zituzten. Alde batetik, momentuko deialdiak biltzen zituen. Bestetik, gerra garaian zonalde errepublikanoan soldaduska egindako gazteen deialdiak barneratzen zituen, erregimen frankistak ez baitzituen Errepublikako legedia eta horri loturiko alderdien legalitatea onartzen. Ildo horretan, soldaduska egin izana ez zitzaien kontuan hartu aipatutako deialdien bitarteko gazteei.

1940. urtearen uda partetik aurrera, gazte hauek osatu zituzten, modu esanguratsu eta proportzio garrantzitsutan, Diziiplina Batailoiak. Ordura arte preso hartutakoekin egin bezala, deialdi ezberdinetako gazteen sailkapenari ekingo zion erregimenak. Modu berean, *afectos*, *indiferentes* eta *desafectos* moduan sailkatu zituzten gazteak eta, horren arabera, soldaduskara ala batailoi berrietara bidali. Oraingoan ere, sailkapena erregimenarekiko izandako jarreraren arabera zen, parte hartze politiko eta soziala zein adierazpenak zigor gortuz.

Batailoi hauetan *Fiscalía Superior de Tasas* delakoak zigortutakoak ere barneratu zituzten, baita aurreko batailoietatik zetozen beste batzuk ere, arrazoi ezberdinak zirela medio 1940. urteko udaberri alderako baldintzapeko askatasunik lortu ez zutenak.

2.3.3. • Bortxazko lanak erregimen frankistan

Erregimen frankistak bortxazko lanen sistemaren garapen kualitatibo eta kuantitatiboa bideratu zuen, eta honen adierazle izan ziren errepresioaren sistematizazioa eta burokratizazio prozesua.

Bortxazko lanen logika (armadak eta Estatuak kudeatutako zigor politiko gisa) eta helburuak errepresio frankistaren osotasunaren baitan ulertu behar dira, erregimenaren ezarpena eta sendotzea terrorearen hedapen sistematikoan oinarritzen baitzen. Etekin ekonomikoaz gain, baziren bestelako interesak, esklabo-lanen erabilera bideratuko zutenak, hain zuzen ere. Hala, garaipen militarren onurarako erabili zituzten lehen batailoiak, gerra bitartean eratutakoak. Gerra amaitutakoan, modu berean, arlo militarreko helburu taktiko edota estrategikoen arabera egokitutakoa izan zen ondorengo batailoietako giltzapetuen lana. Bestetik, bortxazko lanen sistemaren bitartez zigortutakoen dominazioa bilatzen zen, ondorengo jendarteratzea ahalbideratzen zuela aitzakiatzat harturik.

Sistema hau, bistan denez, ez zegoen gerra faktoreei loturik bakarrik, eta gerora begira ez zuen eragin-kortasunik galdu, eta garrantzia mantendu zuen gerraosteko lehen urteetan zehar. Bortxazko lanen presentzia esanguratsua izan zen gerra eta gerra osteko garaian, oso sektore ezberdinetan topa daiteke giltzapetuen lana. Gutxienez 36.000 gatibu aritu ziren esklabo-lanetan Hego Euskal Herrian. Horietatik 18.000 inguru Nafarroan aritu ziren eta gainontzekoak, Gipuzkoan eta Bizkaian gehienbat, herrialde bakoitzean 8.000 inguru. Araban, azkenik, 2.000 baino gutxiago izan zirela pentsatzen da.

Bortxazko lanen sistemaren bidez egokitutako lan mota ezberdinen artean, errepide militarren irekiera eta mugetako gotortze-lanak dira garrantzitsuenak, enplegatutako lan-esku esklaboaren kopuruari begira, garrantzitsuenak daukagu, horretan aritu baitziren gatibuen bi heren inguru. Sektore honen baitan mendiko errepideak eta bestelako gotortze-lanak ezberdindu daitezke. Nafarroari dagokionean, Gipuzkoari dagokionean ez bezala, errazago izan da lan mota horien arteko bereizketa, pentsa daiteke, gutxienez 6.758 gatibu mendiko errepideen irekierarako lanetan aritu zirela, mugaldeko gotortze lanetan ibili zirenen erdia baino gehiago. Bai batzuk eta bai besteak, gotortze lan zein errepideen irekierari lotutakoak, berebiziko garrantzia izan zuten erregimen frankistak bere eragin esparruaren babeserako diseinatutako plan estrategiko militarren garapenean. Ikerlan honen kasuan, Pirinioetako mendebaldeko mugaren gotortzearen inguruko lanak izango ditugu hizpide, aztergai daukagun errepideetako lanak aurrera eraman baitzituzten frankismoaren esklaboek.¹³

Izan ere, gerra hasi bezain laster, bortxazko lanak zigor moduan erabiltzeari ekin zioten kolpistek, atzeguardiako alde askotan preso edota fusilatuen senitartekoak agintari berrien zerbitzura lan egitera zigortuak izaten baitziren, mota ezberdinetako udal lanak egitera behartuak izaten ziren. Gehienetan garbiketarekin zerikusia zuten lanak izaten ziren, baina baita zerbitzu domestikokoak edota nekazaritza arloko lanak, besteak beste uztaz jasotzeko.¹⁴ Aldi berean, kanpaina militarrek gudari eta milizianoen artean lehen atxiloteta masiboak ekartzen ari ziren eta esan bezala, horietariko gehienak berehala fusilatuak edota espetxeratuak izan ziren. 1937ko udaberrian zehar, ordea, aldaketa garrantzitsuak egin zituzten errepresioaren antolaketari zegokionean, eta, modu horretan, bortxazko lanen egitura legala ezarri zen. Gerra bitarteko lehen hilabeteetan, zenbait unitate militarrek ere gerrako presoak erabili zituzten haien interes belikoen alde aritzeko, oraindik bortxazko lanen inguruko egitura legalik ez baitzegoen, eta batailoien sistema ondo antolatu gabe.

Zeregin belikoetan aritutako batailoiei dagokienean, armarik gabe, eta zaintzapean egonik, gatibuek jardura belikoarekin estuki lotutako lan ugari egin zituzten matxinatutako armadaren alde. Hala nola, gerra-eremuan material belikoa jasotzea, erasorako azpiegiturak prestatzea, intendentzia-lanak edota armadaren autoen

¹³. Mendiola Gonzalo, F.: *Goiztik gabea lan eiten dugu soldatarik jaso gabe*. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962) 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009

¹⁴. Altaffaylla Kultur Taldea, 2003an argitaratutako datuei erreferentzia eginez zera ondorioztatzen du Fernando Mendiola: *Errepresio mota honek bereziki emakumeengan eta gazteengan izan zuen eragina, eta beren senitartekoei ezarritako zigorrak eragin zuten tristura edota larritasunez gain, beren borrokoaren mesederako lan egin behar izateko umiliazioa ere jaso behar izan zuten, Nafarroako alde batzuetan, besteak beste, gertatu zen moduan*.

konponketak. Langile Batailoiak frankisten unitate militarrei atxikiturik zeuden eta agintari militarren irizpideen arabera gatibuen lana bideratu eta zuzentzen zen. Lekuko eta testigantza ezberdinen arabera, lan gogorren artean gogorrenetakoa, eta baita arriskutsuena ere, inorena ez zen lurrian armada frankistak aurrera egiteko lubakiak irekitzea izan zen. Esate baterako, 1936. urtean dokumentatzen den legez, Gasteizeko espetxe zaharretik presoak ateratzen zituzten egunean zehar Gorbeia aldean lubakiak egiteko. Lanik gogorrenetakoa izan zitekeela pentsa daiteke, Mendiolaren hitzetan “alde batetik, etsaiaren alde oso modu gordin eta ikusgarrian aritu behar zutelako, eta bestetik, zeregin horretan zeuden bitartean, haien kide ohien, errepublika defendatzen zuten soldaduen tiroak jasotzen ahal zituztelako”. Txomin Uriarte bizkaitarren hitzekin dokumentatzen du adierazitakoa, preso egindakoak honela deskribatzen zuen Guadalajarako frontearen bizitako egoera:

Frente bixen erdixen igoal imintzen ginduzan. Da guk biharrian “pico y pala”gaz. Ta bidiak eitten hurrengoan abantzetako edo atakia emoteko. Ba gorriek ez doskun tirotuten, esan egiten doskun gane-ra: “bai, badakigu nortzuk zarien”. Eta ez doskun tirotuten

Gatibuek egindako lanen artean, garrantzitsu zein esanguratsuenetarikoak dauzkagu hainbat herriakotako erakuntza edota berreraikuntza lanak: gerra eta bonbardaketek suntsitutako herrien berreraikuntza, hirietako azpiegituren berrikuntza, izaera erlijiosoa edo politikoa zuten monumentuen konpontze edota eraikuntza lanak, eta abar luzea. Euskal Herriari dagokionean Gernikako berreraikuntza daukagu esanguratsuenak. Era berean, Estatu mailan, Belchite eta Valle de los Caídos dira ezagunenak. Lan mota hauek ezin hobeto irudikatzen zuten Francok aditzera eman nahi izan zuena: “*Con el trabajo, el pan y la justicia de la Patria, poco a poco van los prisioneros reconstruyendo lo que ellos mismos deshicieron antes con la dinamita*”. Mendiolaren hitzetan, berreraikuntza zibilaren kasuan, oso agerikoa zen agintari frankistek zabaldu nahi izandako leloa, giltzapetuen lanari mezu propagandistiko oso argia ematen zitzaion. Era berean, gainontzeko herritarrei mehatxua eta kutsu pedagogiko argi bezain ikaragarriaz jantzitako mezua zabaltzen zitzaion. Horrez gain, ikusiko dugunez, bada bestelako lanen zerrenda luzea, industria arloa zein meatzaritza eta lan hidraulikoak barneratzen dituenak, besteak beste. Ildo horretan, aipatzeko modukoa da presoek lana erabili izan zutela espetxe edota kontzentrazio esparruetan bertan beharrezkoak ziren eginbeharrak aurrera eramateko, kasu askotan kontzentrazio esparruetan beharrezkoak ziren azpiegituren eraikuntza giltzapetuen gain geratzen zen. Espetxeetan egindako lanen harira, espetxetan bertako tailerrak aipa daitezke, *Talleres Penitenciarios* zirelakoak alegia. Berezi emakumeen zuzendutakoak izaten ziren, eta bortxazko lanen gainontzeko modalitate ezberdinetan bezala, zigorraren zama bikoitza azaleratzen zuen. Zentzu honetan, Euskal Herriko kanpokoak bada ere, adierazgarria da oso Madrilgo Las Ventas espetxean zigoritutako emakumeen kasua, haiek josten baitzituzten armada frankista osatzen zuten soldaduentzako jantziak.

Esklabu-lanak eta Langile Batailoiak

1937 urteko *Decreto del Nuevo Estado*¹⁵ delakoa izan zen bortxazko lanen eta preso hartuko lan indararen erabilaren sistematizazioaren abiapuntua. Dekretu horren arabera, presoek lan egiteko eskubidea onartzen zitzaion; halere, horren atzetik, baziren bestelako asmoak. Aipatutako dekretuari loturik, eskubide moduan onartzen dena inposaketa hutsa bilakatu zen.

*El derecho al trabajo, que tienen todos los españoles como principio básico declarado en el punto quinto del programa de Falange Española Tradicionalista y de las JONS, no ha de ser regateado por el nuevo Estado a los prisioneros y presos rojos, en tanto que no se oponga, en su desarrollo, a las previsiones que en orden a vigilancia merecen quienes olvidaron los más elementales deberes del patriotismo.(...) Tal derecho al trabajo, viene presidido por la idea de derecho-función o de derecho-deber, y en lo preciso, de derecho obligación*¹⁶

Agintari frankistek bide bikoitza erabili zuten bortxazko lanak ezarri eta gizarteratzeko. Alde batetik, langile batailoien sorrera eta antolamendua unitate militar ezberdinen ardura eta gidaritzapean eta, bestetik, justifikazio ideologikoaren garapena eta hedapena. Modu berean, bortxazko lanen sistema bi arazori irtenbidea emateko aukera proposa bezala aurkeztu zen: preso kopuru altua eta espetxe edota kontzentrazio esparruen gainpopulatzeari alde batetik, eta, bestetik, Estatuaren egoera ekonomiko larria.

¹⁵ 1937ko maiatzaren onarturikoa, *Decreto del Nuevo Estado concediendo el derecho al trabajo a los prisioneros y presos políticos y fijando la justa remuneración a ese trabajo y su adecuada distribución* izeneko dekretua izan zen

¹⁶ Beaumont, E.; Mendiola, F.: “*Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad*”. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

Abstracción hecha de los prisioneros y presos sobre los que recaen acusaciones graves, cuyo régimen de custodia resulta incompatible con las concesiones que se proponen en el presente decreto, existen otros, en número considerable, que sin una imputación específica capaz de modificar su situación de simples prisioneros y presos les hace aptos para ser encausados en un sistema de trabajo que represente una positiva ventaja. (...) Sin embargo, la concesión de este derecho como expresión de facultad, en su ejercicio, podría implicar una concesión más sin eficacia, ante la pasividad que adoptasen sus titulares, dejando total o parcialmente incumplidos los fines que la declaración del derecho al trabajo supone, o sea, que pueden sustentarse por su propio esfuerzo, que presten el auxilio debido a su familia, y que no se constituyan en peso muerto sobre el erario público¹⁷

Helburu ezberdinen artean, politikoa, estrategiko-militarra zein ekonomikoa nabarmentzen dira, baita moral, erlijiozkoa eta ideologikoa ere.

...conseguir la corrección del prisionero, (...) , adquiriendo el hábito de la profunda disciplina, pronta obediencia y acatamiento al principio de autoridad, precisamente y muy especialmente en el trabajo.¹⁸

Askatasuna kendutako populazioari zigor moduan inposatutako esklabo lanak onartuak izateko diskurtsoaren garapena eta difusioa ezinbestekoa egin zen. Aipatutako dekretuak, esaterako, ideiak argi eta garbi aditzera ematen zuen diskurtso horren oinarrian ziren ideia nagusiak. Horiekin batera, jendarte mailako gutxiengo kontsentsu baten garapena erregimenaren biziraupenerako funtsezko oinarria daukagu, sendotasuna eskaintzen baitziion. Onarpena, jatorri ezberdineko erakunde eta pertsonak inplikatzekoan lortzen zen neurri handi batean. Kontsentsu hau ezinbestekoa izan zen erregimenaren aurkaritzat hartutako guztiari, oposizio politikoa zelakoari, bere osotasunean, talde bakoitzaren arabera errepresioa bideratu ahal izateko.

Hasiera bateko Langile Batailoak armadari atxikituta azaltzen zaizkigu, baina, hala ere, aipatu bezala, Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza edo ICCP delakoaren menpekoak ziren funtzionamendu administratibo eta fiskalizazioari zegokienean. Lehenengo batailoiek ejertzito nazionalaren sekzio eta gorputz ezberdinen laguntzaile funtzioa bete zuten. 1937tik aurrera, ordea, espezialisten batailoien sorrera etorri zen eta hauek erretagoardiako garrantzia handiko lan militarretan erabiliak izan ziren.

Gerrako presoek kopuruaren ugartzearekin batera, aipatutako dekretua onartu eta hilabete batzuk beranduago, inprobisaturiko kontzentrazio esparruak kontrolatu eta antolatzeke egitura egonkorra sortu zuen Francok, Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza, *Inspección de Campos de Concentración de Prisioneros* (ICCP) izenekoa alegia, gatibuak sailkatu eta lanean jartzeko asmoarekin. Kontzentrazio esparruetan eta haien inguruetan zenbait lan egin bazituzten ere, gune horien helburu nagusia gatibuen sailkapena izan zen. Mugimendu Nazionalaren aurkakoei, edo *desafectos* zirelakoei, eta zalantzekin aldekoak, edo *afectos dudosos* zirelakoei, zuzentzen zitzairen bortxazko lanen modalitate nagusia, Langile Batailoak edo *Batallones de Trabajadores* (BT) zirelakoetan, hain zuzen ere. Beraz, maiatzeko dekretuak eta gatibuen sailkapenerako aginduak bortxazko lanen modalitate ezberdinen oinarria ezarri zuten. Izan ere, talde honetara bideratzeaz gain, errepresio penalarren bidetik zigortutako preso multzo mugatu bati ere zuzendu baitzitzaion.¹⁹

Aipatutako araudian, *Reglamento para el Régimen Interno de Trabajadores* delakoan, batailoien osaketari ere erreferentzia egiten dio. Batailoi bakoitza 750 gizonaz osatzen zen, hauetatik 150 militarrek ziren eta gainontzeko 600ak zigortutakoak. Batailoi bakoitza 150 zigortutako lau konpainiatan banatzen zen, bakoitza zegozkion arduradun militar eta soldadu-zaindariekin.

Batailoi bakoitzari kokapen ofizial bat ezartzen zitzaion eta zigortutakoak herri bertako ezarmendu edo egoitzak erabiltzen zituzten. Era horretan, esklabo lanak, zigorra bera eta zigorrari beldurra bilakatu zitzaizkien egunerokotasun. Beste batzuetan, errepideak irekitzeko lanak burutzen zituzten eremuetatik gertu edota inguruetako barrerietan azaltzen zaizkigu, Oiartzunen esate baterako. Beste askotan, ordea, mendian bertan ezarritako barrakoi kanpamentuetan kokatuak izaten ziren, egoera tamalgarrian orokorki. Hala ere, leku batetik bestera mugitu ziren

17. Beaumont, E.; Mendiola, F.: *"Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad"*. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

18. *Reglamento de los Batallones de Trabajadores*, 1938. Iturria: AGMA. CGG,2, 155, 16.

19. Mendiola Gonzalo, F.: *Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe*. *Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962)* 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009

konpainia ezberdinak, lanaren beharrei egokituz. ICCP delakoari lotutako dokumentuen bitartez jakin daiteke langile batailoi ezberdinen kokapena 1939ko urtarrilaren 1ri dagokionean, baita hauek burututako lanen zerrendak ere.

2.4. BATAILOI MOTAK

Aipatutako ezberdintasunen arabera batailoi ezberdinak azaltzen zaizkigu garai edo errepresioaren fase ezberdinei loturik, baita errepresioaren izaeraren arabera ere. Modu berean, bortxazko lanetara zigortuak izan zirenen jatorria eta izaera ere ezberdina izan zen. Batzuk gerra frontearen gainean hartutakoak, besteak gerra frontetik urrun atxilotutakoak, etxean bertan edo beren lanpostuetan. Batzuk, erregimenarekiko aurkakotasuna zela eta atxilotutakoak, beste batzuk erregimenarekiko aldekatutasuna ez zelako frogatutzat eman. Fronte Popularra osatzen zuten erakundeetako jarraitzaileak izateagatik zigortutakoak azaltzen zaizkigu era berean, Tasa Fiskaltzak zigortutakoak alegia. Baita aurkarien familietakoak, gehienetan emaztea, anaia, edo seme-alabak eta, era berean, delitu bakartzat bizilagunen baten salaketak baino ez zituztenak ere.

Gerra bitarteko garaian sortu eta gerra amaitu eta urtebete beranduago arte luzatu ziren batailoien inguruko informazioari dagokionean, (Langile Batailoia, *Batallones de Trabajadores* edo BBTT direlakoak), Madrilgo Kontu Auzitegiko Artxiboaren kasuan, *Fondo de Campos de Concentración y Batallones de Trabajadores* delakoan gordetzen diren zenbait dokumentu, *Planas Mayores del Fondo de Campos de Concentración y Batallones de Trabajadores* direlakoak, batailoi ezberdinen kokapen ofizialari buruzko informazioa eskaintzen dute. *Plana Mayor* direlakoak batailoietako arduradun militarrek zein zaindariak eta, zuzendaritza zein sekzio administratiboa, bulegoak esaterako, osatzen zituzten (dokumentuek horiek kokatzen ziren lekuari egiten zioten erreferentzia). Izan ere, kontuan hartu beharra dago zenbaitetan batailoia osatzen zuen konpainiaren bat hauekin kokatzen bazen ere, oso normala zela konpainia ezberdinen kokalekua inguruko herrietan zehar finkaturik aurkitzea. Bestetik, Kontu Auzitegiaren Artxiboan *Inventario de Nóminas de Campos de Concentración y Batallones de Trabajadores* ere gordetzen dira.

Avilako Artxibo Militar Orokorren kasuan, *Inspección de Campos de Concentración de prisioneros* delakoari lotutako dokumentuen artean, urte ezberdinetako memoriak alderdi ezberdinen inguruko informazioa eskaintzen digute. Esaterako, batailoien sorrera prozesuaren ingurukoa, baita araudi eta barne funtzionamenduari buruzkoa ere, beste gauza askoren artean.

Azkenik, udal artxiboetako dokumentuen arteko informazioa aberatsa izan daiteke zenbait kasutan. Herria eta udalaren arabera ezberdintasun nabarmenekin, Lan-Batailoien inguruko mota ezberdinetako informazioa aurki daiteke. Informazio horren artean, garrantzia handikoak dira lan-batailoietan zigortutakoen izen abizenen zerrendak, *Lista* edota *Justificante de Revista* direlakoak hain zuzen ere (*ikus eranskinetan agiriak*).

Bortxazko lanen sistemaren berrantolaketa ondu sortutako batailoi berriei buruzko informazioari dagokionean, 1940an sortu eta aurrekoak ordezkatzera zetozen Langile soldaduen disziplina batailoia alegia, ondoko iturriak erabilgarriak izan daitezke.

Avilako Artxibo Militar Orokorren kasuan, *Jefatura de Campos de Concentración y Batallones Disciplinarios* delakoari loturik, *Informes de Inspección* direlakoak aurki daitezke, bertan alderdi ezberdinei buruzko informazioa eskaintzen da. Esate baterako, 1942. urterako batailoi ezberdinen kokapena, egoera orokorraren inguruko datuak eta abar. Bestetik, Guadalajarako Artxibo Militar Orokorren kasuan, lan-batailoietan zigortutakoen espediente pertsonalak aurki daitezke.

Azkenik, Udal Artxiboetan ere bada informazio interesgarria eskuratzeko aukera. 1940. urteko erroldak mota bereko informazioa eskaintzen digu zenbaitetan, batailoietan zigortutakoen izen-abizenen zerrendak gainontzeko informazioarekin osaturik, hain zuzen. Zenbait kasutan lan-batailoietan zigortutakoak ere erroldatzen zituzten, batailoien zenbakia zehazten ez bada ere. Bestetik, udaletako dokumentuen artean bestelako zerrendak ere topa daitezke, soldaduskarako deialdia zuzentzen zitzaion gasteak biltzen zituzten, zegoeneko langile Batailoietan zigortuak zeudenen zerrendak alegia. Hala ere, gogoratu behar da, ez dagoela beti ere jarraitzen zuten eredu zehatzik eta, askotan, herri batean modu zehatz batean dokumentatzen dena ez dela gainontzeko herrietan modu berean errepikatzen.

Zigortuen Destakamenduen inguruko informazioari dagokionean, alde batetik, *Dirección General de Prisiones* delakoaren urteroko memoriak dauzkagu. Bertan destakamendu ezberdinek burutako lanei buruzko datuak

eskura daitezke, besteak beste. Modu berean, Avilako Artxibo Militarrean *Comisión Permanente del Patronato Central de Rendición de Penas por Trabajo* zelakoaren akta liburuak destakamenduei buruzko bestelako informazioa eskaintzen digute, eta lan-indar esklaboaz profitatzen ziren erakunde zein enpresa pribatuen artxiboak ere iturri garrantzitsu ditugu.

2.4.1. • Langile batailoiak (1937-1940)

BBTT edo *Batallones de Trabajadores* direlakoak; “A-d” eta “B” moduan zigortutako gatibuekin osatutakoak. Gerra bitarteko garaian indarrean egon ziren, behin gerra amaituta, zigortuen kopuruari dagokionean unerik gorenakoa. 1940. urteko erdi aldera arte luzatu zen batailoi hauen ibilbidea, bortxazko lanen berrantolaketa prozesuaren baitan deseginak izan zirenean.

Langile Batailoietan 100.000 gatibu inguruk egin zuten lan, eta horietako gehienak aske geratu ziren 1940ko ekainean, batailoiak desegin zirenean. Hala ere, urtebete baino gutxiagoko zigorraldia zeramatenak Diziiplina Batailoien barne gelditu ziren, behin-behinean. Hilabeteotan jarri zen martxan batailoien birmoldaketa.²⁰ 1937 eta 1940 artean etengabe hazi zen gatibuen kopurua, hau da, gerra bitartean preso hartutako kopurua, Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritzaren ardurapean. Jabier Rodrigok argitaratutako datuen arabera, 34.000 gatibu izan ziren Langile Batailoietan zigortutakoak 1937ko urria aldera; 67.900, 1939ko urtarrilean, eta 90.000 gerraosteko lehen hilabetetan. Esan bezala, gerra garaiko bortxazko lanei dagokienez, modalitate hau garrantzitsuena daukagu, modu oso zabalean gairatzen baitu bide judizialaren bitartez lan egitera zigortuak izan zirenen kopurua.²¹

2.4.2. • Zigortuen destakamenduak (1938tik)

Gerra garaian ere, 1938an, bortxazko lanen beste modalitate esanguratsua martxan jarri zuen erregimen berriak, jadanik epaiturik eta zigorra betetzen ari ziren presoentzat diseinaturikoa. Milaka presok, bereziki zigortxikia zutenek, Lanaren bidez Zigorra Berrerosteko Sistemaren barrenean, edo *Sistema de Redención de Penas por el Trabajo* delakoaren bidez, hainbat lan egitera behartu zituzten, batez ere gerra ondoko urteetan. 1938tik 1943 arte, gero eta preso gehiagok hartu behar izan zuten parte sistema horretan, azken urte horretan kopuru gorena izan arte: 27.884 preso. Hurrengo urteetan kopuru hori poliki-poliki jaitsi egin zen. Sistema horren baitan, lana antolatzeke zenbait modalitate egon ziren: lehendabiziko urteetan *Colonias Penitenciarias Militarizadas* direlakoak, *Dirección General de Regiones Devastadas* delakoaren menpekoak, edota Espetxe Tailerrak. Ondorengo urteetan, bestelako formak hartu zituzten, 1995ean behin betiko ezabatuak izan ziren arte. Kontzentrazio eremuen egituraren menpe zeuden lanen kasuan ez bezala, honakoetan lanak enpresa pribatuek eraman zituzten aurrera, 1938an sortutako *Patronato de Nuestra Señora la Merced* delakoaren bidez estatuari presoak oso baldintza onetan kontratatuz.²²

Prada Rodríguez-ek eta Rodríguez Tejeirok aipaturiko datuen arabera, Lanaren bidez Zigorra Berrerosteko Sistemaren bitartez 12.781 presok parte hartzen zuten bortxazko lanen sisteman 1939. urtearen bukaera aldera. Gerra ondorengo garaian dagokionean, honako kopuruak aipatzen dira: 18.781 preso 1940 urtean, eta, 23.610 preso, 1942an.²³

2.4.3. • Langile Soldaduen Diziiplina Batailoiak (1940-1942)

Langile soldaduen diziiplina batailoiak, edo *Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores* (BDST) zirelakoak, aurreko batailoiak ordezkatu zituzten, bertako zigortuen zati bat bereganatuz. 1936. eta 1941. urte bitarteko deialdietako gazteei zuzentzen zitzairen. Hauetako gazte asko aurreko batailoietan ibilitakoak ziren, 1940. urtearen erdi aldera aske utzi zituzten gero, gutxira, berriz ere atxilotuak izateko. Gerraosteko batailoi hauek 1942an desegin zituzten.

20. Mendiola Gonzalo, F.: *Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe*. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962) 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009

21. Beaumont, E.; Mendiola, F.: “*Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad*”. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

22. Mendiola Gonzalo, F.: *Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe*. Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962) 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009

23. Beaumont, E.; Mendiola, F.: “*Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad*”. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

Lan-batailoien birmoldaketa prozesua, zerbitzu militarren inguruko araudiaren birmoldaketarekin batera iritsi zen, *Orden del 20 de diciembre de 1939 sobre Servicio Militar y Marina* zelako legearen bitartez. Azken horren arabera, 1915 eta 1920 bitartean jaiotako gazteek berriro egin beharko zuten soldaduska armada frankistan, aurretik Errepublikaren alde eginga baldin bazuten.

*Hoy en día se hallan presentes en filas los mozos pertenecientes a los reemplazos de los años 1938 a 1941, pero solamente la parte de ellos que se encontraba en la zona liberada durante el primer año de la campaña. Para normalizar el equitativo cumplimiento del servicio militar es indispensable proceder con urgencia a una rectificación de los alistamientos de los reemplazos correspondientes a los años de la guerra y a los que han adelantado su ingreso en el Ejército Nacional, verificando simultáneamente una clasificación de antecedentes personales en relación con nuestro Glorioso Movimiento*²⁴

Gazte horietako asko aldeztu aurretik Langile Batailoietan bortxazko lanetan ibilitakoak ziren eta, bigarren aldiz, irizpide politikoen arabera sailkatuak izan ziren. Aipatutako legearen 6. eta 7. artikuluetan zehaztutako irizpideen arabera, sailkapen horretan jarraitu beharreko prozesua azaltzen zen.

Para la clasificación provisional en los Ayuntamientos, por lo que se refiere a la conducta de los mozos comprendidos en los alistamientos indicados, se formará una comisión presidida por el Alcalde o concejal en quien este delegue, un representante de F. E. T. y de las J. O. N. S. solicitado por el Alcalde, y un tercer representante, perteneciente a la Guardia Civil, o un ex cautivo, o un ex combatiente, nombrados estos últimos también por el Alcalde. En las poblaciones de más de 5.000 habitantes, se agregará a dicha comisión un representante de la Autoridad militar regional de categoría de Teniente o Capitán, nombrado a petición del Alcalde por la expresada Autoridad Militar".

Prescindiendo de las diversas nomenclaturas establecidas sucesivamente, hasta la fecha, la clasificación se efectuará en lo sucesivo incluyendo a los individuos en uno de los siguientes tres apartados: AFECTOS, INDIFERENTES y DESAFECTOS. Esta última se expresará públicamente, y en las tarjetas de depuración, con una D.

ADICTOS: Se clasifican así a los que cuenten con algún antecedente favorable y ninguno desfavorable, considerando como favorables el haber pertenecido a organizaciones simpatizantes con el Glorioso Movimiento Nacional, o no haber pertenecido a ninguna, con buena conducta pública. Desfavorables, por el contrario, eran los de pertenecer en Julio de 1936 a los partidos, agrupaciones o asociaciones declaradas fuera de ley por el Artº 2º de la de Responsabilidades Políticas de 9 de Febrero de 1939, excepción hecha de los simples afiliados a organismos sindicales; o el haber manifestado su identificación con aquellos, exteriorizada con expresiones o actos, así como el haber servido voluntariamente en las filas rojas, si no se acredita haberlo efectuado con fines favorables al G.M.N.

INDIFERENTES: Se clasificarán así los que no cuenten con ningún antecedente favorable ni desfavorable, aún cuando hayan servido en las filas rojas con carácter forzoso, o que contando con antecedentes desfavorables, los favorables posteriores se consideren prueba suficiente de saneamiento en su anterior ideología.

DESAFECTOS: [Que en su documentación figurarán con una D] Los que se encuentran afectados por antecedentes desfavorables sin llegar a ser motivadores de su clasificación como ENCARTADOS.²⁵

Desafecto moduan sailkatuta, kontzentrazio esparruetara birbidaltzen zituzten gazteak, eta horrela osatzen zituzten erregimenak diseinatutako lan-batailoi berriak Soldadu Langileen Disziplina Batailoiak, edo *Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores* (BDST) zirelakoak. Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritza deseginda zen zegoeneko eta sortu berria zen *Jefatura de Batallones Disciplinarios y Campos de Concentración* zelakoaren menpe geratu ziren batailoi jaio berriak. Modu berean, Armadaren Ministerioaren menpe geratu zen erakunde berria. Eta aurretik Langile Batailoietan zigoriturik mantendu zituzten gazteak ere modu horretan sailkatuak izan ziren.

24. Beaumont, E.; Mendiola, F.: "Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad". RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

25. Beaumont, E.; Mendiola, F.: "Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad". RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

Los jefes de los Cuerpos armados, Campos de Concentración, Batallones de Trabajadores, Auditorías, Establecimientos Penitenciarios o de Beneficencia, etc, etc., bajo cuya autoridad se hallen individuos de cualquier categoría pertenecientes a los reemplazos de los años 1936 a 1941, ambos inclusive, redactarán inmediatamente y remitirán con toda urgencia a la Caja correspondiente un certificado para acreditar la presencia en los Cuerpos o Establecimientos de los individuos comprendidos en esta disposición.(...) Los jefes de todos los Batallones, Grupos u Unidades independientes de Trabajadores, reclamarán con la máxima diligencia, reiterando las peticiones, cuando sea necesario, los informes de la Guardia Civil, Ayuntamientos y Jefaturas Locales de F.E.T. y de las J.O.N.S., de los lugares en los que residían en Julio de 1936, correspondientes a todos los individuos de la Unidad de su mando comprendidos en los reemplazos de 1936 a 1941, teniendo en cuenta que, sin pretexto alguno, deberán encontrarse completos los expedientes y remitidos a esta Jefatura en la forma ordenada, precisamente antes del 1º de Abril próximo.²⁶

Gerra bitarteko bortxazko sistema bere horretan mantenduta ere, bazen ezberdintasun garrantzitsu bat: oraingoan soldadu deitura eransten zitzairen aipatutako aldaketaren adierazle gisa. Esan bezala, soldaduskarako adineko gazteak bilduko zituen, erregimenak ohiko soldaduskara bidali nahi ez zituen gazteak, alegia. Arrazoia, erregimenarekiko ez aldeko gisa sailkatuak izan zirela. Hortaz, erregimena ez zen horietaz fidatzen eta armen erabileran hezi eta formakuntza militarra eman beharrean, doktrinamendua ezarri zieten diziplina militarraz lagunduta. Era berean, bortxazko lanen formatuak gainontzeko biztanleriaren artean ere zigor potentzialaren eredua zabaltzeko tresna aproposa izaten jarraitu zuen, eta Soldadu Langileen Diziplina Batailoak sistema horren funtsezko pieza izan ziren. Modu horretan, bortxazko lanen sistemak jarraikortasuna ahalbideratzen zuen birmoldaketaren bitartez, eta gerra garaiko sistema juridiko-errepresiboaren biziraupena bermatu zuten behin gerra bukatuta ere.

Osozara, 45.000 gazte inguruk lan egin zuten Diziplina Batailoien sistema honetan antolatuz 1940ko uda aldetik 1942ko abendura bitartean. Ordurako BDST gehienak deseginak ziren, Zigortuak edo *Penados* zirelakoak izan ezik. Aipatutako jarraikortasuna agerian uzten zuen batailoak desegiten zituen legeak, *Orden del 28 de octubre de 1942* zelakoak. Izan ere, gazte hauen zorrak kitatu gabekoa izaten jarraitzen zuen oraindik, eta benetako askatasuna berreskuratu aurretik, urtebete gehiago emango zuten, bere zentzu militarrean, armada frankistan soldaduska egiten, 1943. urtearen bukaera aldera arte.

En 31 de diciembre del año actual quedarán disueltas la Jefatura de Campos y Batallones de Trabajadores, las Subinspecciones Regionales, los Hospitales de Zumaya y Pamplona, y el Depósito de concentración de Madrid. El depósito de Concentración de Miranda subsistirá, pasando a depender del Capitán General de la sexta Región. (...) El 15 de diciembre próximo quedará incorporado a las Unidades del Ejército el personal de los Batallones de Trabajadores, con excepción de los penados y de los sancionados por la Fiscalía de Tasas.²⁷

2.4.4. • Langile soldaduen diziplina batailoak [zigortuak] (1941-1948)

Soldadu Langileen Diziplina Batailoak sortu eta hurrengo urtera, bide judizialek zigortutako soldaduska adineko gazteekin azken batailoak osatu zituzten, Soldadu Langileen Diziplina Batailoak (Zigortuak) edo *Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores* (Penados) zirelakoak, hain zuzen. Beranduago sortuko baziren ere, aurreko batailoien ezaugarri berak azaltzen zituzten, hori bai, ezberdintasun nabarmen batekin: marko judizialaren bidetik delitu zehatza leporatzen zitzairen epaitu eta kondenatutako gazteak ziren (soldaduska adinean zeuden gazteak izango ziren hauek ere). Bestetik, Fiscalía Superior de Tasas delakoak zigortutakoak bilduko zituen.

Soldadu Langileen Diziplina Batailoak (Zigortuak), esan bezala, baldintzapeko askatasunean gelditu berriak ziren gazte presoentzat antolatu ziren, 1941etik aurrera jarri ziren abian *Orden del 21 de agosto de 1942* izeneko ordena onartzearekin bat. Batailoi hauek osatzeko, 1936-1942 urte bitarteko kintetako gazteak bildu zituzten, aurretik zehaztutako irizpideen arabera. Oraindik bizirik ziren Miranda de Ebro, Reus eta Madrilgo Miguel de Unamuno kontzentrazio esparruetan pilatu zituzten ondoren *desafecto* moduan sailkatutakoak eta bertatik batailoi diziplinarioetara bidali zituzten.

²⁶. Beaumont, E.; Mendiola, F.: *"Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad"*. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)


²⁷. Beaumont, E.; Mendiola, F.: *"Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad"*. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

Los mozos clasificados “separados temporalmente fuera del contingente” por estar sufriendo condena que cumplan antes de los 45 años de edad, si son puestos en libertad antes de cumplir la edad de 30 años y han observado buena conducta serán destinados a los Cuerpos del Ejército de Tierra y Aire que les corresponda. Los que sean puestos en libertad después de haber cumplido la edad de 30 años, que hayan observado mala conducta, serán destinados a Batallones disciplinarios o de Trabajadores.²⁸

2.5. BORTXAZKO LANEN INGURUKO IKUSPEGI OROKORRA²⁹

Bortxazko lanen alde ideologiko-soziala eta politiko-militarra behin aztertuta, garrantzitsua da arlo ekonomikoan izan zuten eraginaren aldetik hurbiltze bat egitea. Hego Euskal Herriari dagokionean bortxazko lanak erretaguardiako behar militarrek asetzera bereziki bideratutakoak izan baziren ere, azken urteotako ikerlanak kontutan hartuta, gerra eta gerra osteko ekonomian bortxazko lanen eragina esanguratsua izan zela pentsa daiteke.

Giltzapetuen lan indarraren erabilera gerra garaian eta gerra ostean giltzapetuen lan indarraren erabilera³⁰



Kontzentrazio Eremuen egituraren menpeko lanak:

- Batallones de Trabajadores -BB.TT.- (1937-1940). Erregimen aurkakotzat (desafekto) edo "aldekoak, zalantzekin" sailkatutako prisioneroak.
- Industrias Militarizadas y Batallones Mineros: sailkapen bereko prisioneroak.
- BOST: (1940-1942). 1915 eta 1920 bitarte jaiotako gazteak, erregimenaren aurkakotzat sailkatutak.
- BOST (Penados). 1915 eta 1920 bitarte jaiotakoak, baldintzapeko askatasunean.

Lanaren Bidez Zigorra Berrerosteko Sistemaren menpeko lanak:

- Colonias Penitenciarias Militarizadas, Nazioaren intereseko moduan izendaturiko obretan.
- Dirección General de Regiones Devastadas (1938-1957): batez ere gerraren ondorioz egin beharreko berreraikitze lanak.
- Destinos y Talleres Penitenciarios: kartzelen barnean antolatutako lanak.
- Destacamentos Penales, zenbait enpresari edo erakunderi "alokaturiko" langileak.

Sektore ekonomiko ezberdinei loturik azaltzen zaigu giltzapetuen lana, momentuko behar beliko eta ekonomikoen arabera egokitutakoa izanik. Herrialde ezberdinei dagokienean, ezberdintasun nabarmenak aurki daitezke bai erabilitako lan indarraren aldetik, baita garrantzitsuak izan ziren lan sektoreen aldetik ere. Esan bezala, gutxienez 36.000 gatibu aritu ziren esklabo moduan lan mota ezberdinetan. Horietatik %58a, arlo militarri lotutako lanetan aritu zen. Lan militarren artean, bi arlo ezberdin daitezke. Alde batetik, gotortze lanekin lotutakoak eta bestetik, mendiko errepideen irekitze eta eraikitze lanekin lotutakoak. Izan ere, bortxazko lanek izandako eragina baloratzeko orduan, kontutan hartzeko modukoa litzateke izaera militarreko errepideei esaterako, erabilera zibila emango zitzaiola denbora pasa ahala, eta, horren ondorioz, eragin nabarmenagoa izango zutela jarduera ekonomikoari zegokionean.

28. Beaumont, E.; Mendiola, F.: "Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad". RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

29. Atal honetan erabilitako informazioa, bai datuak baita taulak eta grafikoak ere, kontrakoa adierazten ez denean, Fernando Mendiola-ren *El impacto de los trabajos forzados en la economía vasco-navarra (1937-1945)* artikulitik ateratakoak dira.

F. Mendiola: *El impacto de los trabajos forzados en la economía vasco-navarra (1937-1945)*. Investigaciones de Historia Económica 8 (2012)

30. Iturria: F. Mendiola, E. Beaumont: *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Txalaparta. 2006, Tafalla

Mendiola, F.: *Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak*. Bortxazko lanak diktadura frankistan. Memoriaren Bideak-Geronimo de Ustariz Institutua. 2007, Iruñea.

Beste arloetako jarduera askotan ere erabili zen gatibuen lan-indarra, eta herrialde ezberdinen ekonomian modu bateko edo besteko eragina izan zuen, baita erregimenaren diru-sarreretan ere. Garrantzia handia izan zuen bestelako garraiobide edo azpiegiturei lotutako lanetan ere, hala nola trenbidea eta aireportuen kasuan, Euskal Herriari dagokionean, aipatutako bi sektore horien artean 5.000 preso edota gatibu inguru aurki ditza-kegu esklabo-lanetan. Gerran zehar suntsitutako hiri edota azpiegituren berreraikuntza lan zibilen kasuan ere, bortxazko lanen sistemaren bidez aurrera eramandako lanek beren garrantzia izan zuten.

Gaiaren inguruko dokumentazioaren artean zehaztu gabeko bestelako lan militarrei ere erreferentzia egi-ten zaie: 4.000 gatibu inguru aritu ziren lan horietan. Modu eta kopuru apalago batean lan-indar esklaboaren presentzia beste hainbat sektoretan dokumentatu izan da, hala nola meatzaritza zein industria arlotako lanei loturik, edo (Nafarroari dagokionez behintzat) lan hidraulikoei loturik. Azkenik, espetxe barneko tailerretako zein kontzentrazio esparru edota espetxeetako azpiegituren berrikuntza edo eraikuntzarekin lotutako lan esporadiko edo islatuak aipatu behar ditugu.

Bortxazko lanetan aritutako preso eta gatibuak Hego Euskal Herrian³¹

	Bizkaia	Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Euskal Herria
Lan hidraulikoak				550	550
Hirietako berreraikuntza	1.146		366	373	1.686
Lanak					
Aireportuak	1.636				1.636
Meatzaritza	968				968
Mugalde eta kostaldetako	927		7.378	13.143	21.448
Lanak					
Hainbat lan militar eta	2.670	1.627	294	887	5.468
beste ezezagun batzuk					
Burdinbidea	66	125		3.258	3.449
Errepideak			125		125
Industria	421		110	27	558
Espetxe barneko tailerrak	168		91	20	267
Oso-tara	7.992	1.752	8.36	48.059	36.137


Iturri ezberdinetako datuek aditzera ematen dutenaren arabera, lan indar esklaboaren erabilerari dago-kionean, 1939-1940 urteak bitartekoa izan zen unerik gorena, edo garairik oparoena. Langile kontzentrazio



³¹. Koadro honetan behin baino ez da zenbatzen batailoi bakoitza, nahiz eta obra ezberdinetan aritu. Gainera, ez daude zenbatuak BD 7 eta BD 81eko partaideak, lehenago beste batailoietan ere arituak baitziren lanean Hego Euskal Herrian. Horregatik geroago agertuko diren hainbat koadrotan kopuru ezberdinak jasotzen dira, prisionero berberak, eta batzuetan batailoi berberak, lan ezberdinetan aritu zirelako.

mailarik altuena ere orduan gertatu zen, Gipuzkoa eta Nafarroaren kasuan, kopuruak 6.600 eta 13.400tik gorakoak izanik hurrenez hurren. Langile batailoien lehen urteei dagokienean, ordea, Nafarroan eta bereziki Bizkaian jasotzen da bortxazko lanen presentzia. Araba eta Gipuzkoan fenomenoak ezezaguna zen oraindik 1937an; 1938an Gipuzkoan agertu ziren lehengo aldiz, eta Araban oraindik ere ezezagunak ziren. Herrialde honetan 1941-1942 urteen bitarteko garaian bortxazko lanen presentzia gero eta txikiagoa izan zen. Ez ordea, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta nolabaiteko hazkundea nabarmendu daiteke bertan aritu zen zigortuen kopuruen aldetik. 1943tik aurrera, oro har, lan-indar esklaboaren garrantzia apalagoa izan zen, baita langile batailoien presentzia, ia-ia desagertzeraino murriztu zelarik.

Esklaboen kopurua frankismoan, urtez urte (1937-1945)



Aipatutako sektore ekonomikoen azterketari dagokienean honako alderdiak nabarmendu daitezke. 1937ko udan, frankistek Bizkaia hartu bezain laster, Bizkaiko Meatzaldea, ICCP delakoaren planetan aipatzen zen, bortxazko lanen antolaketa eztabaidatzen hasi zen momentu berean. Garaipen garrantzitsua izan zen Bizkaiko matxinatuentzat, euskal lurraldearen azken muturra galtzarekin batera, horren garrantzia handikoak ziren ez-kerraldeko industria eta meategiak galtzen baitziren. Izan ere, ezinbestekoak baitziren matxinatuen gerra-ekonomiaren berpiztea sustatzeko orduan. Helburu horretarako prest azaldu ziren enpresariak, agintari berriekin hitzarmenak egin eta gerratik etekin ekonomikoa ateratzeko saiakerari ekin zioten. Meatzaritza sektore estrategikoa izanik, 1937. urtean bertan lan-indar esklaboaren erabilera bultzatu eta martxan jarri zuten. Bizkaiko Meategi Ganbara eta Prisioneroen Kontzentrazio Eremuen Ikuskaritzaren plan berria zehaztu zutelarik.

Plan horren arabera, urtero 1.700.000 burdina tona atera ziren, eta horietatik 1.400.000 tona esportatu. Horien trukean, milioi bat libera esterlina jaso zituen Espainiar Estatuak. Bertan, 3.000 gatiburen beharra aipatzen zuten. Camara Minera zelakoaren kontu geratu ziren barrakoietan pilatutako giltzapetuen alojamendua eta abarreko gastuak. Planak aurreikusten zuen, urriaren 1rako, Bilbon, 200 gatibu egongo zirela, aurrerantz, 100 gehiago aste bakoitzeko. Era berean, Estatuarentzako onura eta etekin handiak aurreikusten ziren. Enpresek beste langileei ordaintzen zieten kopuru berbera ordaindu behar zioten Estatuari esklabo bakoitzaren lanaren trukean. Plana bultzatu zuen Batzorde Teknikoaren arabera, horren ondorioz hilero 400.000 pezetako alde etekin garbia geldituko zitzaion Estatuari.

Bortxazko lanen erabileraren justifikazioari erreferentzia egiten dioten dokumentuetako adierazpen esanguratsuak jaso ditu Fernando Mendiola, eta horiek guztiek giltzapetuen esplotazioari lotutako alderdi garrantzitsu ezberdinak mahai gainarazten dituzte. Alde batetik, lanerako egoera egokian zegoen lan-eskuaren beharra. Bestetik, aurreikusitako interesekin, bortxazko lanen sistemaren bitartez, esperientzia beste lan arlo batzuetara zabaltzeko aukera azaltzen da, hala sistemaren garrantzia bera aditzera emanez. Etekin ekonomikoei loturik, era berean, ekoizpenaren zati bat esportatzeko aukera ikusten zen. Izan ere, denbora pasa ahala bortxazko lanen sistemaren bitartez iristen zen langile kopuruaren etengabeko murrizketak aditzera eman dezake lortutako etekinak ez zirela izango hasiera batean aurreikusten zirenak.

Euskal industriari dagokionean, gatibuen lan-indarra eskulanaren urritasunari irtenbidea emateko aukera aproposa bilakatu zen. 1938ko maiatzaren 13an, militarizatuak enpresentzako araudiak argia ikusi zuen, modu horretan giltzapetuen lana antolatzeko. Industria militarizatuaren sistema gerraostean bertan behera utzia zuten, Lanaren bidez Zigorra Berrerosteko Sistema delakoaren bidez sistema birmoldatuta. Sestaoko Babcock Wilcox enpresa aldaketa horren adibide argia daukagu. Testuinguru horretan, Bizkaiko enpresariak industria martxan jartzeari lehentasuna eman zioten, militar matxinatuekiko gertutasuna zela-eta, edota, harago, gerra industriak eskaintzen zizkien etekin ekonomikoak zirela-eta.

Asko izan ziren lan-indar esklaboaz baliatu ziren industriak. Bizkaian garrantzi berezia izan zuten Sestaoko La Naval eta Babcock Wilcox, eta Galdakaoko Dinamita lantegiek. Gipuzkoan, berriz, Arroako porlan-lantegiak, baita Sorluzeko S.A. Placencia de las Armas kalibre txikiko munizioa egiten zuenak ere. Guztira, 500 langile baino zertxobait gehiago aritu ziren aipatutako lantegietan, baita modu apalago batean beste lantegi batzuetan ere. Aipatutako zigortuen erdia, 229 hain zuzen ere, Sestaoko La Naval ontzioletan aritu ziren lanean. Gerrarako ekoizpenari bideratutako industriari dagokionean, adibide interesgarri bezain ezezagunen artean, Nafarroako Erriberan kasuan, Korteseko arma kimikoen lantegia aipa daiteke, ekoizpen eta ikerketari zuzendutakoa enpresa zen, eta, han ere frankismoaren esklaboek lan egin zuten.

Euskal industriaren kasuan, burdingintzaren arloa nabarmendu zen bereziki presoen lanaren erabilerari zegokionez. Hala ere, erabilitako lan-indar esklaboaren kopuruei begiratuta, ematen du lan-esku kualifikatuaren erabilerara mugatu zela batez ere. Garaiko lan-eskuaren urritasuna kontutan hartuta, pentsa daiteke enpresariak nahiago izan zutela lan merkatu arruntera jotzea beren langileak aukeratzeko orduan. Izan ere, frankismoak goitik bera eraldatu zuen lan merkatuaren zein langileria eta kapitalaren arteko indar korrelazioa. Askatasun sindikala erabat ezabatuta eta langileen borroka desagerrarazita eta, are gehiago, asteko lan-orduen luzapena eta soldaten jaitsiera kontutan hartuta, ez da harritzeko modukoa, gatazka sozialik gabeko egoera horretan, euskal enpresariak lan-esku librea kontratatzea lehenetsi izana. Ez da ahaztu behar goseak, nekeak eta gaixotasunak definitzen zutela zigortuen destakamendu eta langile batailoietako bortxazko langileen egunerokotasuna. Horri guztiari, iraina, umilazioa eta zigorra eransten zitzaion. Eta, azken finean, era guztietako miseriak bizi izanak, bortxazko lanetara zigortutako egoera baldarra lanerako ez egokia egiten zuen. Hala, langile libre eta kualifikatuaren errendimenduarekin parekatuta bortxazko lanetara zigortutakoak ez ziren izan aukera errentagarria euskal enpresariarentzat.

Preso eta gatibuen lan-indarraren erabilera euskal lantegietan

Lantegia	Herria	Herrialdea	Urtea	Zigortuak
Forja Amorebieta				
S.E. Construcción Naval	Sestao	Bizkaia	1938-39	229
Astilleros de Sestao y Nervión				
Babcock Wilcox	Sestao	Bizkaia	1938-40	50
General Eléctrica Española	Sestao	Bizkaia	1938-39	2
Star	Bilbo	Bizkaia	1938-39	5
Talleres Zorrozaurre	Bilbo	Bizkaia	1938	7
Fundiciones y Talleres Olma	Bilbo	Bizkaia	1938	11
Basabe y Cía	Erandio	Bizkaia	1938	7
S.E. Dinamita	Galdako	Bizkaia	1938	84
Star	Gernika	Bizkaia	1938	5
Cándido Echeandía Industria Militarizada		Bizkaia	1938	3
Hijos Ortiz de Zarate	Durango	Bizkaia	1938	7

Offset	Donostia	Gipuzkoa	1938	6
S.A. Placencia de las Armas	Andoain	Gipuzkoa	1938	36
Fundiciones Pío Sarralde	Zumarraga	Gipuzkoa	1938	3
Porlana lantegia				
(Ferrocarriles y Construcciones ABC)	Arroa	Gipuzkoa	1938	60
Star	Eibar	Gipuzkoa	1938	5
Arma Kimika Lantegia	Kortes	Nafarroa	1938	17
Múgica, Arellano y Cia.	Iruñea	Nafarroa	1944	10

Garraiobide eta azpiegitura zibilen eraikuntzari lotutako lanei dagokienean, garaiko agintariek azaldu zuten interesa nabarmendu daiteke. Ekonomia berrabiarazteko orduan garrantzia handiko osagaiak ziren eta, hortaz, estatu mailako garraiobide eta azpiegituren sarea osatu eta garatzeari lehentasuna eman zitzaion. Sondikako aireportuaren eraikuntza kasu ezagunetarikoa daukagu, milaka langiletik gora bildu baitzituen urtetan zehar. Izan ere, ikuspegi ekonomikotik, errepideez gain, berebiziko garrantzia izan baitzuen trenbideak. Burdinbidearen eraikuntza lanetan zein lan hidraulikoetan ibili ziren giltzapetuen lana zenbait kasutan esanguratsua litzateke, kopuruak, osotara, apalagoak baldin badira ere.

Garraiobideari lotutako azpiegituren kasuan, nabarmentzekoa da burdinbidean aritutako gatibu kopuru altua. Olaizolaren ikerketan aditzera ematen denaren arabera, gerraostean 3.178 presok, Lanaren bidez Zigorra Berrerosteko Sistemaren bitartez antolatutik, bidea ireki eta burdinbidearen azpiegiturari lotutako lanetan aritu ziren. Hala ere, Mendiolaren iritziz, Olaizolaren ikerketetan agertzen diren horiez gain, bestelako lan ugari ere egin ziren gerra garaian edota gerraostean hainbat Langile Batailoiak baliatuz, gutxienez 5.197 gatibu aritu zirelarik lan hauetan, eta, modu berean, BDST (P) 95 delakoarekin. Gerra-garaiko burdinbideen kasuan, egiteke legoke *Batallones de Ferrocarriles* zirelakoek egindako lanaren inguruko azterketa, lan hauetan parte hartu zuten gatibuen kopurua zehaztea zaila bada ere. Gerra bitartean, askotan eta denbora gutxira lekualdatzen baitzituzten gatibuak, behar belikoen arabera, alegia. Gerra osteko lanak, berriz, ezagunagoak dira.

Hego Euskal Herriari dagokionean, lurraldea zeharkatzen zuten bi lerro estrategikotan aritu ziren gatibuak lanean. Alde batetik, Altsasu eta Miranda de Ebro artekoan eta, bestetik, Nafarroako Erribera zeharkatzen zutenari zegokion adarrean, Ebro ibaiaren parean luzatzen zen horretan. Bi lerro hauek irekita zeuden zegoeneko, baina gerra eta gerraosteko urteotan Langile Batailoietak zigortuek bide bikoitza zelakoa ezarri zuten. Ebro haraneko lerroan milaka gatibu aritu ziren bortxazko lanetan, oraindik kopurua zehazteke dagoen arren. Irun-Madril lerroan, Altsasun hain zuzen ere, 149. eta 151. batailoiak finkaturik azaltzen zaizkigu 1938 eta 1940 bitartean eta, gainontzeko beste batailoi bat, BDST (P) 95 delakoa, Altsasu eta Agurain artean kokaturik 1942 eta 1943 urteak bitartean. Gatibuen lana funtsezkoa izan zen Iratiko burdinbideari lotutako lanetan ere. Lan horiek Langile Batailoiak egindako lehen lanen artean aipatu ziren 1938an. Sukarrieta eta Bermeo arteko trenbideari lotutako lanak ere aipa daitezke, gerra bukatu eta 14 urte beranduago egin bazuten ere bertan 60 presok hartu zuten parte. Kasu honetan, aipatutakoak lan zibilak izanik ere, helburu militar argia azalerazten zuten gerra garaian, soldaduak eta gerrarako materiala azkar garraiatu ahal izateko, alegia. Industria eta meatzaritzaren kasuan ez bezala, inbertsio ekonomiko handia eskatzen zuten azpiegitura handiek, bortxazko lanen bitartez enplegatutako ia doako lan-eskuaren erabilerak berak baimendu zuen obra edota proiektu asko aurrera eraman ahal izana. Argi eta garbi, halako lanak finantzatzea ezinezkoa egingo litzaioke Estatuari langile eta merkatu librea jo izanez gero.

Burdinbidean aritutako gatibu kopurua Hego Euskal Herrian

	Urteak	Langile kopurua
Castejón – Ribaforada - Cortes	1938 – 1940	1.500 - 3.600
Altsatsu – Ziordia - Agurain		
Bermeo – Sukarrieta	1953 – 1958	60
Irati trenbidea Iruñean	1938	

Aireportuei lotutako lanei dagokienean, Sondikakoa daukagu garrantzitsuena, baina ez bakarra. Gaur egun ere erabilera militarra duen Ablitaseko aerodromoan, 63. Langile Batailoiko hainbat gatibu lanean aritu ziren gerra garaian. Sondikako aireportuaren kasuan, ordea, bertan aritutako zigortuen kopurua esanguratsua izan zen. Gutxienez 1.636 gatibu aritu ziren bertan 1939 eta 1944 bitartean, mota ezberdinetako batailoietan, Langile Batailoiak, Soldadu Langileen Diziiplina Batailoietan eta zigortuen destakamenduetan alegia.

Hego Euskal Herriko aireportuetan aritutako preso eta prisioneroak

	Aireportua	Urteak	Langileak
BB.TT. 126	Sondika	1939 – 1940	756
BDST 30	Sondika	1940 – 1942	745
Destacamento de Redención de Penas (Dirección General de Infraestructuras)	Sondika	1944	136
Sondika osotara	Sondika	1939 – 1944	1.636
BB.TT. 63	Ablitas	1937 – 1939	Ezezaguna

Bortxazko lanen sistemari loturik, lan hidraulikoei dagokienean, Ebro ibaiaren arroan burututakoak garrantzitsu eta ugariak izan ziren, eta Aragoi ibaiaren kasuan ere aipatzeko modukoak lirateke Esako urtegiko lanak. Lan hidrauliko gehienek, urtegiak gain, ureztatze-sare zabala eraikitze lanak ere aurreikusten zituzten, hala nola Bardeetako Ubideari lotutakoak. Hauek guztiak Lanaren bidez Zigorra Berrerosteko Sistemaren bitartez antolatu ziren. Modu berean antolatutakoak izan ziren hirietako kanalizazio lanak, Irun eta Errenterian egindakoak esate baterako. Avilako Artxibo Militarrean ubide eta kanalizazioei buruzko dokumentazioak Kortez, Alesbes edota Tuteran kokatzen dituzte aipatutako lanetan aritu ziren batailoi eta destakamenduak. Azpimarratzeko modukoa litzateke mota horretako lanetan herrietako agintari eta lurjabeek izandako inplikazioa.

Eraikuntza eta berreraikuntzari lotutako lanen kasuan, Euskal Herriko hainbat herritan dokumentatzen da erregimenaren esklaboen lana, gutxienez 1.505 gatibu aritu ziren hainbat herritako berreraikuntza-lanetan. Horien artean, zalantzarik gabe, Gernika izan zen kasurik adierazgarriena. Herriak esanahi berezia zuen frankistentzat, Mendiolaren hitzetan, herriko suntsipena errepublikaren defendatzaileei leporatu baitzieten agintari faxistek, eta, hori zela eta, hiri horretako berreraikuntza-lanetan gutxienez 182 preso erabiltzeak eskarmentuaren esanahia gehitzen zion zigorrari. Harago, Gernikan ez ezik, Zornotzan giltzapetuek hainbat etxebizitza, apaizetxea eta autobus-geltokia eraikitze lanak burutu zituzten; Bilbon, zehaztu gabeko herri lanak. Modu berean, langile batailoiak Ondarroako zubietako konpontze lanetan ibili ziren, baita Durango, Orozko, Lezama, Mungia eta Eibarko berreraikuntza lanetako zenbait obratan eta Donostia zein Zumarragako hiri barneko etorbide banaren eraikuntza lanetan ere. Portugaletako Hotelaren berreraikuntza lanetan edota Bermeoko portuan ere bai. Azkenik, aipa daiteke Tuteran badela beste kasu bat: oraindik ikertzeko badago ere, ahozko testigantzek aipatzen duten legeaz, langile batailoietako gatibuek eraiki zuten herri ondoko tontor batean dagoen Jesukristoren estatua handia.

Gatibuek egindako eraikitze eta berreraikitze lanak Hego Euskal Herrian

	Herria	Data	Gatibuak
Etxebizitzak, apaizetxea, autobus geltokia	Amorebieta	1938-1945	146
Kaiko harri-lubetak	Bermeo	1962	87
Herri-lanak	Bilbo	1938	400
Berreraikitze-lanak	Durango	1938	122
Berreraikitze-lanak	Gernika	1942	182
Berreraikitze-lanak	Lezama	1938-1939	74
Berreraikitze-lanak	Mungia	1938-1939	85
Zubi bat berreraiki	Ondarroa	1939	ezezaguna
Berreraikitze-lanak	Orozko	1938	50
Hotelaren berreraikitzea	Portugalete		ezezaguna
Herri-lanak	Eibar	1942	125
Etorbide baten eraikuntza	Zumarraga	1942-1944	60
Monumentu erlijiosoa	Tutera	1939 ?	ezezaguna
Udalak enkargaturiko zenbait lan	Alesbes	1938	174
OSOTARA		1938-1962	1.505

Azkenik, gotortze lanei eta mendiko errepideen irekierari dagokionean, pentsa daiteke, enplegatutako lan indarrari begira, agintari eta militar frankistek gainontzeko egin behar guztien aurretik lehentasuna eman zieten, eta ez da harritzekoa. Bigarren Mundu Gerra jokoan zen oraindik, eta, erresistentzia antifrankistak pentsatu izan zuen antzera, potentzia demokratikoek erregimenaren aurka egin zezaketela pentsatzen zuten agintari frankistek. Horren ondorioz, hil ala bizikoa bilakatu zen erregimenarentzat ustezko kanpo eraso baten aurreko defentsa bermatzea. Aitzakia horrekin, mugetako gotortze plan zabalaren diseinua agintari militarren esku utzi zen. Eta, horrela, bide batez, barne erresistentziaren indartze potentzialari bidea itxi zitzaion. Frankistek jakin bazekiten mugaren beste aldean, gerraren amaierarekin batera alde egitea lortu zutenen arteko asko eta askok kontraerasoan itzultzeko asmoa zutela. Euskal Herriari zegokionez, kostaldean zein Pirinio Mendietan abiatu ziren gotortze lanak. Azken gune hau, Pirinioetakoa alegia, Estatu mailan garatutako planaren barnean, garrantzia handiko eremutzat hartu zen. Mendiolaren arabera, gerra bukatu bezain pronto Pirinioen gotortzea defentsa estrategiaren arreta-gune nagusienetakoa bilakatu zen.

Ildo horretan, abian zen erakunde militarren berrantolaketaekin batera, *Junta de Defensa y Armamento de los Pirineos Occidentales* delakoa sortu zen eta, horren esku, *Plan de Defensa y Fortificación de los Pirineos Occidentales* delako defentsa planera iritsi zen. Planak aurreikusten zuena gauzatzera bideratu zen une horretan, gerra bukatutakoan alegia, kontzentrazio esparruetan gainezka egiten zuen biztanleriaren lan-indarra. Guztira, 1939. eta 1945. urteak bitartean, 20.000 gatibu inguru aritu ziren gotortze lanetan -errepideen irekiera barne- hainbat batailoitan, Nafarroa eta Gipuzkoako muga lerroan zeharreko zenbait herritan finkaturik. Aipatu bezala, Gipuzkoaren kasuan bereziki, zaila da gotortze lanen eta errepideen irekierari lotutako lanen artean bereiztea eta, beraz, zaila da jakitea zein izan zen batailo bakoitzak egindako lana. Gorde den dokumentazioan, *Plana Mayor* zelakoaren kokagunea baino ez da azaltzen. Nafarroaren kasuan, ordea, Edurne Beaumont eta Fernando Mendiolaren lanari esker, hobe ezagutzen dira lan horien inguruko alderdiak.

Izan ere, arlo militarreko lan hauen garrantzia ez da arlo ekonomikoan izango zituen etekinetan bilatu behar, gerora erabilera zibila eman bazitzaien ere. Oraingoan ere, lan paradigmatikoa izango zen honako hau, lan-indar esklaboa erabili ezean aurrera eramateko ezinezkoa, bai lan-eskuaren urritasuna zela eta, baina baita lanak beharko zukeen inbertsioagatik ere. Aipatutako lanek etekin ekonomikorik ekarri ez bazuten ere, erregimenaren babesa bermatzeko meritua zeukaten, garaituen lanari esker eta umiliazioaren bitartez.

Nafarroa izan zen gotortze lanetan gatibu gehien jaso zuen lurraldea, 13.000 mila inguru hain zuzen ere. Gipuzkoan, 7.000tik gora aritu ziren muga gotortzeko lanetan. Bizkaian, gutxiago izan ziren ordea, momentuz batailo bakarra besterik ez da dokumentatu: kostaldeko gotortze lanetan aritu zena, Getxotik Plentziarainoko kostalde lerroan alegia.

Kostalde eta mugaldeko gotortze-lanetan aritutako gatibu kopurua, eskualdeka

Eskualdea	Urteak	Gatibu kopurua
Bizkaia	1941-1942	927
Gipuzkoa	1939-1942	7.378
Nafarroa	1939-1945	13.143

Langile Batailoien araudiak aditzera ematen duenez, bortxazko lanen helburu garrantzitsuena errepresaliatuen erabilera ekonomikoa zen, arlo zibil zein militarrean. Izan ere, kontuan hartu behar dugu zaila dela arloen arteko erabateko bereizketa egitea, are gehiago gerra bitartean, politika ekonomikoa irizpide militarista-belizistetan erroterikoa izanik. Mendiolaren iritziz, eztaba daezina litzateke bortxazko lanek ekonomia mailan izandako eragina ekonomia frankistaren balantze negatiboak arintzeko orduan. Zalantzarik gabe, bortxazko lanen erabilerak baimendu zuen neurri oso handi batean horren tamainako azpiegitura militar zein zibilak aurrera eramanez ahal izana.³²

32. Mendiola, F.: *Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak*. BORTXAZKO LANAK DIKTADURA FRANKISTAN. Memoriaren Bideak, Instituto Gerónimo Ustariz. Iruñea, 2007.

2.6. BORTXAZKO LANAK GIPUZKOAKO ERREPIDEETAN: GOTORTZE LANAK ETA ERREPIDE MILITARREN IREKIERA

1937an, gerrak luzera joko zuela zirudien jada. Garai horietan, eta baita aurretik ere, hasi ziren mugetako arazoa bezala ikusten zenari irtenbidea bilatzen, mugaren gotortzea garrantzia handiko faktorea baitzen altxatutakoek ezarri berri zuten erregimenaren babeserako. Mugaren gaineko kontrola eta horren itxierarekin batera, errepublikanoek jaso zezaketen kanpo laguntzari bidea ixten zitzaion. Hala, mugaren gotortzea botere frankistaren ezarpeneko lehen neurrien artekoa daukagu eta helburu horri lehentasuna emango zioten autoritate frankistek.

Urte horretan bertan sortu zen *Inspección General de la Organización Defensiva de la Frontera Pirenaica* delakoa. Aurretik, gerra hasi eta sei hilabetetara, iritsiak ziren muga gotortzeko egitasmoaren inguruko lehenengo disposizioak, 1936an bertan hain zuzen Nafarroa eta Gipuzkoaren kasuan. Horien arabera, muga eremua eta inguruaren ezaugarri ezberdinen ikerketaz gain, defentsarako plan bat aurrera eramatea ere aurreikusten zen. Bertan jarraitu beharreko jokabidearen irizpideak eta obretarako egitasmoak definituko ziren, muga-lerroan zehar gotorleku sare sendoaren eraikuntza eta hauek elkarrekin komunikatzeko izaera militarreko errepide taktiko eta estrategiko ezberdinen irekiera alegia, mugari paraleloa izango zen sare defentsiboa eratuz. 1939. urtearen lehen hilabeteetan, *Inspección de Regimientos de Fortificación* edo Gotortze Lanen Erregimentuen Ikuskaritzak defentsa plana gauzatzeko araudia aurkeztu zuen: *Normas para la Organización Defensiva de la Frontera Pirenaica* zirelakoak, hain zuzen. Bertan, izaera taktiko edota estrategikoko bide militarren irekieraren garrantzia azpimarratzen zen jada. Modu horretan, urte bereko ekaina aldera, hasiera eman zitzaion Gipuzkoa eta Nafarroako gotortze lanei, eta martxan jarritako obrak hiru hilabete beranduago sortu zen *Inspección General de Fortificaciones y Obras* zelako gotortze lanen ikuskaritzaren kontrolpean gelditu ziren.

Egitura defentsiboa mugatik ahalik eta gertuen eraiki beharra zegoen, eta erresistentzia eremuak ezarri beharko ziren gotortze lerroaren aurretik. Etsaiaren barneraketa ahalik eta gehien oztopatzeke, alegia. Izan ere, lanetan ezinbestekoak ziren obrak aurreikusten ziren bakarrik, artilleria eta horren arduradunak babesteko guneak, hain zuzen. Gotortze lerroa, *espigón* eta *ensenada* defentsibo zirelakoak, eta *setas de vanguardia* izeneko babes gune aurreratuez osatzen zen. Azken hauek, *ensenada defensivas* zirelako defentsa guneetara bideratzen zuten etsaiaren erasoak. Lehenengoez, berriz, defentsa lerroa gune edo eremu ezberdinetan banatzen zuten. Bestetik, aurretik existitzen ziren gotorlekuak barneratu beharko zituen, horiek guztiak elkarren artean komunikatzeko bideak garatuz eta, modu horretan, erretagoardiako mugimenduak baimenduz. Gipuzkoari zegokionean, bunkerrez osatutako hiru babes gune nagusi ezarri ziren, Gaintxurizketan, Arkalen eta Aiako Harrietan hain zuzen ere. Nafarroari zegokionean, berriz, Bera, Etxalar, Otsondo eta Erratzun.



Vallespín Gotorlekua izan behar zuenaren eskema-mapa (1939). (Fortificación Vallespín. Cartografía esquemática del sector occidental de la fortificación del Pirineo). Sáez García, J. A.: La fortificación Vallespín (1939-1940) en Gipuzkoa. (Ingeba 11. Donostia, 2010).

Babes gune eta gotorleku ezberdinen arteko komunikazioa bermatzeko, esan bezala, hainbat errepide taktiko eta estrategikoen irekierari lehentasuna eman zitzaion, halako plan defentsibo batean komunikabide edota garraibide estrategikoek berebiziko garrantzia bereganatzen baitzuten. Errepideek osatutako sare defentsiboa-ri dagokionean, errepide estrategikoak ditugu pisuzkoen, horien helburua ejertzitoaren erretaguardiako edozein motako mugimendua erraztea baitzen. Errepide taktikoek, berriz, ejertzitoaren defentsa maniobrak errazteko garraibide sare lagungarria osatu zuten. Errepide osagarri hauek bi motakoak ziren: alde batetik, bide nagusiak, fronte lerroari paraleloki luzatzen zirenak. Bestetik, bigarren mailakoak, babes guneak aipatuko errepide taktiko nagusiekin lotzen zituztenak, hain zuzen ere. Lau izan ziren Mendebaldeko Pirinioetako mugaren fortifikazioa eta babesarako planaren arabera Gipuzkoan aurrera eraman beharreko errepideak, estrategikoa bat eta gainontzeko hiruak taktikoak.



Mugako gotortze lanei lotutako errepideen eskema-mapa. (Cartografía de las principales vías militares de comunicación vinculadas con la fortificación del oeste de los Pirineos) Sáez García, J. A.: *La fortificación Vallespín (1939-1940) en Gipuzkoa*. (Ingeba 11. Donostia, 2010).

- **CT.1:** Jaizkibel mendiko itsasaldetik, Lezotik abiatuta Guadalupeko gotorlekuraino iristen zen errepide taktikoa. Gaur egun, GI-3440 errepidearen sektore bat. Errepide honen eraikuntzak Guadalupe eta Gaintxurizketako babesguneak komunikatzeko egitasmoari erantzuten zion.
- **CT.2:** Gaintxurizketa eta Arkale lotzen zituen errepide taktikoa, N-I errepidetik Gurutzeraino iristen zena. Gaur egun GI-3622 errepidea.
- **CT.3:** Arkale eta Aiako Harria lotzen zituen errepidea taktikoa, Oiartzundik Irungo Ibarla auzora iristen zen Erlaitzetik pasata. Gaur egun GI-2134 errepidea.
- **CE.1:** Oiartzun eta Lesaka lotzen zituen errepide estrategikoa, Ergoiendik Aiako Harritara, eta bertatik, Aritxulegiko tunela zeharkatuta, Nafarroan zehar Lesakaraino iristen zena. Gaur egun, GI-3420 errepidearen sektore bat; Nafarroan, NA-4000 errepidea.



Ergoien (Oñartzun) – Aritxulegi errepidearen planoak. Archivo General Militar de Ávila, ODP, C.3526, Cp.14, I.H.C.M., M. de Defensa. Mendiola, F: "Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak." Bortxazko lanak diktadura frankistan. Memoriaren Bideak- (Geronimo de Ustariz Institutoa. 2007, Iruñea).

Behin gerra amaituta, Francok berak aginduta, gotortze lanak martxan jartzeko hiru batzorde berezi sortu ziren, Pirinioen zonalde bakoitzarekiko bat; Nafarroa eta Gipuzkoari zegokiona *Comisión de Fortificación de los Pirineos Occidentales* zelakoa izanik. Komisioaren informetan oinarriturik, 1939ko ekainean, esan bezala, obrei hasiera eman zitzairen. Gaintxurizketa eta Andorregin finkatu ziren lehen lan-ezarmenduak Gipuzkoaren kasuan; Otsondo, Erratzu, Urkiaga, Etxalar, Ibañeta eta Uztarroitzen Nafarroaren kasuan. Izan ere, aurrekontu eza zela eta, azkeneko hiruak bertan behera gelditu ziren denbora gutxira. Era berean, hasierako une horietan zenbait errepide irekitzeko lanei hasiera eman zitzairen.

Ingeniariaren erregimentuaren buru zen koronelaren izena zela eta, Jose Vallespín, *Fortificación Vallespin* izenarekin ezagutzen zen Gipuzkoan defentsa gunea. Iparraldeko muga lerroa jarraitu zuten gotortze lanek, mendebaldeagoko puntutik hasita, Jaizkibel mendian hain zuzen, Nafarroan barneratzen ziren, Erronkariraino muga lerroa jarraituz. Bi atal ezberdindu daitezke defentsa lerroaren eraikuntzari dagokionean. Hasierako saiakera, intentsitate handikoa burututako lanak eta enplegatutako lan-indar esklaboaren kopuru altua zirela eta, 1939ko udatik hasita 1940 urtean zehar luzatu zen. Aipatutako komisioak urte amaieran Ministerioari bidalitako memorian, *Organización Defensiva de la zona fronteriza de Guipúzcoa y Navarra* izenekoak, burututako ikerketen berri ematen zen, baita burututako lanen inguruko informazioa ere. Informe horien arabera, hainbat lekutan hasitako lanak egoera oso aurreratu batean zeuden ordurako.

Lanak intentsitatea galdu zuten ondorengo urteetan zehar ere, gotortze lanak alde batera utziak izan ziren neurri handi batean. Errepide militarren irekierari lotutako lanek, ordea, aurrera jarraitu zuten. Geldiune horren ondoren, 1944an Vallespinen proiektuarekin hasitako gotortze lanei jarraipena eman zitzaion bigarren atal batean. Linea-P izena eman zitzaion proiektuari, aurreko lanak barneratu zituen eta lanak 1948. urtera bitartera luzatu ziren.

Espekulazioak espekulazio, horren tamainako defentsa proiektuari lotutako gorabehera eta arrazoiak bilatu eta ulertzeko saiakera egin du historialari ugari. Esan bezala, gerra bitarteko garaian funtsezkoa zen mugaren gaineko kontrola. Errepublikaren aldekoak isolaturik, garaipenerako aurrebaldintzak ezartzen baitziren, horrela garaipena bideratuz. Frankistak beldur izan zioten beti Europa aldetik heldu zitekeen laguntzari, horrek ahalbiderratu zezakeen errepublikaren biziraupena eta, are gehiago, gatazkaren internazionalizazioa ekar zezakeen.

Beste gauza askoren artean, frankisten aldean emandako indarkeriaren inguruko informazio ezak eskaintzen zien inpunitatea azaleraziz eta iritzi publikoari zegokionean erregimenaren irudia kaltetuz. Behin gerra amaituta eta erregimena bera egonkortzen hasita ere, frankistek muga gotortzeko asmoarekin jarraitu eta gotortze lanak bideratu zituzten. Oraingoan bestelako arrazoiak agertzen dira. Historialari batzuk makisaren aurreko defentsan bilatzen dituzte lanak aurrera egitearen arrazoiak. Beste batzuek, ordea, makisaren mehatxua inondik inora ez zela izango halako egitura defentsiboa bultzatzeko modukoa diote, eta nazioarteko mailako giro gatazkatsua-ekin lotzen dituzte arrazoiak. Izan ere, Pirinioetan aurreikusten zen azpiegitura defentsiboak bere parekoak zituen gainontzeko herrialdetan. Kontutan hartu beharra dago inflexio puntua antzeman zitekeela gerrari zegokionean, hau da, aurreko gune defentsiboak zegoeneko ez ziren nahikoak, ezta egokiak ere hegazkineria eta artilleria berriaren erasoak ekidin ahal izateko. Honek guztiak gotortze gune eredu berrien sorrera ekarri zuen.

Gainera, aipatutako giro gatazkatsua Bigarren Mundu Gerra aurreko testuinguruan garatu zen, agintari eta gizarte mailako indar faktikoen aldetik pentsamendu eta jarrera belizista-militaristen gorespen apologetikoa indartzearekin batera. Garai hori izan zen, gotortze lanei zegokionean, intentsitate handieneko fasea. Ondoren etorriko zen nolabaiteko etenaldia Mundu Gerraren bilakaerari loturik etor zitekeen, hau da, potentzia faxisten nagusitasun militarri. Izan ere, ustezko potentzia demokratikoen aldetik eratorritako eraso baten aukerak garrantzia ere galdu egin zuen. Azkenik, 1944tik aurrera lanak martxan berrabiatzearen arrazoiak gerraren bilakaerarekin lotu daitezke, izan ere, aliatuen garaipenak frankisten erregimena ezegonkortasun egoera batera eramane zezakeen.

Bistan da, tamaina horretako obra-lanak aurreikusten zituen proiektu bat bidera ezina izango zela gerrak suntsitutako ekonomia frankistarentzat eta hala izango zen, dudarik gabe, erregimenak lan-indar esklaboaren erabilera baliatu izango ez balu, lanak osoki bortxazko lanen sistemaren bitartez zigortutakoek burutu baitzituzten. Gerra garaiko lan-batailoiek, Langile Batailoiek alegia, gotortze lanen lehenengo ataleko obrak egin zituzten. 1940. urtearen erdi aldera Soldadu Langileen Diziiplina Batailoiek ordezkatu zituzten, bortxazko lanen sistemaren berrantolaketaekin batera. Gotortze lanen bigarren atalari dagokionez, pentsa daiteke 1948. urtera arte mantendu ziren batailoiek, SLDB [zigortuak] alegia, bertan arituko zirela. Gainontzekoa frogatzerik ez badago ere, zenbait enkofratuetan azaldutako margoek batailoien presentzia dokumentatzen dute lanen lehenengo faseari dagokionean behintzat. Vallespin gotorlekuari buruz Juan Antonio Sáez García egindako ikerketan aipatzen denaren arabera, bertan lanean aritu zirenen batailoien artean, ondoko hauek aurki daitezke: 2.a, 42. eta 125. Langile Batailoiek Oiartzunen finkaturik eta 142.a, Ergoien; 76. eta 123. batailoiek, Errearterian finkaturik; azkenik, 89. Pasaian. Modu berean, gerra amaitu aurretik, Vallespin fortifikazioari loturik, *Regimiento de Fortificación nº1* zelakoa sortu zela adierazten du. Gatibuen artean eraikuntzan espezialistak zirenak eta errenplazuko pertsonalak osatzen zuten, eta, 1938tik 1943ra bitartean, Vallespineko gotortze lanetan aritu ziren, 1943an erregimentua desegina izan zen arte. Desegindako batailoitik geratu zirenak oinarri, *Regimiento de Fortaleza nº2* zelakoa sortu eta aurrekoa ordezkatu zuen. Modu berean, bigarren batailoia hau desegindakoan geratu zirenak, *Regimiento Mixto de Ingenieros nº6* zelakotik geratu zirenekin elkartu eta *Regimiento de Zapadores nº6* zelakoa sortu zen.³³

Muga gotortzeko lanekin batera, aipatutako errepide militarren irekierari lotutako lanek bilduko zituzten, bai Euskal Herri mailan baita Gipuzkoa eta Nafarroari zegokionean ere, bortxazko lanetara zigortutako lagun gehienak. Gaur egun eskura ditugun datuek zera diote, Euskal Pirinioetan, Erronkari eta Jaizkibel bitartean, 20.521 esklabo gutxienez aritu zirela bortxazko lanetan. Estimazioen arabera, hauetatik 13.143 Nafarroan ibiliko lirateke, eta, 7.378 inguru, Gipuzkoan. Nafarroaren kasuan ez bezala, Gipuzkoako mugaren gotortze lanei dagokionean, zaila da zehaztea zein izan zen batailoia bakoitzak egindako lana. Izan ere, oso lurralde txikian obra asko egin ziren, eta ohikoa izaten zen batailoien lekualdatzea. Errepideei dagokionean ere, zuhur ibili beharra dago batailoia bakoitza kokatu eta egindako lana zehazteko orduan, zenbait kasutan horrelako erreferentzia dokumentatuak baldin badira ere. Hala ere, jakin badakigu Oiartzundik Lesakarako errepidea izan zela gatibu gehien bildu zituena, Oiartzunen kokatzen baitziren batailoietako *Plana Mayor* gehienak. Pentsa daiteke milaka izan zirela bertan lan egitera behartuak izandako gatibuak.

Gotortze lanak muga osoan zehar egin ziren arren, Aiako Harrien ingurua zein Gaintxurizketa eta Jaizkibelgo inguruak izan ziren garrantzia handieneko guneak. Bertan, mendiko kanpamentuetan, eta inguruko herrietan, Oiartzunen, baita Errearterian, Lezon eta Pasaian kokatzen ziren ikerlan honetan nagusiki aztertuko ditugun errepideen irekierari lotutako lanak. Bertatik, herrietan bertan finkatutako kokapenetatik eta hainbat menditan finkatutako ezarmenduetatik ekin zioten Langile Batailoietako esklaboek ondoko errepide militarrek irekitzeko lanari.

33. Sáez García, J. A.: *La fortificación Vallespín (1939-1940) en Gipuzkoa*. Ingeba 11. Donostia, 2010.

2.6.1. • Langile batailoien kokapena herrietan

Esan bezala, zaila da zehaztea batailoi bakoitzak egindako lana. Hala ere, jasotako dokumentazioaren arloan bada informazioa lortzerik, hala nola lehenago aipatutako iturriei so eginez ere. Ikerketa honi begira modu zuzenean kontsultatu ditugu udal artxiiboak eta gaiaren inguruko argitalpenetan lorturikoak dira, berriz, Estatu mailako artxiiboetatik eratorritako datuak. Atal honi dagokionez, aztergai dauzkagun errepideen eraikuntzari loturiko batailoiei buruzkoak izango ditugu hizpide. Hauen kokapena eta batailoi bakoitzak egindako lanak, epeak eta abarrekoak alde batetik, eta bestetik, batailoi horietan zigortutakoen ingurukoak. Zentzu horretan, norbakoari garrantzia eman nahi izan zaio, hau da, milaka eta milaka lagunek osatutako masa anonimoa pertsona konkretuez osatu, abiapuntu moduan, ezezagunari izena erantsiz. Izena berreskuratzen duenak, ezabatu nahi izandako existentzia hura nolabait berreskuratzen duelakoan.



Langile Batailoi bateko presoak meztatik itzultzerakoan, Oiartzungo Doneztebe enparantza zeharkatzen. (Elosegi Fundoa).

Udal Artxiiboetan kontserbatutako zerrendak zenbait kasutan berebiziko garrantzia daukate helburu horretan, ikerlan honen kasuan funtsezko dokumentazio iturriak izan ditugu. Izan ere, artxiibo guztiek ez dute informazio bera eskaintzen. Herri batean topa daitezkeen zerrendak ez dira inondik agertzen bestearen kasuan eta, modu berean, batailoi ezberdinei dagokienean edota batailoi bereko konpainia ezberdinei dagokienean ere bai. Aipatutako ezberdintasunen adierazle, eroldaren kasua daukagu. Eskuartean dugun gaiari dagokionez aitzindari izan dugun ikerlanaren egileek, Edurne Beaumont eta Fernando Mendiola hain zuzen, adierazitakoaren arabera, batailoietan zigortutakoen izenak berreskura-

Langile Batailoietako zigortuak *Trabajador* moduan eroldaturik. (1940 urteko errola, Oiartzun).

tzeko orduan, 1940. urteko errolda iturri aberatsa izan zen Nafarroako herrien kasuan, milaka izen topatu baitzituzten. Gipuzkoaren kasuan ordea, aztertutako herrietan finkatutako batailoi kopuru altua kontutan hartuta, emaitza ez da horren oparoa izan. Hortaz, langile batailoiekin jarraitu beharreko prozedurak metodologia aldetik erabat sistematizatu gabekoak izan zirela ondorioztatu daiteke, bere alde burokratikoan behintzat. Horri loturik, bortxazko lanen sistemaren definizio eza azalerazten da zenbait kasutan, batailoien deituraren inguruko eza-dostasunak aditzera ematen duen bezala. Ikusiko dugunez, garai eta batailoien arteko ezberdintasunak alde batera utzita, deitura ezberdinekin aipatzen dira batailoiak, izaera berekoak izan zitezkeela antzematen denean ere.

Bestalde, Madrilgo Kontu Auzitegiko Artxiboan kontserbatutako informazioaren arabera datuetatik abiatuta Langile Batailoien kokapena zehaztu daiteke, baita zenbait kasutan, herri bakoitzean igarotako denbora epeak mugatu ere. Kasu gehienetan, Madrilgo Kontu Auzitegiko Artxiboko dokumentuek aditzera ematen dutena bat dator udal artxiboetako dokumentuek aditzera ematen dutenarekin. Aipatutako datuetatik abiatuta, honako dokumentatzen da batailoi ezberdinen kokapena eta batailoietan zigortutako kopuruari dagokionean. Ikusiko dugunez, orain arte gaiaren inguruan azaldutakoarekin bat datoz taulan erabiltzen diren datuak. Aipatutako herrietan kokatzen dira batailoiak 1939ko uda aldera, gotortze lanen hasiera aditzera ematen zuten bezala.

Batailoien kokapena eta batailoietan zigortutako kopurua garaiazen arabera³⁴

Batailoi Zenbakia	Batailoi Mota	Herria	Datak	Zigortutako kopurua	Datak	Zigortutako kopurua
42	BAT	Oiartzun	1940/01-1940/04	729-1.529	1940/04	1279
51	BAT	Oiartzun	1942/01			
84	BAT	Oiartzun	1940/06	873		340
107	BAT	Oiartzun	1939/12-1940/01	525-496	1940/01	430
136	BAT	Oiartzun			1939/07	26
142	BAT	Oiartzun	1939/11-1939/12	782-673	1939/12	630
125	BAT	Oiartzun	1939/11-1940/01	128		
2	BBTT	Erresteria	1940/01-1940/05	617-771	1940/06	685
11	BBTT	Erresteria	1940/06	600	1940/08	
38	BDST	Erresteria	1941/07	990	1942/08	667
76	BBTT	Erresteria	1939/09	913	1940/06	630
81	BDT	Erresteria			1940/06	232
87	BAT	Erresteria			1940/07	123
123	BBTT	Erresteria	1939/11-1940-01	465-588	1940/07	588
137	BBTT	Erresteria	1939/11-1940-03	174-504	1940/06	631
137+142	BBTT	Erresteria	1940/01-1940/03	631		
94	BDST[p]	Erresteria-Lezo	1942/02	730	1942/02	666
89	BBTT	Pasaia	1940/01-1940/03	689-655	580	
94	BDST[p]	Lezo				844
GUZTIRA				8.474		9.349
				-10.153		

³⁴. Ondoko taulak, alde batetik, Madrilgo Kontu Auzitegian iturria duten Elozegi Fondoak taldeak argitaratutako datuak jasotzen ditu, bestetik Pedro Barruso historialariak erraztutakoak. Bigarren aldiz aipatzen diren data eta kopuruak, 6. eta 7. zutabeak, Elozegi Fondoak argitaratutakoei dagozkio; 4. eta 5. zutabeetan aipatzen direnak Barrusori. Azkenik, 125. Batailoari buruzko erreferentziak barneratzen ditu taulak, aipatutako datuen iturria Oiartzungo Udal Artxiboko zerrendak izanik.

Bistan denez, kopuru ezberdinak aipatzen dira zenbait kasutan, bi iturriek aipatutako datuak data berekoak izanik. Beraz, kontuan hartu behar da erabilitako kopuruak erlatibotzat hartu beharrean gaudela, taulan agertzen diren kopuruak une zehatz bati erreferentzia egiten diote, batzuetan bi data aipatzen badira ere. Alegia, egoera estatiko bat adierazten dute eta justu kontrakoa litzateke batailoietan zigortutakoen egoera, erabat dinamikoa. Uste baino konplexuagoa litzateke kopuruak zehaztea, ordea. Bestetik, zaila litzateke aipatutako mugikortasuna adieraztea eta kopuruak modu zehatz batean konkretatzea, *Lista* edota *Justificante de Revista* direlakoetan azaltzen diren zerrenden ikerketa sakona eta konparatua eskatzen du. Zenbait kasutan, batailoi bakoitzeko zerrendak hilabete ezberdinetakoak izaten dira, kopuruak ere ezberdinak izanik. Izenak errepikaturik agertzen dira batzuetan, bestetan ez; eta beste askotan zaila da errepikatzen diren ala ez jakitea. Aipatutako kasuetan, batailoi bakoitzeko zerrenda luzeena erabil daiteke kopuruak kontutan hartzeko orduan, hala ere, nolabaiteko hurbilpena lortzerik baldin bada ere, ez litzateke erabatekoa izango. Azkenik, epeei eta batailoi ezberdinei begira, mota ezberdinetako batailoien presentziak bortxazko lanen bi sistema ezberdinen arteko jarraitortasuna konfirmatzen duela ondorioztatu daiteke.

Orain arteko datuei begira, artxiboetan topatutako informazioa barne, hemezortzi batailoi zehazki kokaturik azaltzen zaizkigu; horietatik, hamahiruren kasuan mota bateko edo besteko izen-zerrendak lortu ditugu. Bestetik, erroldetan topatutako izenak ditugu. Erroldek zerrendek baino informazio aberatsagoa eskaintzen digute, esaterako adina, jatorria, ogibidea eta abar (kasu batean izan ezik, ez baitu zehazten zigortutakoen jatorrizko batailoia). Erroldan bestelako aipamen garrantzitsuak ere badira. Alde batetik, kasu normaletan etxe bakoitzeko bizilagunen ahaidetasuna edo horien arteko harremana zehazten denean, ez da horrelakorik aipatzen, baizik eta bere izaera juridikoa, *trabajador* alegia. Langile (*Trabajador*) horrek, lan mundutik harago, zigortuaren esklabo izaera adierazten du. Beste alde batetik, zigortuak herrian daraman denborari erreferentzia egiten dio. Batzuetan, *penado* hitzarekin erroldaturik azaltzen zaizkigu zigortutakoak, eta aurrerago ikusiko dugunez, Erreterian gertaturiko kasu bati dagokionean, ez da erreza izango benetako soldaduak ziren ala ez jakitea; pentsa daiteke Soldadu Langile Diziiplina Batailoietan zigortutakoak izan zitezela. Azkenik, aipa daiteke, zenbait kasutan *trabajador* moduan agertzen direnen benetako ogibidea jasotzen zela, eta beste batzuetan, ordea, militar moduan erroldaturik azaltzen zirela. Beraz, ondoriozta daiteke, ez zegoela lan-batailoietan zigortutakoak erroldatzeko moduaren inguruko kontsentsurik ere.

Denbora-kokapenari dagokionean, 1939ko uztailakoak dira lehen zerrenden aipamenak. Lehenengo iritsi ziren batailoia edo, berez, jasotzen den dokumentazioaren arteko lehen erreferentziak. Baliteke batailoiak aurretik ere bertan izatea. Hori ematen du 136. Batailoia kasuan (espezialistekin osatutakoa). Gerra bitartean sortutako batailoiak dauzkagu lan militarretara ez ezik, bestelako lan zehatzetara bideratutako batailoiak izan ziren. Ergoien finkatutako batailoia izango zen eta, beraz, Oiartzundik Lesakara zihoan errepidearekin lotutako lanetan ibiliko zirela pentsa daiteke, akaso Aritxulegiko tunelaren irekiera lanekin. Batailoi horri buruzko erreferentzia bakarra daukagu. Oiartzunen kasuan, 136.aren batera (uztailean), 125. Batailoia buruzko erreferentziak azaltzen zaizkigu, 5. eta 6. konpainietako kideen zerrendak hain zuzen; apenas hilabete bat beranduago, 14. eta 142. batailoiei buruzkoak. Ondorengo hilabetetan, erreferentziak areagotuz doaz, batailoi berrien artean 42. eta 105. dauzkagu. Azkenik, abenduan, 107. Batailoia buruzko lehen erreferentziak azal-



Arkaleko kanpamendua (Oiartzun).
Barrakoiaren barnealdea. (Elosegi Fundoa).

tzen zaizkigu. Hauetako zenbait batailoi, topatutako dokumentazioaren arabera, bertan mantendu ziren 1940ko udaberria bitartean. Aldiz, zerrendak desagertu egiten dira bat-batean zenbait kasutan, hala nola 142. batailoia-ren kasuan. Izan ere, horrek ez du ziurtatzen zegoeneko batailoia ere deseginda zenik. Zenbait kasutan, beste-lako dokumentuetan zeharkako erreferentziak topa daitezke langile batailoien presentzia konfirmatzen dutenak, zerrendarik ez egon arren. Batailoi gehienak 1940ko udarako deseginak zeuden, denak ez, ordea. Gerora 84. izango zen 42. Batailoia buruzko erreferentziak 1941ko ekainera arte luzatzen dira. Horrez gain, 1940. urteko erroldako erreferentziak dauzkagu, 400 bat lagun *trabajador* moduan erroldaturik azaltzen zaizkigu, baina, esan bezala, bertan ez da batailoia zenbakiari buruzko erreferentziarik egiten eta, orain arteko datuekin, zaila da zehaztu ahal izatea.

Erreterari dagokionean, 1939ko irailekoak dira batailoiei buruzko lehen aipamenak, 123. Batailoia buruzkoak. Ondoko hilabetetan, 76. eta 137. batailoiei buruzkoak agertzen dira, urria eta abenduan hurrenez hurren. 76. Batailoia kasuan izan ezik, 1940ko lehen hilabetetara luzatzen dira erreferentziak, martxora bitartean hain zuzen ere; pentsa daiteke bertan behera geldituko zirela lehenago aipatutako bortxazko lanen sistema eta langile batailoien birmoldaketari loturik. Aldi berean, 1940ko lehen hilabete horietan 2. Batailoia buruzko erreferentziak azaltzen zaizkigu eta ekainean, 11.ari buruzkoak. Azkenik, 1941eko uztailan 38.ari buruz, eta, 1942ko urtarrilean, biak Soldadu Langileen Diziplina Batailoia.

Bestetik, taulan aipatzen diren artean, bi batailoien zerrendak baino ez dira kontserbatzen Udal Artxi-boan, gainontzeko dokumentuen artean zeharkako erreferentziak aurki daitezkeen arren. 123. eta 137. batailoiei zegozkien zerrendak ditugu, 1939ko irailetik 1940ko otsailera bitartekoak lehenaren kasuan, eta, 1939ko abendutik 1940ko otsailera bitartekoak bigarrenaren kasuan. Azkenik, erroldetako erreferentziak dauzkagu. 1940ko erroldan 15 zigortu baina ez zaizkigu agertzen, gainontzeko zaindari-militarrekin erroldaturik daude; berez, *plana mayor* zelakoa izan zitekeela pentsa daiteke. Hamabost langile hauek berriz ere azaltzen dira 1942-1943 eranskinetan, *Rectificaciones y Cuaderno Auxiliar 1942-1943* izenekoan, 1942an hain zuzen ere. Agiri berean, 1943an, 115 lagun azaltzen dira *penado-militar* moduan erroldaturikoak. Bada beste kasu bat, 1942an alta moduan erregistratzen dena eta 1943an baja moduan, *Fabrica de Harinas* delakoan. Orain arte ez bezala, erroldatuen artean ez da *trabajador* edo *penado* moduan erroldaturiko inor, baizik eta soldadu moduan. Hala ere, langile batailoien egitura bera suma daiteke. Zalantza kontua baldin bada ere, deituen kontua bortxazko lehenago aipatutako terminologiaren inguruko nahasketa izan daitekeela pentsa daiteke. Beste modu batean, kontuan hartu beharrean gaude langile batailoien birmoldaketari loturik *trabajadoreak* deitzen zituztenak, soldadu langileak izatera pasa zirela eta, beraz, batailoietan zigortutakoak soldadu deituko zituztela uler daiteke. Alde batetik, soldaduska arrunta egiten zuten soldaduak izan zitezkeen, baina, bestetik, arraroa da soldaduak herrian bertan egotea soldaduska, normalean soldaduska kuarteletan egiten baitzen.³⁵

Pasaiari dagokionean, taulan bezalaxe, batailoi bat baino ez da dokumentatzen, 89.a hain zuzen. Artxiboko dokumentuen artean, 1939ko uztailetik 1940ko martxora bitarteko zerrendak gordetzen dira. Gainontzeko dokumentuetan zeharkako erreferentziaren bat azaltzen zaigu baina ez, erroldari dagokionean. Azkenik, Lezori dagokionez, ez dira erreferentziak topatu erroldan, ezta zerrendarik ere.

Artxiboko dokumentu eta zerrenden harira, oso kasu gutxi batzuetan baino ez dira herrietatik kanpoko barrakoi kanpamentuetan finkatutako batailoiei buruzko erreferentziarik aurkitu. Zenbait batailoien kasuan, 136. eta 42. batailoien Oartzunen, eta, 137.aren kasuan Erreterian, batailoien konpainiaren bat mendiko kanpamentuei loturik ageri zaigu. Lehenengoari dagokionez, Ergoien eta Arkalen hurrenez hurren, Gaintxurizketan, bigarrenari dagokionez. Hala ere, gertutasuna dela eta, eta betiere lehenago aipatutako mugikortasuna kontuan hartuta, pentsa daiteke Lezo eta Pasaiako batailoia, Lezokoa bereziki jendetsua, Jaizkibelerako errepideko lanetan arituko zirela. Erreterian finkatutakoak, Gaintxurizketa inguruan gehien bat, Arkaleraino edo mugituz errepideko lanak jarraituz. Oartzunen finkatutako batailoia, berriz, bereziki Lesakarako errepideko lanetan (Aritxulegiraingo bidean) arituko zirela pentsa daiteke, baita Arkale inguruetan ere. Eta baliteke Erlaitzetik Ibarlako errepideari lotutako lanetan ere modu esanguratsuan aritu izana.

Azkenik, Oartzungo ospitaleari lotutako dokumentuen artean, bertatik pasatzen ziren zigortuei buruzko erreferentziak badirela aipatu behar dugu. Ingresoaren kopuru altuak zigortuen lan eta bizi-baldintzen inguruko informazioa eskaintzen dute, baita bertan hil zirenen ingurukoa ere. Modu berean, heriotzei buruzko informa-

³⁵. Mikel Zabaleta eta Pedro Barrusorekin kontsultatuta, batailoi diziplinario bat izan zitekeela pentsa daiteke; haiek dakitenez behintzat, langile batailoietakoak baino ez ziren ibili herrian bertan soldaduska egiten

zioa eskaintzen digute heriotza-agiriei. Zigortuen izenen zerrenda eta gainontzekoekin bezalaxe, heriotza-agiriei dagokionean ere, Elozegi Fondoa taldearen lana aitzindari daukagu. Beren liburuan argitaratutakoaz gain, testigantzek aipatzen duten ihesaldi baten ondoriozko fusilamentuak dokumentatzen dituzte, hain zuzen ere. Lezo, Pasaia eta Erreneriako bake epaitegietan ere aurki daitezke, bortxazko lanen sistema errepresiboaren baitako errepresioari erantzen zitzaionaren berri ematen dutelarik.

OIARTZUN:

Artxiboak informazioa aberatsa eskaintzen du, bortxazko lanen gaiari dagokionean oparoena. Aurretik esandakoa laburbilduz, nabarmendu daiteke 1940. urteko erroldan 400 lagundik gora erroldatu azaltzen zaizkigula, eta ez zaio batailoia zenbakiari erreferentzia egiten. Bai ordea gainontzeko dokumentuen artean aurkitzen diren zerrendetan: bertan izen-abizenak aipatzen dira, eta *errenplazo* ezberdinei dagozkien izen-abizenen jatorria, adina eta, zenbaitetan, ogibidea erantzen zaizkie. Madrilgo Kontu Auzitegiko dokumentuetan aipatutako batailoiak zerrendaturik azaltzen dira, bat izan ezik, 51.a hain zuzen; beraz, jatorri ezberdineko informazioak bat egiten du. Hauez gain, 14.a, 105.a, 125.a eta 142.a erreferentziatu edo zerrendatzen dira, eta data ezberdinetako zerrendak gordetzen dira batailo askoren kasuan.

Bestetik, Elozegi Fondoa taldekoek egindako lanari esker, herrian izan ziren batailoien inguruko alderdi ezberdinen berri izateko aukera daukagu, beste gauza askoren artean kanpamendu eta batailoien kokapenari buruzko erreferentziak, Udal Artxiboko gainontzeko dokumentuei buruzkoak, testigantzak, eta baita argazkiak ere. Herrian dokumentatzen diren kokapenez gain (General Mola eta San Juan kaleetan), Aritxulegi, Arkale eta Babilonin kokatzen ziren langile batailoientzako barrakoiak. Kanpamenduen argazki dezente kontserbatzen dira, eta baten batean barrakoiaren barrualdea ere ikus daiteke. Badira bertan zigortuak izan zirenen testigantzak ere, bai hasierako urtetakoak, baita azken urteotakoak ere, 38. Batailoiko zigortutakoen eskutik jasotakoak.



Arkaleko (Oiartzun) Langile Batailoietako kideak, atzekaldean kanpamendua. (Elozegi Fondoa).



Babilonia (Oiartzun) izan daitekena. Langile Batailoietakoa kideak barrakoen atarian. (*Elosegi Fonda*).



38. Batailoi Disziplinarioko 1. Konpainiako langile behartuak, atzean barrakoiak ikus daitezke (Oiartzun). (*Elosegi Fonda*).



Aritxulegi (Oiartzun). Langile Batailoiaren kanpamendua. Barrakoiak. (*Elosegi Fonda*).

ERRETERIA:

Artxiboan mota ezberdinetako erreferentziak aurki daitezke: zeharkako erreferentziaz gain, badira Oiarzunen kontserbatzen diren zerrenden antzekoak, baina askoz kopuru txikiagoan. 123. eta 137. batailoien zerrendak aurki daitezke, baina bertan finkatutako batailoien kopurua, ordea, esanguratsua litzateke: hamar bat. Zerrenda hauen artean badira konpainiaren bat Gaintxurizketan kokatzen duten erreferentziak. 1940. urteko erroldari loturik, 1942-1943 urteko eranskinetan hainbat zerrenda agertzen dira: guztira, 135 bat lagun, 750 lagun inguru zalantzazko zerrenda hura kontuan hartuz gero. Azkenik, zeharkako erreferentziak egiten dituzten dokumentuak ere aurki daitezke eta artxiboan argazkiak ere gordetzen dira.

Beste alde batetik, Mikel Zabaletak Erreteriararen Historiari buruzko liburuan idatzitako kapituluei esker, langile batailoien inguruko hainbat alderdiren berri izan dezakegu. Barrusok ere, bere aldetik, zenbait erreferentzia egiten ditu: 1939an Erreterian finkatutako bi batailoiei erreferentzia egiten zaie, bat Florentino Loidiri konfiskatutako etxean ezarriko zena, eta bestea Biteriko eskoletan ezarritakoa. Horrez gain, 1940. urteko dokumentu bati erreferentzia egiten zaio. Horren arabera, alkateak baieztatzen zuen lau batailoi egon bazirela herrian. Hala ere, Barrusoren arabera, baliteke horietatik hiru Lezon finkatutakoak izatea. Izan ere, aipatutako liburuak aspaldikoak dira eta baliteke, gaur egungo datuekin, bestelako ondorioak atera ahal izatea. Azkenik, 1943an, batailoi bat dokumentatzen zen Yute fabrian, uholdetarako defentsa lanetan arituko litzatekeena, hain zuzen.



Erreteria. Langile batailoietako zigortuak irmo udaletxe aurrean. (EUA).



Erreteria. Langile batailoietako zigortuak irmo udaletxe aurrean. (EUA).

LEZO:

Lezoren kasuan, Udal Artxiboko dokumentuen artean ez dugu langile batailoien inguruko erreferentziarik topatu, are gutxiago batailoietan zigortutakoen izenen zerrendarik. Modu berean, erroldan ere ez. Dokumentu ofizialen hutsunea osatuz, ordea, herri oparoa dugu, herritarrek jasotako informazioa kontuan hartuta. Alderdi garrantzitsuen artean, herria eta batailoietan zigortutakoen artean garatutako harremana nabarmendu behar dugu, baita batailoien presentziak herritarrengan izandako eragina edota horren aztarnak ere.

Harreman estu horren adierazleak ugariak dira. Gaur egungo testigantzen arabera, zenbait kasutan bertako familien eta zigortuen familien artean sortutako harremana urtetan zehar mantendu zen. Aipatutako alderdi hauen inguruko arrazoiak herri txiki batek ahalbideratzen zuen gertutasunean bilatu behar dira, gertutasun horretatik abiatuta nolabaiteko elkarbizitza erdietsi zen. Batailoietan zigortutakoen arteko batzuk herri ondoko barrakoieta zeukaten kokapena, Jaizkibelerako bidean, errepidearen hasieran eskuinetara. Beste batzuk goian, Jaizkibelen bertan zeuden barrakoieta. Garaiko testigantzek Gaintxurizketan ere batailoiak izan zirela aipatzen dute. Horien arabera, inguruko baserriak hartzen zituzten militarrek kuartel gisa, familiak beren etxeetan militarren presentzia onartzera behartuz. Herrian bizitzera geratu ziren zigortuak dagoeneko hil diren arren, bigarren mailako testigantzak ugariak dira: egoera gaztetan zuzenean ezagutu zuten lezoarren testigantzak alde batetik, eta, bestetik, beren familiaren bitartez egoeraren berri izango zutenenak.

Herri ondoko batailoiek sukaldea eta bestelako enplazamenduak zeuzkaten herrian bertan eta, kalean bertan egiten zituzten otorduak eta abar, herritarren aurrean. Lan egin ondoko orduak herrian bertan ematen zituzten, gatibuen egoera denon begi bistan zelarik. Zigortuak izateko eta bestelako egoeratan herrira eramaten zituzten, herriko plazan herritarren begi bistan jipoitzen zituzten eta, gatibuek jasan behar izaten zituzten tratu txarren aurrean, herritarrengan haiekiko elkertasuna piztu zen. Barrakoieta zati bat zutik mantentzen da oraindik eta, modu berean kontserbatzen dira barrakoieta planoak ere. Baita garaiko argazkiak ere, non barrakoiak ikusten ziren.

PASAIA:

Pasaiari dagokionean, langile batailoien inguruan daukagun informazioa nahiko mugatua da, orain arteko datuak kontutan hartuta behintzat. Udal Artxiboko dokumentuen artean 89. Batailoia osatzen zutenen zerrendaren bat kontserbatzen da, eta batailoia bereko konpainia ezberdinei lotutakoak aurki daitezke. Hala ere, zerrenda gutxi batzuk baino ez dira, denboran oso mugatuak; horrez gain, ez zituzten izen asko jasotzen. Erroldetan ere ez dugu batailoien inguruko inongo erreferentziarik topatu. Zeharkako erreferentziaren bat topatu dugu, ordea, udal agintarien korrespondentziaren arteko dokumentuetan. Horren arabera, jakin badakigu, batailoia herrira iritsitakoan, *Cine Ideal* edo *Moderno* zelakoan ostatu hartu zutela denboraldi batez, zinearen jabeak udalari lokala berreskuratu eta, behin gerra amaituta, aurreko erabilera emateko baimena eskatzen dion arte. Ez dakigu gerora zenbat luzatuko zen egoera hau. Bestetik, bada beste erreferentzia bat batailoia bat Meipi izeneko lan-tegian kokatzen zuena. Kasu honetan, deigarria da batailoia ezberdin bati erreferentzia egiten zitzaioela, ofizialki Errenterian kokatutako 137. batailoia hain zuzen.

Azkenik, gainontzeko herrien kasuan bezala, aipatu daiteke, arakatutako artxibotan badirela, modu orokortuan, langile batailoietan ibili zirenei buruzko erreferentzia ugari. Kasu horietan, ordea, beste leku batzuetako batailoietan zigortutako herritarren ingurukoak dira.

Atal honi amaiera emateko, hainbat aipamen: alde batetik, ez da ahaztu behar izaera militarrik ez zuen errepide bati lotutako lanak ere erregimenaren esklaboen lan-indarra erabiliz eraikia izan zela, Itziarreko gaineraino igotzen dena, hain zuzen. Bortxazko lanen beste aldearen adierazle daukagu errepide honi lotutako lanak, izaera ezberdineko batailoiek, zigortuen destakamenduek hain zuzen, burutu zituzten, *Ferrocarriles y contrucciones ABC* enpresaren ardurapean kasu honetan. Izaera zibileko errepide bakarra daukagu Gipuzkoaren kasuan, eta horren inguruko erreferentziak eskasak dira.

Garraibide sareari dagokionez, trenbideari lotutako lanei buruzko erreferentziak azaltzen zaizkigu Hego Euskal Herriko gainontzeko herrialdeetan, ez ordea Gipuzkoaren kasuan. Zigortuen destakamenduek egin ohi zituzten trenbide sareari lotutako lanak, baina gaian aditua den Juanjo Olaizolaren lanari jarraituz, ez dira hala-koak dokumentatzen Gipuzkoan. *Regimientos de Ferrocarriles* zirelakoak aipatzen ditu Mendiolak, gerra amaitu ondoko lehen hilabetetan, burdinbidearen ezarpenaren inguruko lanetan ibili ziren, baina kasu honetan ere orain arteko informazioa oso mugatua da.

2.7. LEKUKOTASUNAK


Memoria biziak aipaturiko datuei bestelako dimentsioa eskaintzen dio, eta gaur egunera arte jasotako lekukotasunetan bilatu dugu gertaturikoa zuzenean bizi izan zutenen ahotsa, memoria dokumentalaren osagarri. Errepresio-bide honen ondorioak topatu ditugu haien adierazpenetan, sufrimenduaren aztarnak.

Errepresioaren alde politiko eta ekonomikoak alde batera utzita, eite sozialen berri ematen digute testigantzek modu esanguratsu batean. Gaur egun, bortxazko lanen unibertsoa eta langile batailoietako egunerokotasuna, bertan zigortutakoen lan-baldintzak zein bizi-baldintzak eta bestelako alderdi askoren ezagutza gero eta zehatzagoa daukagu. Bestetik, zigortuen familien lekukotzak ere jasotzen dira, eta testigantzok errepresioa gatibuen inguruko guztiak zigortu eta estigmatizatzeko helburutik abiatzen zela frogatzen dute.

Aldi berean, zigortuarengan bere familiak pairatutako egoerarekiko erruduntasuna elikatzen zuen sistema errepresiboak. Testigantza ugarik aditzera ematen dutenaren arabera, familiarengan izan zitzakeen ondorioei beldurrez, zigortutakoen jarrera apaldu egiten zen. Hala, egoerari sumisiotik harago aurre egiteko aukera ia erabat ezabatzen zitzaion bortxazko langileari. Nabarmenezko moduko beste alde bat zigortuaren ingurukoengan beren senideak pairatutako egoera errepresiboak izandako eragina izango zen. Zenbait kasutan halakorik gertatu ez bazen eta askotan aurreko jarrera politikoa arduratsua izan ez bazuten ere, sistema errepresibo bortitzarekiko horren moduko gertutasunak, kontzientzia politikoaren sorrera eta garapena izango zituen ondorioen artean zigortutakoen senideen artean. Isilpean mantendutako kontzientzia edota jarrera izanik ere.

Zuzeneko testigantzei dagokienean, badira bereziki interesgarriak izan diren ikerketak. Alde batetik, Elosegí Fondoa taldearen lanari esker, Oiartzunen finkatutako batailoietan aritu ziren protagonisten testigantzak iritsi zaizkigu, Aritxulegin izandako Joxe Maria Etxaburu ondarrutarra eta Babilonin izandako Guillermo Aizpuru azpeitiarrenak hain zuzen ere.³⁶

Joxe Mari Etxaburu: *“Aritxulegiko tunela egitea zan gure lana. Oiartzundik Lesakarako bide-zabala “trabajadorietakoak” egin eben. Gu joan baino len eginda egoan Oiartzundik Aritxulegirainokoa. Beste aldetik etorrena, Naparro aldetik egin bear ebena, ikusi be ez zan egiten. (...) eta tunela egitea eroan ginduezan. Gure lanak abiada andirik ez eban eroan. Lanean ez ginan geratzen eta lurra naikoa atara genduan; baina ni an egon nintzan lau illabete inguruan, aterperik ez genduan egin; zerurik ez genduan ezkuta. Lenengoan, beti lez, pikotxagaz lan egiten neban; gero bagoneteagaz lur karriaten. Bagoneta bakotxagaz lau edo bost lagun ibiltzen ginan”*



Guillermo Aizpuru: *1937ko abuztuaren 26tik 1939ko maiatzaren 29ra arte egon nintzen preso konzentrazio esparruetan. Han lizentziatu egin ninduten eta Azpeitira itzuli nintzen, baina herrian denbora gutxi neamala, berriz ere deitu egin ninduten Batallon Disciplinario de Soldados Trabajadores-era joateko. Hura askoz okerragoa izan zen, bertan nengoela errepideak eta horrelako lanak egin behar izan balnituen, zortzi urte igaro nituen preso. Ba, Donostiara Herrerako Ingeniaritza Parkera bidali ninduten gotorleku bat eraikitza 1938an. Geroago, errepideak ere eraiki genituen, Batallon Disciplinario de Soldados Trabajadoresetan egotea oso gogorra izan zen, ez ziguten apenas jaten ematen: gosaitzeko piper poto batean kafesne antzeko ur zikin bat, ankutsik, kapote batekin hotzak. Hiruzpalau urtez egon nintzen...oso gogorra. Lurrean egiten genuen lo, bertan pixak eta kakak egin behar; arboxak jaten genituen...eta hauek jaten harrapatuz gero, zigortzen gintuzten. Errejimen oso gogorra, inon ez dut horrelako egoerarik bizitu”*

³⁶. Ondorengo bi aipamenak Elosegí Fondoa taldeak argitaratutakoak dauzkagu Kattin-Txiki taldea: *Isiltzen ez den isiltasuna: lurpetik berreskuratutako memoria*. Oiartzungo Udala. Oiartzun 2009.

Bestetik, *Esclavos del Franquismo en el Pirineo* ikerlanaren bitartez iritsi zaizkigun testigantzei esker, ikerlan honetan aztergai dauzkagun lanek izandako testuinguruaren antzeko bat irudikatzeko aukera izan genuen eta, bertatik abiatuta, ikerlan honetarako elkarrizketatua izan den Felix Padínekin harremanetan jartzea lortu zendu aurretik utzi zigun bere lekukotasuna.³⁷

Gaur egun topatu ditugun lekukoek eskainitako testigantzez gain, badira beste testigantza ugari, asko euskaldunenak. Horien artean asko 38. Batailoian zigortutakoak. Batailoi diziplinarioa daukagu hau, beraz 1940an sortutakoa. Horren harira, aipatu behar da alde nabarmena dagoela batailoi mota baten edo besteren inguruko informazioa lortzeko aukerari dagokionean. Geroz da zailagoa daukagu garaiko protagonistak bizirik topatzea oraindik, eta, halakoetan, azken urteetan sortutako batailoietako zigortutakoak izaten dira topatzeko errazena. Modu horretan, 38. batailoia Gipuzkoara iritsi bitartean egindako ibilbidearen hainbat alderdi iritsi zaizkigu. Esate baterako, badakigu batailoi hau Mirandako kontzentrazio esparruan sortu zela eta bertan zigortutakoen arteko asko aurretik ere bestelako batailoietan ibilitakoak zirela.

Joera orokor batzuk nabarmentzen dira. Bortxazko lanen kasuan, protagonista zuzenen testigantza bat dator normalean bigarren pertsona egoera horren lekuko izan zirenen testigantzarekin, esan bezala erregimenaren propaganda ofizialak zabalduetako irudi eta iritzia kontraesanez. Are gehiago, dokumentazio ofizialak askotan azaleratzen zuena ere bat zetorren errepresioa modu zuzenean pairatu zuten protagonista eta lekukoek testigantzek ziotenarekin, horrela militarren ustelkeria aditzera emanez eta erregimenak eraikitako bertsioa desitxuratuz.

*Observado que el Batallón Disciplinario nº 38, afecto a esta Junta, no daba en el trabajo encomendado todo el rendimiento necesario para el impulso que por orden de la Superioridad ha de imprimirse a las carreteras de la organización defensiva, he tenido conocimiento de que una de las causas puede ser lo deficiente de la comida, aún teniendo presente las actuales circunstancias. También he sabido que a primeros de este mes fue descubierto por un Oficial que individuos de la Plana Mayor vendían a extraños, artículos de la tropa, recogiendo por aquel, mil doscientas pesetas, dando conocimiento de lo sucedido al comandante.*³⁸

Lan-batailoietan zigortutakoen testigantzei begira, hainbat elementu errepikatzen dira etengabe. Alde batetik, gosea eta egarria, hotza eta nekea, gaixotasuna eta higiene eza eta, askotan, heriotza. Azken finean, era guztietako gabeziak. Aipatutakoen artean, goseak berebiziko garrantzia bereganatzen zuen zigortuen bizipenei zegokienean, oroitzapenen elementu zentrala izanik ia-ia. Gosea bera, eta gosea asetzeko garatu behar izan zituzten estrategiak, alegia.

Antonio Viedma: *“Madre, como esto siga así, vamos a tener que tomar la sombra en un palillo de los dientes”*³⁹

Txomin Uriarte: *“Baia eskapau bihar izaten gendun ze gosie egon zan handixe. Eskapau ta lantzian lgalera jo. Igalen gero ogixe eta. Han ogixe on zuan ta han erosi. Baie eskapaten degun aldin listie norberak pasau bihar gero. Nik sarri pasatzet lagunerri han listie. Ta nik paseu listie. Bigarren apellidua esan bihar izaten zan ta esaten neutzen lagunerri ta listo. Bixok peligruen!”*

Antonio Viedma: *“Allí hubo un muchacho que se quedó congelao. Me parece que era el de Baza. Se quedó traspuesto. Me acuerdo que iba el practicante que había allí. Había perdido el conocimiento ya ni hablaba ni ná”*

Txomin Uriarte: *“Han hile bien leie botaten egon ziren. Baie hile bi emon genduzen egunero leie,*

³⁷. Testigantzen harira aipatu beharrean gaude ikerlan honi bi elkarrizketa eransten zaizkiola. Bata Felix Padínena. Bestea Marcelo Usabiagarena. Marcelo, berez, ez zen erreioideen irekierari lotutako lanetan ibili, baizik eta berreraikitze lanetan eta Arroako zigortuen destakamenduan, porlana lantegian; hala ere, interesantea iruditzen zaigu horren lekukotzak aintzat hartzea, bere adierazpenak bide judzialaren bitartez bortxazko lanetara zigortuak izan zirenen ibilbidea eta gora-beheren berri ematen baitute.

³⁸. Junta de Defensa y Armamento de los Pirineos Occidentales zelakoaren general nagusiak 1942ko informe batean 38. Batailoari buruz egindako adierazpenak.

F. Mendiola, E. Beaumont: *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Txalaparta. 2006, Tafalla

³⁹. Honako hau eta ondorengo gainontzeko testigantzak Eurne Beaumont eta Fernando Mendiolaren liburutik ateratako testigantzak dauzkagu.

F. Mendiola, E. Beaumont: *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Txalaparta. 2006, Tafalla

bai leie, errekatatik pasten ginenean ganetik, ura azpitik ta geu ganetik ganera helaute ganie. Ata egingoten mulua ganetik ta ez zan apurtuten nahie. Baina zelan zegoan, zelan! Hau... Etxietatik beheraino gotak jartzen ziren beheraino. Txurroak intxetan. Dio etxietatik dana beherantz goterak lotzen zin guztixerekin zer... kandelak eginde beheraino. Leie, leie, hotza! Han neguen, edurre ta leie. Ze makurre!

Arlo honetan, oso ezberdina izan zen gatibu batzuen eta besteen egoera. Gertutasuna zela eta, Euskal Herrikoek edota gertukoek familiaren laguntza jasotzeko aukera izaten zuten, ez ordea urrunetik zetozenek. Kasu horretan, batailoietan zigortutako andaluziarren egoera benetan tamalgarria izan zen, gainontzeko zigortuen testigantzek hala adierazten dute:

Félix Padín: *“Me acuerdo cuando nos llevaron a Igal y vimos marchar el batallón de los andaluces, nosotros estábamos acojonaos pero aquellos pobres estaban acojonaos del todo, además del hambre y de todo, ¡no estaban acostumbrados!, por lo menos a nosotros de casa de vez en cuando nos mandaban algo, (...) te decían que se habían muerto muchos, que tenían hambre y que les habían tratado muy mal. A nosotros nos estaban tratando parecido, lo que pasa es que estaban más endeblés”.*

Beste alde batetik, lan-jardunaldi luze eta lan-baldintza gogorreire erreferentzia egiten zaie. Diziiplina militarra eta tratatu txarrak, zigorrak eta mehatxuak, irain eta umilazioak. Militarren indarkeria, ustelkeria, harrotasuna eta harropuzkeria, zampaketa ideologikoa eta doktrinamendu saiakerari aurre egin beharra, gezurrak eta garaileen diskurtsoa zein ikurrak onartu beharra.

Mariano Cantalapiedra: *“Mano de obra barata con sudor de esclavos. Todo aquello se realizaba a base de pico y pala, el carrito y los cestos como los camineros, y así, días, meses y años. Todo lo que se comía a la montaña se acarreaaba hasta los lados más bajos para formar el ancho de la carretera. El corte de la montaña sobrepasaría los 250 metros de longitud por la anchura de una carretera de segundo orden, y la altura en su parte media pasarían los diez metros. Aquello parecía un hormiguero. La mayoría desnudos de cintura para arriba y en movimiento continuo”.*

Vicente Celis: *“Cada uno tenía que estar picando hasta que le dijeran, tú no decías nada y a picar y a sacar con la pala los escombros y, si no, a poner piedras para hacer las murallas, pasando con una cuerda de uno a otro, para hacer las murallas”.*

Manuel Soriano: *“Y en el trabajo vigilao con uno escolta por detrás, con sus fusiles. Para ir a orinar o otras necesidades tenías que pedir permiso y no mentir, porque te iban persiguiendo. Y en caso de perseguirte pasa, como a mí me pasó una vez, que me echaron ocho días al pelotón de castigo, con un saco de arena a la espalda, trabajando y volviendo, hasta cumplir aquello”.*

Sebastián Erdoiza: *“Bat e... eskoltieri, e, kontestautzen. Da, gabien, e! Biluztu, da biluzik e! Han egon zan hotzagaz, biluzik! “Firmes”! Atzanien orroka hasi zan da, bueno! Orduntxeik e sartu ebien”.*

Atanasia Pasquel: *“Nosotros en la misma puerta veíamos, o en la ventana, y que le habían pegado a Fulano. Se corría la noticia, “que le han pegao a éste”, o “le han pegao al otro” (...). Robaban, sí, pero porque necesitaban, ¡porque les obligaba el hambre!, ¡y les pegaban cada palo!, pero es que siempre lo pagaba el descarriao.”*

Milagros Jauregi: *“Yo sí me acuerdo de uno que lo hicieron pasear porque robó unas cebollas, le ataron las manos por detrás y pasó por todo el pueblo cantando: “así me veo por ladrón, por haber robao cebollas del tocón”. De otros castigos no me acuerdo, ¡te parece poco castigo el hacer allí la carretera con el fusil! Y si no, ¡tenían autoridad para pegarles!”*

Aipatutako hauek guztiek helburu zehatz eta zuzena zeukaten, zigortutakoa makurraraztea alegia, bai fisikoki bai ideologikoki. Eta horren aurrean, baziren amore eman zutenak, ihes egiten saiatu zirenak edota bidean geratu zirenak. Baina, orokorrean, gehienek egoerari osotasunez aurre egin ziotela aditzera ematen dute bere testigantzek.

Felix Padín: *“Te veías rebajao, te veías, no sé, que por una cosa o otra te querían eliminar, o por hambre o trabajando, a ver si te bajaba la moral o perdías la dignidad. Y opor lo menos no, y como*

yo, muchos; en los ratos que nos juntábamos nos dábamos moral y no nos dejábamos caer, prueba de ello es que se sigue, yo sigo por lo menos, y como yo creo que han seguido muchos, no llegaron a matarnos la moral, ni perder la dignidad, hemos seguido tiesos”⁴⁰

Bestelako alderdiak jasotzen dituzte bortxazko lanen lekuko izan zirenen testigantzek. Kontzentrazio esparru eta lan-eremuen hesietatik harago, zigortua eta bere gertuko ingurutik harago, frankistek garatutako sistema errepresiboak izandako eraginkortasunaren berri ematen digute. Ez da ahaztu behar modu batean edo bestean zigortutakoei bideratutako errepresioak bazuela zigortuaren haragoko proiektio soziala, gizarte osorako eredu-garria izan nahi zuen zigorra hain zuzen ere. Hala, hainbat alde nabarmendu daitezke. Garrantzitsuena, akaso, izua zabaltzea lortu bazuten ere, frankistek espero ez bezala, herritarrengan zigortuekiko elkartasuna sorrarazi zuela. Garaiko gazteek bereziki ondo gogoratzen zituzten gerturatze prozesu horren nondik norakoak, esan bezala, beldurretik abiatuz, benetako elkartasun desinteresatuan oinarritzen zen.

Teodora Iriarte: *“¡Oye, pues qué iban a hacer los pobres, ¿estarían muertos de hambre!, porque yo lo que vi que les daban aquí no era de sustancia, ni alimento, ni nada”*

Atanasia Pasquel: *“¡Entonces tenían tanto hambre los trabajadores, que se nos comían las patatas! ¡Oye, se las pelaban y se las comían! Y mi padre decía: ¡dejarles que se las coman! ¡Y les dejábamos que se las comiesen”*

Benetan garrantzitsua alderdi hau, are gehiago kontutan hartuta, herri txikien kasuan oro har jendea konterbadorea izango zela kasurik onenean, zigortuekiko eta, berez, ezkertiarrekiko, mespretxu edo beldurrez jantzitako aurreiritziez baldintzaturikoa. Horrek aditzera ematen du pairatutako errepresioa bera eta, berez, frankisten zigorrak espero zezaketenaren kontrako eragina izan zuela. Zigortuen sufrimenduak sorrarazi zuen horiekiko enpatia antzeko bat. Gauzak horrela, hasierako beldurra gaindituta, herritarren aldetik, errepresaliatuekiko nolabaiteko gertutasunari ateak ireki zitzaizkion. Horretatik abiatuta, modu batean edo bestean hasiko ziren elkarren artean harremantzen:

Juan Arantzamendi: *“Haiek ikusten zuten gu ez ginela frankotarrek esaten zuten bezala, demonioak, ikusi zuten gu normalak ginela, ta klaro, sasoi onekoak! Mutil ederrak ba ziren gure artean, eh!”*

Adierazgarriak dira testuinguru horretan herritarrek zigortuak ahal zuten moduan laguntzeko garatutako estrategiak. Horiei egiten diete erreferentzia bai errepresaliatuen testigantzek, baita herritarren testigantzek ere. Adierazgarria litzateke herritarrek lapurretak eta abar barkatu edota ezikusiarrena egin izana, esate baterako. Halakoak modu berezi batean gogoratzen dituzte batailoietan egondakoek.

Rafael Arjona: *“Yo me acuerdo perfectamente de una que, viendo el hambre que teníamos y, como tenían las chulas colgadas, de vez en cuando nos llevaba con un pan (...). Total, que cogíamos unas rebanadas de pan, de aquéllas largas, y metíamos la chula dentro, ¡no veas tú de la forma en que se comía la carne aquélla! Y de eso, alguna noche, participábamos porque nos lo llevaba esa mujer a la oficina donde estábamos. Había una que le decían la Serapia. Una señora que estaba viviendo allí enfrente de la iglesia (...). Esa mujer ya sabía las cosas que pasaban allí, y lo que comíamos y lo que no comíamos, tendría alguna escucha clandestina; ésas eran las noches que nos quitaba el hambre aquella mujer (...). ¡Y eso que estábamos en la oficina! Los que no estuvieran allí... ¡qué tal lo pasarían!*

Félix Padín: *“Cuando fuimos a Oiartzun, en el campamento que se llamaba Babiloni, enfrente había un caserío que nos dejaba una mujer mayor que tenía los hijos igual que nosotros, y, claro, salíamos allí a robar todo lo que pudiéramos, los maíces; y yo le decía a la mujer, “¿no se queja usted, señora?”, “¡Como me voy a quejar, hijos míos, si tengo a los hijos igual que vosotros!”*

Adierazgarri bezain hunkigarriak dauzkagu honen guztiaren inguruko lekukotzak, bai batzuenak zein besteak, ankerkeriaz gainezka egiten duen ikerketa honi loturiko alderdi ezberdinen hausnarketari heltzeko modu aproposa.

⁴⁰. Gallo; 38. SLDB batailoian zelakoa zigortua.

Beaumont, E.; Mendiola, F.: *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Txalaparta. 2006, Tafalla.

► BIBLIOGRAFIA ETA DOKUMENTAZIO ITURRIAK

BIBLIOGRAFIA

Aizpuru Murua, Mikel: *Zapalkuntza-politika gerran eta gerraren ondoren. Errepresioa, heriotza eta bortxakeria bi aldeetan. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria*. UEU. Bilbo, 2009.

Barruso, P.: *Violencia política y represión en Guipúzcoa durante la Guerra Civil y el Primer Franquismo (1936-1945)*. S.L. HIRIA LIBURUAK. Donostia, 2005.

Beaumont, E.; Mendiola, F.: “Batallones Disciplinarios de Soldados Trabajadores: Castigo político, trabajos forzados y cautividad “. RHA, Vol. 2, Núm. 2 (2004)

Beaumont, E.; Mendiola, F.: *Esclavos del franquismo en el Pirineo*. Txalaparta. 2006, Tafalla

Chueca, Josu: *Gerra Euskadin. Bilakaera historikoa. 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria*. UEU. Bilbo, 2009

Egaña, Iñaki: *Frankismoa Euskal Herrian. Behin betiko konponbidea*. Euskal Memoria Fundazioa. Andoain, 2011.

Egaña, Iñaki: *1936. Gerra Zibila Euskal Herrian*. IV atala: Gerra zibila Gipuzkoan. Aralar Liburuak. Anodain, 1998.

Kattin-Txiki taldea: *Isiltzen ez den isiltasuna: lurpetik berreskuratutako memoria*. Oiartzungo Udala. Oiartzun 2009.

Kattin-Txiki taldea: *Isiltzen ez den isiltasuna: lurpetik berreskuratutako memoria*. Agirien Txostena. Oiartzungo Udala. Oiartzun 2009.

Mendiola, F.: “Goiztik gabera lan eiten dugu soldatarik jaso gabe». *Bortxazko lanak eta euskal ekonomia (1937-1962)*.” 1936ko gerra Euskal Herrian: Historia eta Memoria. UEU. Bilbo, 2009.

Mendiola, F.: “*El impacto de los trabajos forzados en la economía vasco-navarra (1937-1945)*.” Investigaciones de Historia Economica, nº 8. 2012.

Mendiola, F.: “*Frankismo garaiko bortxazko lanen antolaketa legala eta ondorio sozioekonomikoak*.” *Bortxazko lanak diktadura frankistan*. Memoriaren Bideak-Geronimo de Ustariz Institutoa. 2007, Iruñea.

Sáez García, J. A.: *La fortificación Vallespín (1939-1940) en Gipuzkoa*. Ingeba 11. Donostia, 2010.

Zabaleta, M.: “*Frankismoa gerran eta gerraondoan*.” *Errenteriako historia*. Errenteriko Udala. Errenteria, 1996.

DOKUMENTAZIO ITURRIAK:

Lezoko Udal Artxiboa
Oiartzungo Udal Artxiboa
Errenteriako Udal Artxiboa
Pasaiaiko Udal Artxiboa

Lezoko Bake Epaitegia
Oiartzungo Bake Epaitegia
Errenteriako Bake Epaitegia
Pasaiaiko Bake Epaitegia

► ERANSKINAK

ELKARRIZKETAK

• Félix Padín Gallo



1936ko altxamendu militarren, gerraren, eta lehen frankismoaren garaietan murgildu gintuzten Padinen kontakizunek, militar eskuindar eta indar faxisten pronuntziamentuekin batera abiatu zen errepresioaren lekuko zuzena izandakoa baitzen. Errepresioaren bilakaera eta sistematizazioaren ondorioz, hau modu ezberdinetan garatu eta bideratu zen, gerraren beharren arabera eta, zuzentzen zitzaion jende multzoaren arabera eta Felix Padinen testigantza errepresio frankistaren aurpegi ezberdinen adierazle izan genuen. Hil aurreko asteetan izan genuen bere lekukotasuna jasotzeko aukera.

Felix Padin Gallo 1916an Bilbon jaioak eta 2014ko urrian hil da Miranda de Ebron, 98 urte zituela. Altxamendu militarrek eta 1936ko gerraren hasierak Bilbon bertan hartu zuen. Altxamenduaren hasierako unetatik aurrera parte hartze aktiboa izan zuen berak, Bilbo galtzearekin batera 1937an atxilotua izan zen arte. Era berean, erregimenaren hatzaparretan errepresioaren aurpegi ezberdinen lekuko izan zen, espetxe eta atxilotze esparru ezberdinak ezagutu zituen, gerrako presoak sailkatzen ziren moduan sailkatua (*Desafecto* moduan alegia), Mirandako kontzentrazio esparrua alde batera utzi eta gerra garaian sortutako batailoietara bidali zuten arte. Zeregin militarretan ibili zen, frankisten armadaren mesederako mota ezberdineko lanak eginez. Behin gerra amaituta, bortxazko lanen sistemaren lekuko izaten jarraitu zuen, eta 1940. urteko udaberri aldera askatasuna lortu eta aske utzi bazuten ere, denbora gutxiren buruan Mirandako kontzentrazio esparruan ikusiko zuen bere burua berriz ere.

Bertatik, gerra osteko batailoiak osatzera bidali zuten, soldaduskarako adinean ziren beste milaka gazteren antzera, aurreko batailoiek, gerra garaikoek alegia, hasitako lanarekin jarrai zezaten. Pirinio aldeko lan ezarmendu ezberdinetan aritu zen ondoren, 38. Soldadu Langile Diziplina Batailoia zelakoan, hain zuzen ere. Atxilotu zuten momentutik aurrera, sei urte eman zituen bortxazko lanen zigorraren pean, 1943an soldaduska arruntarekin ere amaitu ondoren lizentziatua izan zen arte.

Familia xume batean jatorria izanik, gertutik ezagutu zituen langileriaren bizi baldintza gogorrak. Eskola nahiko goiz utzitakoa (12 urte zituela), gazte ezagutu zuen lan merkatuaren mundua eta, era berean, lan arloari lotutako borroka. Orduan, bere anaia nagusien pausoei jarraiki, ekin zion CNT sindikatu anarkistan militatzeari, izan ere, aspalditik izan zuen anarkismoarekin eta anarkosindikalistekin harreman estua. Sindikatua bilakatu zen bere egunerokotasunaren erdigune eta ideia anarkisten araberrako gizarte berri baten aldeko borroka eta horren eraikuntza bere helbururik nagusienetakoa zen.

Hala, militarren altxamenduaren berria jaso zuenean, militarrei aurre egiteko prestatu zen, gainontzeko CNTko kideekin antolatuz. Otxandio eta Legutio aldera gerturatu ziren miliziatan ibili zen, azkenean, Eusko Gudarostea sortu zenean, barneratuak izan ziren artean. Bizkaiko kanpainaren amaierarekin batera, Bilbo erortzearen zenean falangistek atxilotu zuten, Bizkaian eta Gasteizen inprobisatutako kartzela ezberdinetatik igaroz, behin Mirandako kontzentrazio-esparruan langile batailoietara bidali zuten arte.

Nolakoa izan zen zure atxiloketa eta ondorengo ibilbidea?

16an, 16an atxilotu ninduten eta Bilbo hiru egun beranduago erori zen, 19an.

Arrigorriagara eraman ninduten lehengo, hantxe egun bat edo bi izan gintuzten, gero Galdakaon autobusak etorri ziren eta Gasteizko espetxera.

Gaur egun Parlamentua den horretara?

Han izan ginen, baina nik uste hura igarobide bat izan zela, ekintzaren bat gertatzen zenean bertara eramaten zintuzten eta hortik beste leku batzuetara bidaltzen gintuzten, ni Murgiara.

Bertatik Mirandako kontzentrazio eremura bidali zintuzten? Nolakoa izan zen, zer gogoratzen duzu bertatik?

1937ko abenduaren 8an, militarren patroia zen eta festa ospatzen ari ziren. Atean utzi gintuzten sartu gabe, eta kantan eta dantzan entzuten genituen. Han izan zintzen berriz ere 39an, pasadan izan zen, Salamancako herri batera eraman gintuzten. Ez dut ondo gogoratzen. Langile Batailoiak jesuita baten ideia izan ziren, eta sortu zituztenean, alemaniarrek etorri ziren horiek kontrolatzera, baina hemen ez ziren egon horrelako saraskirik, bai, izan ziren, beste modu batean erailtzen gintuzte; gosea, miseria, kolpeak. Denetarik, denetarik. Nik esan ohi nuen, hauek nahi dutena da gu hemen hil gaitezen. Nik uste baietz, janaria, ez zegoen hori jango zuenik, gosea pasatzen zenuen. Ni hona ekarri nindutenean izorratu nentorren: kalamitateak, gosea. Tifusak harrapatu ninduen, sarnak eta kolitisak, ez dakit zer beste gauza gehiago, lau, eman nuen denboran lau... Gogoratzen dut bazela barrakoi bat, intendentzia moduan erabiltzen zena, ospitalea, miseria bat zen, bertan egurra jasotzeaz libratzen zinen behintzat, eta gosea, gauza bera, gogoratzen dut esnea ematen zizutela, nik ez dakit zer izango zuen hura, zapo arraioa zuen!

Zein izan zen zuen zeregina gerra bitarteko batailoietan? Lubakiak egiten al zenituzten?

Bai, hasieran bai, ni hemendik atera nintzen, kontzentrazio esparrutik, 38an, otsailan, Guadalajarara, lubakiak egitera. Leku batzuetan, ez beti, gureak hemen ziren, haiek han, eta zu erdian jartzen zintuzten, pikotxa eta palarekin.

Leku ezberdinetan ibili ondoren, Madrid, Sigüenza, eta abar; oker ez banago, 2. batailoiarekin Baztana eraman zintuzten gotortze lanetan aritzera.

Han Baztango bailaran, Nafarroan, eta han, beste batekin, ofizioa ezagutzen genuenez, hartu gintuzten enkofratuak egiteko.

Bertatik Gipuzkoa aldera eraman zintuzten?

Bai, gogoratzen dut baserrietatik joaten ginela eskatzera, eta bai, ematen ziguten.

Herritarrekin harreman ona zenuten orduan?

Bai, eta horrek sutan jartzen zituen, menditik egurra jaistera zigortzen zintuzten, eta, oxtia txarrez joan beharrean, dantza eta kantari joaten ginen, eta, horrek bai izorratzen zituela... Errenterian, Oiartzunen, leku askotatik ibili ginen. Non zegoen kanpamentu hura? Ahaztu egiten zaizkit gauzak, behin eraman ninduten kanpamentua ikustera, oraindik zutik zen, orain supermerkatu bat dago, Babiloni Bertan, ez dakit zer dela eta, Bilboko beste bati eta niri, ateratzen uzten gintuzten, bi neska etortzen ziren familiarrek ginela esanez. Gure bila etortzen ziren paseo bat ematera eramateko, mutil laguna moduan hartzen zintuzten eta eramaten zituzten. Bai, laguntzen zintuzten, bai. Larunbatero eta igandero etortzen ziren gure bila. Bazen bilbotar bat, CNTkoa ere bai, aizkolari moduan ibiltzen zena. Dena eskura zeukan, hura ere ematen zidan jateko.

Nolakoa izaten zen batailoian zigortutakoen arteko harremana?

Hori, taldeak osatzen ziren orokorrean, ezagutzen zinen elkarrekin eta bazenekien zeren inguruan hitz egin zenezakeen... Kanpamenduaren parean bazen baserri bat, eta ateratzea posible genuenean, joan ohi ginen lapurtzera, patatak edo zeozer, ateratzen genizkien eta behin esan genion, emakumea zen, oso heldua, galdetu

genion, 'zergatik ez gaituzu salatzen?' Berak esan zuen, 'nolatan salatuko zaituztet ba? Zuek bezala dauzkat nire semeak eta'. Nik ez dakit nola izango zen beste kasuetan, baina gure kasuan, CNTkoek, taldeak osatu eta elkarri laguntzen genion, lauzpabost lagunen artean etxetik bidaltzen zizutena konpartitzen genuen, gauetan ateratzeko. Horietako herri batean, 14 kilo pisatuko genituen! Behin errepidean formatu gintuzten, denok bajan ginen, errepidean formatu gintuzten eta alkandorarik gabe, medikua jaisten, zen, hau sano dago, hau ez, kolorea dauka, lanerako balio du. Nola ez ba? Uztaila zen, beroa egiten zuen, kolorea zenuen, baina hezurra besterik ez!

Ni egin nintzen horretan bai. Ni nengoen, ametralladoratan egokitu zitzaidan, Lugo aldean herri garrantzitsu batean, izan genuen kapitaina, gerragatik zauritua izan zen, gorria gorria esaten zigun.

Libre geratu zinen 1943 urteko ekainean. Gaur egungo ikusmiratik, zein izan dira errepresioaren ondorioak zuretzat eta zure familiarentzat?

Ez, nik zortea izan dut. Atera nintzenean, bitan aurkeztu behar izan nuen, problemak eman zizkidan, etxez aldatu ezker abisatu beharra neukan, eta bila etorri zitzaizkidan lantegira. Esposatuta eraman ninduten.

Zer adieraziko zenuke gaurdanik iraganari begira?

Hau dela Historia. Nik sindikatuan transmititu nahi izan dudana, horren heldua izanda ere, bertan jarraitzen dut oraindik.

Zer edo zer esan nahiko zenieke zuk jaso behar izandako errepresioaren erantzuleei?

Guri egin zigutena egingo nieke. Beste gobernu bat egongo balitz...

Zer nolako garrantzia dauka zuretzat memoria historikoa berreskuratzeak?

Neretzat badu, nola esango nuke, garrantzia handia du lehen borrokatzen zen bezala borrokatzen jarraitzeak, dirurik gabe.

Lehenago egin behar izan zuten hau guztia, Felipe Gonzalezen garaian, eta esan, etorri behar duena etorri behar, baina hau ez.

Azkenaldian egin dizkizueten aitortza adierazpenekin-eta, zuk uste duzu justizia egin dizuetela?

Hemen aberatsentzat baino ez dago justiziarik.

• **Marcelo Usabiaga Jauregi**



Marcelo Usabiaga Jauregi, gaur egun Hernanin bizi dena, 1916an Ordizian jaio zen. 1936ko gerraren hasierak Irunen hartu zuen, eta altxamenduaren hasierako unetatik aurrera 1939. urtera arte luzatu zen gerra odoltsuan parte aktiboa izan zuen, gerra amaitu eta astebetera Valentzian atxilotua izan zen arte. Erregimenaren hatzaparretan, espetxe eta atxilotze esparru ezberdinak ezagutu zituen, kartzela alde batera utzi eta zigortuen destakamendu ezberdinetan esklabo lanak egitera behartu zuten arte.

Irunen egin zuen gaztaroa. Gurasoak langile zituen eta halako familia batean jaiotakoa izanik, beka bat eskuratu behar izan zuen Perito merkantil ikasketekin jarraitu ahal izateko. Garaiko irakinaldi politiko-sozialaren lekuko izan zen, 1933an, *Federación Universitaria Española* (FUE) eta Gazteria Komunistaren kide aktiboa zen zegoeneko. 1936. urterako Alderdi Komunistako kidea. Errepublikaren garaiko errepresioaren lekuko ere izan zen, eta 1934ko iraultzaren ondorioz errepresaliatutako asturiar meatzariei laguntza emateko sarean parte hartu izana leporatu ziotenean lehenengo atxiloketa iritsi zitzaion. Hura lehenengoa baino ez zen izan. Gerraren hasierarekin faxisten aurka borrokatzeko erabakia hartu, eta frontez fronteko ibilbidea hasi zuen Irun erori bezain laster, armada errepublikanoan ardura eta kargu militar ezberdinak berreskuratuz. Gerraren amaierak Valentzian bertan harrapatu eta alde egiteko bere aukerak porrot egin ondoren, falangista talde batek aurkitu egin zuen eta atxilo hartu.

Kontzentrazio esparruetan C moduan sailkatua izan zen, Kausa Orokorraren baitan epaitu beharrekoa, alegia. Hala ere, heriotza zigorra ekiditea lortu zuen. Horren ordez, 30 urteko espetxe zigorra ezarri zioten. Auzitegi militarren ondoriozko sententziak zera zioen: *“Rojo Separatista venido voluntario de Francia con dinero de Socorro Rojo internacional”*. Lanaren Bidez Zigorra Berrerosteko sistemaren bitartez lan eginez, Ondarretara gerturatu zuten, azkenean Arroako zigortuen destakamendura bidali zuten arte. Bertan ziren gainontzeko komunistekin elkartuz, talde bat osatu zuten, baina lantegian egin zituzten sabotajeak zirela eta, ihes egitera behartua ikusi zuen bere burua. Ihesaldiak, ordea, ez zuen luze joko, denbora gutxiren buruan makisaren gerrillariekin Bidasoako muga zeharkatzen harrapatu baitzuten. Ondarretako ziega batean urtebetez isolaturik pasa ondoren, Espainiar Estatuko ziegetan hogeitaz luze luze ibilbideari hasiera ematen zion.

Nolakoa izan zen zure ibilbidea lehen aldiz Zigortuen Destakamendura iritsi zinen arte?

Torres herriko elizara eraman gintuzten hasieran, Valentziatik Teruelerako errepidean. Ez, lehenengo zezen plazara, eta zezen plazatik elizara. Bertan, gauero, bost ala sei falangista etortzen ziren Barakaldoko horren bila (...) Bertatik Portacelira eraman gintuzten, *Porta-celi*, zeruko atea, hura ez zen halakoa ordea. 10.000 preso, 10.000 preso! Harresirik gabe, alambre-hesiz inguraturik, dena metrailadorez beteta. Kontzentrazio-esparru bat zen, eraikin bat bazen ere, tuberkulosoentzako ospitalea izandakoa. Eta bertatik eraman ninduten, behin eskatu zuten 37ko kintakoak aurkeztu gintezen, tornulariak zirenak, eta nik pentsatu nuen, “tornularia naizela esan, atera, eta, alde egiten saia naiteke”. Eta atera nintzen, ehundik gora tornulari, kamioiak etorri ziren eta Valentziara eraman gintuzten, Bonrepósera. Bertan gerrako kamioiak konpontzeko tailer bat zegoen. 150 tornulari inguru formazioan jarri gintuzten, ilaratik atera nintzen, bi urrats aurreratu eta koadratu egin nintzen, eta esan nuen, “37ko kintakoa naiz baina ez tornularia, merkataritza-irakasle naukazu”. Eta bulego batera eraman ninduten, hilabete bat izan nintzen bertan, uztailearen 15etik abuztuaren 15era.

Eta bertan ohartu ziren alde egiteko asmoa zenuela...

Bai, goizeko lauretan hartu eta Portacelira eraman ninduten berriro, eta nor nintzen aitortu behar izan nuen. Bertan izan ninduten epaiketa bitartean, eta, bertan jakin nuen zein zen nire aurkako salaketa, Irungo sutea eta fusilamenduetan parte hartu izana leporatzen zidaten.

Bertan izan zinen aipatzen zenituen saken lekuko, astero, hiru egunetan 30-40 pertsona ingurukoak?

Bai, 40-50 pertsona inguru ateratzen zituzten, baina geroxeago izan zen hori, epaiketa ondoren, Valentziako Celular espetxean izan zen. Epaiketan heriotza-zigorra eskatu zidatenez, sententzia atera bitartean, bertara eraman ninduten, eta hilabete-hilabete eta erdi bitartean, nik ikusi ditut ziegatik ateratzen lau, bost edo sei aldi bakoitzean, astean bi alditan edo.

Sententzia iritsi zenean, ordea, heriotza zigorra ekiditea lortu zenuen. Ondarretara eraman zintuzten orduan?

Bai, nire aitaren nagusia zenaren bitartez. Nire aitak, Dirección de Prisiones zelakoaren bitartez, zigorturen destakamendu batean etxetik gertu lan egitera ekar nazaten lortu zuen, familiaratik gertu egoteko. Valentziako espetxetik Donostiara, Ondarretako espetxera ekarri ninduten. Sotoan sartu, goizeko zazpitan esnatu eta 150 preso ingururi nik aurretik ezagutzen nuen bide batera eraman gintuzten. Donostiako Antigu aldera, Igeldo mendiaren azpialdean, gaur egun Tolosa etorbidea izena duen bidera, lehen bide arrunt bat besterik ez zen.

Destakamendu berrian egindako lehen lana, bagonetak harriz eta lurrez betetzea eta gaur egin errepidea den horretara eramatea izan zen. Bagonetari bultzaka itzuli eta berriro ere, leher eginda amaitzen zenuen. Hamabitan bazkaltzen zenuen eta, janari plater bat ematen zizuten. Eseri, bazkaldu eta lanera itzultzen zinen berriz ere. Eta gauez espetxera, satora. Zure lankideak izan ezik, ez zenituen gainontzeko presoak ikusten.

Baina Tolosako hiribidean lanean ari nintzela, eta Irun hemendik gertu izanda, baten bat nire bila etor zitekeela pentsatu nuen. Nire aitarekin hitz egin nuen, beste destakamendu batera bidali nazaten beharrezkoak ziren gestioak egin zitzaizkion. Hilabete eskas baino ez nuen igaro. Orduan Arroara eraman ninduten, bulegora. Lehen egunean herriko apaizarekin istilu bat izan nuen, mezatan. Preso guztiak formatu eta elizara, eta ni, lehena; iritsi berria nintzenez lehenengo ilararaino. Meza entzun ondoren, apaiza gurutzearekin gerturatu zitzaizkidan, musu emateko eskatuz, eta nik pentsatu nuen, "hau burutik jota dago, penalean ere, ez naute horrelakoak egitera behartu!". Gehiegi pentsatu gabe, buelta eman eta elizatik atera nintzen eta, jarraian, 150 presoak nire atzetik. Sekulako iskanbila sortu zen.

Gerora, destakamenduaren arduradunaren konfiantza irabazi nuen, bizikleta uzten zidan eta alde batetik bestera ibiltzen nintzen, neskei bisitak egitera joaten nintzen. Hala egin nuen bizitza alde egin behar izan genuen arte.

Presoek ez genuen lantegian lan egiten, presoek aire-ezartzea egiten genuen, goian ziren Itziarko harrobietatik lantegiraino kable bidez harria garraiatzeko. Baina jakin genuen, lantegikoen bidez (bertakoekin harremana egin nuen, nire aitona-amona bertakoak baitziren), langile batek nire izena lantegiko nagusiari entzun ziola. "Zer edo zer egingo zenuten", esan zidan.

Zertan ari zineten ba?

Motor elektrikoak galdatzen genituen, lantegiko argiketarien laguntzarekin. Zelula bat osatu genuen komunistak talde batek. Zortzi edo hamar izango ginen, igandero elkartzen ginen, guk bagenekien, bertan ekoizten zen porlanaren erdia Pasaiara joaten zela, bertatik, itsasontziz Bordelera, alemaniarrentzat. Eta zera pentsatu genuen, "hemen presoak, antifrankistak, alemaniarrei eramateko porlana egiten? Ezta pentsatu ere!". Eta orduan erabaki genuen. Matxura ezberdinak azaltzen hasi ziren, ez asko ezta oso garrantzitsuak ere ez, baina, azkenean, lantegiko zuzendariak jakin izan zuen. Orduan, zortzi-bederatzi komunistak horien artean eztabaidatu genuen, eta hartutako erabakia Frantzia aldera ihes egitea izan zen. Nik ez nuen preso itzuli nahi, gerra bukatzeaz zen, 1944an.

Frantziara alde egitea erabaki genuen, bost ginen. Nerretzat hori ez zen lan handia, Frantziarako bidea ondo ezagutzen nuen eta. Donostiarako trena hartu genuen Zumaian. Donostian Egian jaitsi ginen, Iruneraino Urolako trena hartu eta Irunen Bentatan jaitsi ginen. Menditik, San Martzaleraino iritsi ginen, Puntxara jaitsi, eta bertan guardian zen karabineroa noiz pasa zain egon ginen. Pasa zenean, ibaira jaitsi ginen gurutzatu eta Frantzian ginen jada.

